ASTELEHENEKOA

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2014-10-27
ASTELEHENA
471. ZENBAKIA
11. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.EUS
TOKIKOM

Etxeko lehen partidua galdu MUk

Mikeldi gehiago izan da (99-102) | 24

Saez de Kortazar saskiratzen. | I.S.

Gipuzkoako 24. ibilaldiak 600 erretiratu elkartu ditu Oñatin | 5

Erretiratuen Eguna Aramaion dantzek eta azokak girotuta | 13

Nazioarteko Txotxongilo Mostrak zapore gozoa utzi du Bergaran | 31

Lana eta aberastasuna banatzeko eskaera Mondragoni

Fagor Etxetresnetako eta Edesako langile ohiek mobilizazioekin jarraituko dute | 5

Denis Josselin funanbulista. | I. SORIANO

Funanbulistaren lanak aho zabalik utzi ditu arrasatearrak

Hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik badagoela erakutsi dute euskalgintzakoek | 12

Lehengo eta oraingo loreak elkarrekin dantzan

Lore Gazteak dantza taldeak 50. urteurreneko ospakizuna egin du | 29

Alardearen hasieran, Xeli Arregi eta Kike Gomez de Segura agurra dantzatzen.

IMANOL SORIANO

SINADURAK

ZULAI PLAZAOLA | 9

9 | JULEN IRIONDO

INES ALDAI | 14

16 | MAIALEN MADARIAGA

MIREN ZUBIA | 18

19 | MAIDER OTAMENDI

OIHAN VEGA | 37

40 | MARKOS BALENTZIAGA

iker, s.l.
sukaldeak | etxea | armairuak
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
dica.

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 | ELKARRIZKETA 8 | IRITZIA 9 | HERRIAK 11 | KIROLA 22 | KULTURA 29 | GURE TALDEAK 32 | JAKINGAI 33 | ZURE IRAGARKIAK 34 | ON EGIN 35 | TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 | JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

Antxintxika krosaren atarian, debagoiendarrak korrikarako prest

- Kirol osasuntsua da baina prestatu beharrekoa
- Osasun azterketak egitea gomendatzen dute

Iazko Behobia-Donostia lasterketa. | GOIENA

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Korrika egitea material askorik eskatzen ez duen kirola da, bakarrik egin liteke eta ez da kirol instalaziorik behar. Horregatik, gero eta jende gehiagok egiten dio kosk amuari, eta mendian zein kalean, bakarka zein taldean, gozamen hutsagatik edota lehiarako grinagatik, non nahi ikus daitezke korrikalariak, batez ere urte sasoi honetan, ziurrenik iristear diren lasterketetarako entrenatzen. Izan ere, aurtengo neurketa herrikoiak amaitzear dira, eta korrikalariak urtea sasoi onean bukatzeko azken ahaleginetan dabiltza. Askok Behobia-Donostia famatua dute buruan, baina badira beste aukera batzuk ere. Urrutira joan gabe, Bergaran bertan domekan ospatuko den Antxintxika Krosa.

Mikel Labaka bergararrak aurten ere krosaren antolaketan jardungo du, Antxintxikako taldekideekin batera eta azaldu du "aukera aparta" izaten dela Behobiara joateko intentzioa dutenentzat entrenamendu gisa, baita maratoi erdiaren mailara iristen ez direnentzat ere, krosak 10 kilometro baino ez ditu eta. Haren esanetan, gero eta jende gehiago animatzen da korrika egitera: "Normalean aritzen ez den jendea ere animatzen ari da, Behobiak motibatuta" dio.

Horietako bat da Olatz Arregi, korrikalari hasiberria bada ere, hurrengo domekan Donostiako lasterketan izango dena. "Ni berez bizikletan ibiltzen direnetakoa naiz", aitortzen du oñatiarrak, baina "korrikan hasi nahi nuela erabaki nuen, eta kosta egiten zaidanez, motibazio gisa, Behobiarako apuntatu nintzen". Hilabeteak daramatza bere kabuz entrenatzen, eta esan duenez, "oso esperientzia gogorra" izan da beretzat. Labaka ere bat dator Arregirekin "kirol honetan, hasiera oso gogorra izan ohi da, zure gorputza ezinean ikusten duzulako, baina behin hobetzen hasita, aurrera egiteko gogoa sendotu egiten da".

Aukeako korrikalari hasiberrien entrenatzaile den Olatz Igartuak, ordea, gomendagarriagoa deritzo zerotik hastean ikastaro batera joateari: "Hasieran oinarrizko jarraibide batzuk jasotzea garrantzitsua da. Horrela, norbere kabuz korrikan aritzean nola jokatu jakingo dute korrikalariek", dio. Arrasateko Athloneko Alberto Garaik urteak daramatza kirol medikuntzan, eta haren ustez ere oinarriak ezagutu beharra dago, etorkizunean lesioak saihesteko.

Osasuna gertutik zaindu

Garaik uste du, edozein kirol praktikatzeari ekin baino lehen, baita Behobia bezalako lasterketa baten aurretik ere, "gomendagarria baino gehiago, derrigorrezkoa" dela osasun azterketak pasatzea. Izan ere, "askok jai egun gisa soilik ikusten dute, baina ez da txantxetan hartzekoa. Ondo entrenatuta eta gauzak ziurtatuta joan behar da bertara", esan du medikuak. Baina errealitatea bestelakoa da, debagoienetik Behobia-Donostia egitera joaten diren 500 pertsona ingurutik, 100ek ere ez dute-eta osasun azterketarik egiten, Garaik urteetako esperientzian oinarrituz emandako datuen arabera.

Dena den, hasiberriek bakarrik ez, korrikan urteak daramatzatenek ere egin beharko lukete bi urtetik behin azterketaren bat, kirol medikuaren esanetan, gorputza aldatu egiten delako.

Osasun azterketen helburua prebentzioa dela dio Garaik, eta, kirola praktikatzea eragozten duen gaixotasunik ez dela frogatzeko egiten direla. "Kirola estres bat da gorputzarentzat", dio, "eta aurrez ditugun arazoak azalera ditzake". Horregatik, hipertentsioa, kolesterol altua, bihotzeko arazoak edota hanka zapalketa arraroa bezalako arazoak dituztenek, esaterako, arreta berezia jarri beharko dute lesioak edo kalteak saihesteko.

Hala ere, ez da ahaztu behar, sor litzakeen arrisku guztien gainetik, korrika egitea "ariketa osasuntsua" dela. Hala ziurtatzen du Athloneko medikuak "gaixotasun gehienak hobetu egiten ditu, eta arma terapeutiko oso ona dela uste dut".

Entrenamendu orekatua

Nola aritu jakiteak, beraz, arazo asko ekiditen lagun diezaioke kirolariari. Korrika egiterakoan, gorputzaren keinuak behin eta berriz errepikatzen dira, eta errepikapen horretan "kalterik sor ez dadin" teknika lantzea komeni dela uste du Garaik. Horretarako, badira oinarrizko mailan diharduten talde zein ikastaroak.

Igartua entrenatzaileak, esaterako, argi du ezer baino lehen "gorputzari korrikan hastera goazela" esan behar zaiola, ondoren geldialdi txiki bat egin eta artikulazioak mugitzea komeni dela, eta orduan egongo dela kirolaria korrikaldiari ekiteko prest. "Egunaren arabera, korrikaldi mota aldatuz joatea gomendatuko nuke", azaldu du, "ordubeteko saio luze eta geldoek erresistentzia garatzen laguntuko digute, baina abiadura lantzeko erritmo aldaketak sartu ezean, gorputza saio luzeetara ohitu, eta puntu batera iritsita, ez da gehiago hobetzen".

Horregatik, bi korrikaldi motak konbinatzearen eta euren arteko oreka bilatzearen beharra azpimarratu du.

Ohitura aldaketekin, kontuz

Arregik argi dauka lasterketaren aurretik ez duela ezer berezirik egingo "ez zait esperimen-

Iazko umeen lasterketa. | GOIENA

Antxintxika krosa, denon eskura

Eskualdeko korrikalariek domekan izango dute euren indarrak neurtzeko aukera. Askorentzat Behobia-Donostiarako entrenamendua dena, baina, beste batzuentzat lasterketetan aritzen ausartzeko lehen pausua, eta alde horretatik, Antxintxika taldekoek gerturatzeko deia luzatu diete debagoiendarrei, lasterketak "izaera herrikoia eta parte hartzailea" duela azpimarratuz.

Egubakoitza izango da izena emateko azken eguna, eta *kirolprobak.com* webgunearen bidez egin beharko da. Korrikalariez gain, patinetan, gurpildun aulkietan eta hand biketan doazenek ere parte hartu ahal izango dute; eta umeentzako lasterketa berezia ere egongo da.

ESANAK

"Lesioak saihesteko, teknikaren oinarriak ezagutu beharra dago"

ALBERTO GARAI | KIROL MEDIKUA

"Ez da komeni lasterketa egunean esperimentatzen hastea "

OLATZ IGARTUA | ENTRENATZAILEA

"Korrikan hastea erabaki nuen, eta motibazio gisa Behobian eman nuen izena"

OLATZ ARREGI | HASIBERRIA

"Bakarkako kirola da, baina lantzen diren balioak taldekoak izaten dira"

MIKEL LABAKA | ANTXINTXIKAKO KIDEA

tatzea gustatzen. Agian gehiago hidratatuko naiz, baina arropari dagokionean ere, betikoa eramango dut". Hain zuzen ere, horixe da Igartuak gomendatzen duena, ezin delako jakin estimulu berrien aurrean gorputzak nola erantzungo duen: "Lasterketa eguna ez da gauza berriak probatzen hasteko egokiena", esan du.

Ohituraren bat aldatzea posible da, ordea, gunean bertan egingo den guztia aurrez probatu daitekeelako. Horrela, lasterketa egunean gosalduko dena eta jantziko dena kontuan hartuz, adibidez, simulazio antzeko bat egin daiteke, gorputzak nola erantzungo duen frogatzeko.

Muturrera iritsi gabe

Labakak begi onez ikusten du lasterketetan parte hartzea bultzatzea, baina azpimarratu du gutxieneko prestaketa "beharrezkoa" dela, gorputza korrika egitera ohitu behar delako. Horren harira, Arregik lasterketa batean ikusitakoa ekarri du gogora: "Helmugara iristeko 500 metroren faltan lurrean botata edo erorita zegoen jendea. Hori gertatzen da zure buruari posible duzuna baino gehiago eskatzeagatik", esan du. Igartuaren ustez, "lotsagarria" da hori, nahiz eta pasa daitekeela onartzen duen, "egun txar bat izatean", edo "eguraldi beroagatik". Haren esanetan, entrenamenduetan norbere burua ezagutzen eta mugak non dauden ikasten da, eta "Behobia egitearren norbere burua muturrera eramatea ez dago kirolaren filosofiaren baitan". Izan ere, "txorakeria dirudien arren", lasterketan zehar jasandako kalteek "epe luzera eraginak izan ditzakete korrikalariengan".

Lehia baino askoz gehiago

Kirolak, eta korrikaren munduak berak, norgehiagoka dakarte euren baitan, eta askok era horretan baino ez dute bizi, "egun ditugun karrera guztiei begiratuta, argi ikusten da zenbat jende mugitzen den mundu horretan", argitu du Igartuak. Arregik, berriz, onartzen du bera lasterketara "eguna pasatzera eta bukatzen saiatzera" doan arren, "amorrua" emango liokeela bere helburua ez betetzeak, baina oñatiarrak nabarmendu du "sentimendu horrek asko euren gorputza gehiago behartzera" eramaten dituen arren, berak ez duela horrelakorik egingo, min hartu aurretik gelditzen badakielako.

Korrikalari guztiek ezberdin bizi dute kirola, eta helburu ezberdinekin janzten dituzte korrikarako zapatilak. Labaka, esaterako, triatloi lehiaketetan aritzen da, eta irabazteari berebiziko garrantzirik ematen ez dion arren, onartzen du bere buruarekin eta taldekideekin lehiatzen dela etengabe. Horrez gain, hango eta hemengo lasterketak "jende asko ezagutzeko" eta "ondo pasatzeko" bidea direla uste du bergararrak, baita Antxintxika taldean aritzea aberasgarria dela ere: "Bakarkako kirola da, baina baloreak taldekoak dira, eta oso giro polita izaten da".

Arregik, berriz, beste era batera bizi du kirola: "Bakarrik joaten naiz korrika egitera, eta niretzat deskonektatzeko aukera bikaina da", kontatu du.

Igartua eta Garai kirolari hasiberri zein beteranoen bidelagun izan dira eta beste ikuspegi batetik begiratzen diote kirolari. Edonola ere, laurak bat datoz korrika egiteak, eta kirolak berak, gozamenerako tartea eskaintzen diela esaterakoan.

EROSKI club

1 BAZKIDE-PREZIOA
Ehunka produktu, merkeago.
0,95 0,76 BAZKIDE-PREZIOA
Etiketaren eredu fiktizio bat.

2 BAZKIDE-ESKAINTZA
Eskaintza esklusiboak zuretako bakarrik, bazkide, eta zure txartelean dirua pilatuko duzu ondorengo erosketetan deskontatzeko.

3 TRAVEL CLUB-EN ABANTAILAK LOR ITZAZU
Puntuak batu, eta bidaia eta opari zoragarriengatik trukatu ahal izango dituzu.

4 DESKONTU PERTSONALIZATUAK
Zure erosketa-txartelekin aurrezten segituko duzu, aprobetxa itzazu.

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin
Musakola 11
ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA goiena

Soluzioa dela "lana eta aberastasuna banatzea" esan dute 1.000 lagunek

Manifestazioa egin dute Fagor etxetresnetako eta Edesako langile ohiek

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Manifestazioa egin zuten zapatu goizean Fagor Etxetresnak itxi eta urtebetera hainbatek bizi duten egoera salatzeko eta soluzioak eskatzeko. Deia egin zuten Fagor Etxetresnen eta Edesaren erortzeak jotako taldeek, besteak beste, Ordainduk eta Eskuratuk, Desgaitasunak plataformak eta Edesako langile ohiek. 1.000 lagunetik gora elkartu ziren San Andresko lantegi parean eta Biteri plazaraino joan oihu eta txistu hots artean.

Salatu zuten oraindik arazo "larriak" daudela: "1.500 langile lanpostu iraunkor barik, baita oso diru gutxirekin aurrez erretiratutakoak ere. Eta kapitala zor digutenei ez digute itzuli gura", zioen Ordainduko kide den Mikel Olabek. Lan barik dauden 1.500 langile horietatik Catak 500 edo 600 langile bakarrik har ditzakeela diote. Eta horren aurrean soluzio bakarra dagoela: "Kooperatibetan dagoen lana eta aberastasuna banatu, kapital soziala zor digutenei itzultzeko, esaterako". Horixe izan zen hain zuzen manifestazioaren leloa: *Bueltatu duintasuna, lana eta aberastasuna*.

Kapital sozial hori itzul diezaieten MCCrekin negoziatu gura izan dutela, baina "ez dela posible izan" esan zuen Olabek. Azaroan kooperatibaren kongresua dago eta zera eskatu gura dute ordurako: "Parte-hartze handia egotea; negoziazioa, guztiekin negozia dezatela; eta presidentea guztion artean aukeratu ahal izatea".

Manifestazioan erakutsitako pankartetako bat atzetik jendea datorrela. | M.A.

Mozioak udaletxeetan

Bukaeran iragarri zuten mobilizazioekin jarraituko dutela eta mozioak aurkeztuko dituztela udaletxeetan. Eskoriatzan izango da lehenengoa; biharko osoko bilkurako gai zerrendan dago.

Euskarak Bergaran duen egoeraz jardun dute 40 bat herritarrek

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Zapatuan egindako lehenengo saioarekin "oso pozik" geratu ziren Jarduneko kideak. 40 bat herritar elkartu ziren Jardun euskara elkartearen lehenengo gogoeta saioan. Bergarako euskararen diagnostikoaren inguruko gogoeta egin zuten taldetan banatuta.

Gaur eguneko beharra

Zuzendaritza taldeak bultzatu du gogoeta prozesua herritarren aldetik jasotako kezkek eraginda. "Orain dela 25 urte sortu zen Jardun, Bergarak zituen beharrak asetzeko. Baina gauzak aldatu egin dira eta gure kezka da: gaur eguneko beharrak betetzen ditu?", azaldu zuen Maialen Madariagak, Jarduneko zuzendaritzako kideak.

Etorkizunera begira egingo dituzten saioak izango direla gaineratu zuen Madariagak. "Euskarak dituen beharrak zeintzuk diren ikusi, eta nora heldu nahi dugun erabaki beharko dugu; eta, heldu nahi dugun horretara iristeko, zelan antolatu behar gara?".

Hurrengo saioa azaroaren 15ean egingo dute, 10:00etatik 13:00etara. Datozen 5-10 urteetarako helburuak eta funtzioak hausnartu, eztabaidatu eta adostuko dituzte. Eta horretarako herritarrak gonbidatu nahi dituzte saioan parte hartzera.

Irizar Jauregian egin zuten gogoeta prozesua. | ARANTZAZU EZKIBEL

Oñatiko txoko ederrenak bisitatu zituzten, zapatuan, Gipuzkoako 600 bat erretiratuk

Eguraldia eta antolakuntza nabarmendu zituzten parte-hartzaileek

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Polita da Oñati eta eguraldiak laguntzen duenean, zer esanik ez! Zapatuan, Gipuzkoako erretiratuen 24. Ibilaldia egin zuten bertan, eta amaieran gustura agertu ziren bai parte-hartzaileak bai antolatzaileak. "Oso ibilbide polita izan da, zoragarria!", zioen Idiazabaletik etorritako bikote batek.

Elastiko laranja soinean 600 bat lagun abiatu ziren Foruen plazatik, 11:30ak aldera, tartean erretiratuen ekintzarekin bat egin zuten Oñatiko alkate Mikel Biain eta Gipuzkoako Ahaldun Nagusi Martin Garitano. Ongi etorri hitzak luzatu ostean eman zioten hasiera ibilaldiari.

Egitekoa zen, lau laguneko taldetan banatuta, ibilbideko hiru kontrol guneetako zigiluak jasotzea, eta bueltan plazara itzultzea. "Antolatzaileak oso ondo aritu dira", zioen Pasai San Pedrotik etorritako talde batek. "Herriko erdigunea ikusi dugu, baita zenbait auzo ere. Ibilbidea ohikoa baino apur bat luzeagoa izan da, baina pena merezi izan du".

Sasoi onean daudela erakutsi zuten Gipuzkoako erretiratuek. Amaieran, denek eskertu zuten gerizpetan lasai esertzea, baina laster indarberritu ziren kiroldegiko bazkarirako, eta ondorengo dantzaldirako. Bi lagun artatu behar izan zituzten ibilbidean; bata zorabio txiki batengatik, eta bestea erorketa batengatik.

Oñatiko produktuak plazan

Bazkaldu aurretik, Oñatiko produktuak ezagutzeko aukera izan zuten kanpotik etorritakoek. Plazan ipinitako postuetan ikusgai eta salgai zeuden: gazta, txakolina, txokolatea, aterkiak, turismoaren gaineko informazioa...

Biain, Riviere eta Garitano erretiratuekin batera ibilbide hasieran. | IMANOL SORIANO

Erretiratuak Torreauzo inguruan. | L.Z.

Oñatiko produktuak erakusteko postuak. | LARRAITZ ZEBERIO

Norvegiako ordezkari politikoak Debagoienan izan dira bidegorria bisitatzen

Gipuzkoako bizikleta sarea ezagutzera etorri dira, hemengo ideia batzuk Norvegiara eramateko asmoz

J. DOMINGO / I. GOITIA | ARRASATE

Gipuzkoako bidegorri sareak Norvegiako Gobernuaren interesa piztu du, eta bertatik bertara ikusi nahi izan dute. Hala, Norvegiako Errepide Publikoetako Administrazioko ordezkari talde bat Gipuzkoan izan zen eguenean.

Norvegiatik etorritako ordezkari politikoak eta Aldundikoak Elorregin. | M. BIKUÑA

Ideiak hartzera

Azpiegituren gaineko informazioa jasotzera etorri ziren. "Bisita honen helburua da Gipuzkoako bidegorri sarean dauden tunel eta zubiak bisitatzea, batez ere. Izan ere, hau lurralde malkartsua da eta baita gurea ere", adierazi zuen Marit Espeland, Norvegiako Nazio Mailako Txirrindularitza koordinatzaileak. Gaineratu zuen Norvegian hemengo teknika berdinak erabili ditzaketela: "Norvegian oso kostalde luzea dugu eta bide nazional luze bat egin behar dugu. Tunel eta zubi asko eraiki beharko ditugu. Azpiegiturak nola egin pentsatu beharrean gaude, oinezkoak zein txirrindulariak kontuan izan behar ditugu. Ikusi ditugun tunel hauek lagungarri izan daitezke". Ideiak eta informazioa jasotzeko Debagoieneko bidegorrian zehar ibili ziren. Zehazki, Eskoriatzako Olazarreko tunela eta Elorregikoa ikusi zituzten, eta ondoren, Oñatiraino joan ziren bizikletaz.

Aurretik bilera egin zuten Donostian Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Donostiako Udaleko ordezkariekin. "Harrituta ere bagaude. Izan ere, gu askotan Europa iparraldera begira izaten gara bizikleta politikari dagokionez, gu baino askoz aurreratuago daude-eta. Baina beraiek interesa erakustea bada zerbait, arlo horretan Gipuzkoan ere zerbait ondo egiten gabiltzan adierazgarri" esan zuen Unai Erroitzenea, Aldundiko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko zuzendariak.

EH Bildu: "Instituzioetatik euskara bultzatzeko garaia da"

I.G. | ARRASATE

Hezkuntza eta komunikabideak hizkuntzaren berreskurapenerako "arlo estrategikoak" dira Debagoieneko EH Bildurentzat. Eta salatu dute Espainiak eta Frantziak euskara "zokoratzeko" erabili dituztela: "Euskara komunikabide eta eskoletan debekatuz eta gutxiagotasunezko egoeran mantenduz". Horrela, diote, badela garaia euskarari eginiko kaltea aitortzeko eta hizkuntza politika eraginkorragoak martxan jartzeko. "Egin ditugun aurrerapen gehienak euskaltzaleen bultzadaz egin ditugu. Orain da garaia instituzioetatik ere euskarari bultzada askoz handiagoa emateko". Horrela, Debagoieneko EH Bilduk erabateko konpromisoa adierazi du euskarazko hezkuntzarekin, euskarazko komunikabideekin eta euskalgintzarekin oro har. "Babestu eta txalotu nahi ditugu Debagoienan horretan lanean ari direnak".

Bestalde, Jaurlaritzari eskaerak egin dizkio: euskarazko herri zein nazio komunikabideak babestea –*Berria*ri egindako murrizketa bertan behera uztea– eta ikasle guztiak euskaldun eleanitzak izatea bermatuko duen eredua martxan jartzea.

Asier Elorza | Mundukideko boluntarioa

"1.500 familiatik gora dira gurekin parte hartzen dabiltzanak Montepuezen"

Mundukidek Mozambikeko barruti horretan duen proiektua koordinatzen izan da Elorza

I.G. | ARRASATE

Asier Elorza arrasatearra Mundukideko boluntarioa da. Azken urteotan Mozanbiken izan da. Orain, Brasilera joan da.

Asier Elorza. | I.G.

Mundukidek Montepuezen duen proiektua koordinatzen izan zara azken urteotan. Zein izan da zure zeregina, zehazki?

Mozambikeko barruti aberatsago edo garatuagoetatik nekazariak ekartzen genituen gure barrutira. Eurekin nekazaritza asistentziarako talde bat eratzen genuen, gure distrituko nekazariei aholkuak eta formakuntza eman ziezaioten. Guk dena koordinatzen genuen eta beharrezko laguntza eskaini. Hein batean, ortuetako produkzioa handitzeko edo produkzioan sartzeko aukera ematen diogu jendeari. Horrela, euren errenta handitzeko aukera dute.

Nola egiten du hobera euren bizitza estiloak?

Orain dela hiru urte Mozambikeko Gobernuak esan zuen nekazari familia bat urtean 150 eurorekin bizi zela. Gure proiektuan dauden familia nekazari onenek 2.000 euro irabazten dituzte urtean eta hasiberriek 400 edo 500 euro inguru. Horrek ahalbidetzen die etxeetan txapa jartzea edo motorra erostea. Gainontzekoek hori ikusten dutenean, interesa adierazten dute.

Hasieran zaila izaten al da jendea proiektuetara erakartzea?

Mundukidek paternalismoa ez du bere baloreen artean. Guk eskaintzen duguna zerbaiten truke eskaintzen dugu, eta gehienetan ordaindu egin behar izaten dute. Askotan ez daude horretara ohituta. Paternalismo baten baitan izan dira, Gobernutik zein GKEetatik eskaini izan zaie hori. Beraz, hasieran kosta egiten da, baina poliki-poliki lortzen da. Beraien bizitza kalitatea hobetzen dela ikusten dutenean... Orain, dinamika ona dugu. 1.500 familiatik gora dira gurekin parte hartzen dutenak. 200 hektarea ortu izango dira.

Noiz arte egon beharko duzue Mozambiken boluntarioek?

Ez dago datarik. Mundukidek ez ditu bi edo hiru urteko proiektuak garatzen. Marrupakoan 15 urte daramatzagu eta badago zeregina. Gauzak ikasteko denbora asko behar da. Nik neuk beste sei urte egingo nituzke, posible bada.

Zerk motibatzen zaitu boluntario izatera?

Beste kultura batzuk ezagutzeko edo beste jende batzuekin erlazionatzeko helburuak. Jende horri laguntza eskaini badiezaiokezu askoz hobe. Esango nuke altruismo berekoia dela. Bestalde, asko ikasten da beste gizarte eredu batzuetatik.

Orain Brasilera zoaz...

Bai, Sergipeko proiektura. Han *Movimiento Sin Tierra*-rekin jarduten dugu elkarlanean. Hiru urte daramatzagu Brasilgo iparraldean (Sergipen) eta proiektuak ez du hartu nahi genuen abiadura. Hori indartzen saiatuko gara.

"Ortuko produkzioa handituta, errenta altuagoa lortzeko aukera dute"

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

160 ikasle Leinneko graduan

Mondragon Unibertsitateko Oñatiko fakultatean ematen den Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduko lehen mailako ikasle guztiak elkartu ziren eguenean elkar ezagutzeko. Taldetan elkartu eta lan egiteko ere aprobetxatu zuten jardunaldia. Talde argazkia ere atera zuten. Besteak beste, ikasleak etorri ziren Madril, Bartzelona, Valentzia, Amsterdam eta Bilbotik. Denera 160 neska-mutil.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

Debagoieneko Mankomunitateak BI TEKNIKARI behar ditu 7 hilabeterako lanaldi erdiz, 1 ESPERIENTZIADUNA, eta BESTEA ESPERIENTZIARIK GABEKOA.

Beharrezko titulazioa:
- Goi mailako unibertsitate-titulazioa (lizentziatua, graduatua edo baliokidea) ingeniaritzan edo arkitekturan.

Eskaerak: Azaroaren 3aren 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean. Bertan eta Mankomunitatearen web orrian dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.

Nafarroa Etorbidea, 17 - ARRASATE
943 79 33 99
www.debagoiena.com

Egubakoitzean egin zuten batzar orokorreko une bat. | © JUANTXO EGAÑA

Kutxa banku fundazio bihurtzeko erabakia hartu du batzar orokorrak

- 71 batzarkidetatik 39k babestu zuten aldaketa: EAJk, PSE-EEk, PPk, CCOOek eta Pixkanakak
- EH Bilduko ordezkariek batzarretik alde egin zuten

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean hartu zuten erabakia. Gipuzkoako aurrezki kutxa zenak ezohiko batzar orokorra egin zuen orduan, eta organoa desegiteko eta erakundea banku fundazio bihurtzeko erabakia hartu zuen.

Egubakoitzean hartutako erabakia ez da guztien gustukoa izan. Hasieratik polemika eragin du gaiak alderdi politiko eta sindikatuen artean. Gipuzkoako Diputazioak gai honen harira *Badugu aukera, badugu beharra* proposamena aurkeztu zuen; baina, Kutxako zuzendaritzak ez zuen onartu batzar orokorrean Diputazioaren proposamen hori eztabaidatzea. Hala, EH Bilduko ordezkariek ez zuten batzarrean parte hartu nahi izan. Eta erabakia batzar orokorraren gehiengoarekin hartu zuten EAJ, PSE-EE eta PP alderdiek, CCOO sindikatuak eta Pixkanakak. 71 batzarkidetatik 39k babestu zuten aldaketa; EH Bilduko ordezkariek, ostera, aretotik alde egin zuten.

Andia kalean protestak

Kutxako pribatizazioaren aurrako plataformak deituta hainbat lagun batu ziren Kutxaren egoitzaren kanpoaldean protesta egiteko. Erabakiaren aurkako leloak eta pankartak erakutsi zituzten. Gainera, batzar orokorra hastear zela txistu eta zarata artean hartu zituzten egoitzara iritsi ziren batzarkideak.

15 laguneko patronatua

Aurrerantzean, 15 lagunek osatutako patronatuak gidatuko du Kutxa. 15 lagun horietatik dagoeneko bederatzi izendatu dituzte: EAJk hiru, PSE-EEk hiru, PPk bat, Afagiko ordezkaria eta langileen ordezkaria. Bilduk ez ditu berari dagozkion lau ordezkariak aukeratu; eta, Donostiako Udalak eta Foru Aldundiak –erakunde sortzaileak– ere ez dituzte euren ordezkariak aukeratu. Patronatuko kideen bi heren beharko dira Kutxabankeko akzioak saltzeko erabakia hartzeko.

INO GALPARSORO
EH BILDU

"Ez dugu iruzur honetan parte hartu nahi izan eta alde egin dugu "

"Kutxako Batzar Nagusian EAJk, PSE, PP, CCOO eta Pixkanakaren laguntzarekin, Kutxa kapital pribatu/espekulatzaileei saldu ahal izateko behar zuen urratsa burutu du: hau da, kontrol sozial eta publikoa izan duen erakundea Banku fundazio bihurtu, eta Batzar Nagusiaren desagerpenarekin, Kutxa 15 patronoen esku utzi dute (momentuz bederatzi daude), egin eta desegiteko botere guztiarekin. Gainera, Kutxaren ordezkaritza nagusia zuen EH Bilduk eskatutako Foru Aldundiaren proposamena eztabaidatzea eragotzi dute. Ez dugu iruzur horretan parte hartu eta alde egin dugu batzarretik baina lanean jarraituko dugu akzio bakar bat bera ere ez dadin espekulatzaileen eskura pasa. Oraindik posible da eta ez dugu amore emango.

AINTZANE OIARBIDE
EAJ

"Gaurko erabakiaren helburua legearekiko egokitzapena egitea da"

"Europako legeek hala aginduta derrigortuta dago Kutxabank Banku fundazio bihurtzera. Gaurko erabakiaren helburua legearekiko egokitzapena egitea da, Kutxaren izaera ahalik eta gutxien aldatuz. Banku fundazioak bere gizarte izaera eta irabazi gabekoa izaten jarraituko du. Egokitze hau lantalde zabal batean erabaki da: langileak, sindikatuak eta alderdi politikoak izan dira lanean eta emaitza hauxe da: Kutxaren historian ez da izan erakunde publikoen honenbesteko kontrolik. Orain arte, %40a zuten, hemendik aurrera %93a. Erabakiak hartzeko 15 patronoetatik 10en babesa izan beharko du. Batzar Nagusietan alderdi bakoitzak duen ordezkaritzaren araberako lekua izango du Kutxan. Non dago arazoa? Ezker abertzaleak ez du lan taldean parte hartu nahi izan.

Ekintzaileei zuzendutako tailerra egingo dute

Ekintzaile trebea, negozioaren bermea da tailerraren izena; azaroan egingo dute, doan

A.E. | ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak eta Foru Aldundiak ekintzaileendako prestakuntza tailerra antolatu dute. Debagoienean enpresa ekimen bat martxan jarri nahi dutenei eta autonomo eta mikroenpresa sortu berriei zuzendutako tailerra izango da.

Bost arlo landuko dituzte, bost egunetan, eta tailer batean edo gehiagotan parte hartzeko aukera egongo da. Plaza mugatuak dira eta horregatik izena eman beharko da, 943 79 30 90 telefono zenbakian edo *rgarcia@debagoiena.net* helbidean. Tailerra azaroan izango da, doan.

Euskaraz eta gazteleraz

Tailerrak Debagoieneko Mankomunitatean izango dira, Arrasaten.

Lehenengo tailerra azaroaren 10ean izango da, 9:30etik 14:30era. Betebehar fiskalak landuko dituzte; besteak beste PFEZ, Sozietate zerga eta BEZa. Azaroaren 13an, 9:30etik 13:30era, komunikazioaz jardungo dute. Azaroaren 14an, 9:30etik 13:30era, ekimena martxan jartzerakoan hartu beharreko aspektu legalak zeintzuk diren azalduko dituzte. Hiru saio horiek gazteleraz izango dira. Azaroaren 17an, 9:30etik 13:30era, sare sozialak zer diren eta zela erabili erakutsiko dute. Gainera, mundu horretan sartzeak dakarren abantailak eta desabantailak azalduko dituzte. Azken saioa azaroaren 21ean izango da, 9:30etik 13:30era. Negozio elektronikoa: *on line* denden ingurukoa. Azken bi saioak euskaraz izango dira.

ARANTZAZU EZKIBEL

LABeko delegatuen batzarra

Eskualde mailako delegatuen batzarrean, hauteskunde sindikalei begira dituzten erronkak aurkeztu zituen LABek. Horiek dira,besteak beste: lantoki berrietara hedatzea, emakumeen parte-hartzea areagotzea, belaunaldi berriek ere ordezkaritza lanak egitea, eta euskal sindikalgintzan sindikatu independentista bat bultzatzea.

Aldundiak 6 milioi euro banatuko die enpresa txiki eta ertainei

Foru Aldundiak enpresei laguntzeko abian jarri duen txoke plana aurkeztu zuen joan zen martitzenean Ficoban. Ehun bat enpresetako ordezkariak batu ziren ekitaldian. Aldundiak lurraldeko enpresen alde egindako apustua nabarmendu zuen Diputatu nagusiak, bereziki enpresa txiki eta ertainen alde egindako lana azpimarratuz: "Horiek baitira erakundeen babes handiena behar dutenak", azaldu zuen. Txoke planak 6 milioi euro ditu: "Eta helburu dute haien kudeaketa hobetzea eta norabidea zuzentzen saiatzea", esan zuen Garitanok.

Argia gutxiago ordaintzeko kanpaina OCUren eskutik

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Antolakuntzak (OCU) energia gutxiago ordaintzeko kanpaina jarri du martxan. Bigarren aldia da horrelako talde erosketa bat egingo dutena. Interesatuek izena eman beharko dute *www.quieropagarmenosluz.org* atarian, urriaren 30a baino lehen. Doakoa eta konpromiso barikoa da. Energia tarifen gainean dagoen informazio ezari aurre egin gura diote modu horretan. Kanpainan izena eman dutenei urriaren 31n egingo den enkantearen gaineko informazioa bidaliko zaie. Emaitzak eskuan, norberak erabakiko du tarifa aldatu edo ez.

Luis Javier Telleria | EAJ-ko legebiltzarkidea

"Gizarteak praktika normalizatu legez ikusten du kalamua erretzea"

- Erkidegoko kalamu klubak erregularizatzeko urratsak egin ditu Eusko Legebiltzarrak
- EAJ-k, EH Bilduk eta PSE-EEk uste dute legeztatzera bidean joan behar dela

JULEN IRIONDO | ARRASATE

Luis Javier Telleria (Antzuola, 1957) izan da jeltzaleen ordezkaria Legebiltzarreko ponentzian. Ehun kalamu klub inguru daude, gaur egun, EAEn.

Ze urrats falta dira kalamu kluben erregularizaziorako?

Aurreko legegintzaldian, Euskadiko kalamu kluben euren ekimenez, ponentzia bat sortu zen Legebiltzarrean. Amaitu zen legegintzaldia eta amaitu zen ponentzia. Baina 2012an berria hasi genuenean lehenengo egin genuena izan zen ponentzia hura berriz sortu eta hari berrekin. Hasi ginen askotariko jende aditua deitzen: fiskalak, epaileak, psikologoak, psikiatrak, abokatuak... Informazioa eman ziguten, eta jasotakoa aztertuta transakzio bat egin genuen, jasotzen zuena alderdi sozialistaren iritzia, EH Bildurena eta gurea, gutxi gorabehera bat gatozenona; transakzio hori aurkeztu genuen, eta duela bi aste, ponentzian, onartu egin zen. Beraz, ponentzia bukatu da, eta baditu bere ondorioak eta gomendioak. Bertan esaten dena da euskal gizartean kalamua normalizatuta dagoela, nolabait. Landaketa gutxi batzuetatik edo jende bat erretzen ikustetik nahikoa gauza normalizatua izatera pasa da. Beraz, iritsi da momentua, eta gainera uste dugu gizarteak barneratuta duela praktika normalizatu bat bezala, tabakoa erretzea edo alkohola edatea bezala, eta iritsi da erregularizatzeko momentua, ze bere egoera alegalak gatazka inportante eta serioak eragiten ditu; adibidez, fiskal batek agintzea landaketa bat suntsitzeko eta hortik bi urtera epaileak erabakitzea espedientea artxibatzea. Hori ari da gertatzen. Eta ulertu dugu normalena dela neurtutako urratsak ematen joatea legeztatzera bidean. Egoki ikusi dugu kalamu kluben azpiegitura aprobetxatzea, zeintzuk diren autokontsumo konpartiturako, eta Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu hurrengo Adikzioen Legean –esan digute abenduan bidaliko digutela ziur aski– sar dezan zati bat, marko juridikoaren arabera Euskadik dituen aukeren neurrian, kalamu klub horiek erregularizatzen hasteko. Lege proiektua bidaliko du Jaurlaritzak Legebiltzarrera, eta han aztertu eta ikusiko dugu zerbait aldatu beharra dagoen, ze legea Legebiltzarrak egiten du. Eta aldi berean eskatzen diogu Espainiako Kongresuari, aukera badu, aztertu dezala berak ere, eta egin dezala aurrera araudia aldatzeko, gaur egun alegala den horren gaineko –ez baita legez kanpokoa justuki, ze autokontsumoa posible da, baina ezkutuan egin behar da; landatzea ez dakigu legezkoa den, zenbat landa daitekeen...– azterketa egin dezan. Baina, aldi berean, inork ez dezan pentsatu *porreta* batzuk garenik, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu egin ditzala kanpainak abisatzeko kalamua erretzea ez dela ona. Gauza bat da eskatzea legezkoa izan dadila, eta beste bat uste izatea bikaina iruditzen zaigula. Baina uste dugu askatasun kontua dela. Herritarrok izan behar dugu askatasuna bertuterako eta biziorako; baina jakin behar da kalamua erretzeak, tabakoa erretzeak edo gin-tonic bat edateak, ziur asko, kalte egiten diola bere osasunari. Beraz, horren berri eman bai, baina horrek ez du esan nahi legez kanpoko izan behar duenik.

Luis Javier Telleria, Eusko Legebiltzarrean. | EUSKO LEGEBILTZARRA

"Izan behar dugu askatasuna bertuterako eta biziorako"

"Legeztatzeak ez du esan nahi mundu dena erretzen hasi behar denik"

PP ez da zuen iritzikoa...

Hara, izan ere handia da. Droga eta prostituzioa kontuan hartzen dituzte Barne Produktu Gordina kalkulatzeko, baina gero ilegalak dira! Aizu, bai edo ez. Ikaragarria da. Sar dezatela arma trafiko ilegala ere! PPko hauek izuaren menpeko dira. Baina gu ari gara ekartzen hona mundu mailako iritzi aldaketa bat. AEBak izan dira beti munduko drogaren polizia; ba Colorado eta Washington estatuetan bidea ireki diote kalamuari. Aztertu beharreko bideak ireki dira, gauzak aldatzen ari dira, drogarekiko gizartearen ikuspegia aldatu egin da. Eginbeharren eta eskubideen alorraz hitz egiten ari gara. Eta, gainera, legezko ez izatearekin ez da ezer lortu; kontsumoa ez da gutxitu, eta lortu den bakarra izan da mafiak sortzea drogaren inguruan. Aurrekoan holandar batzuekin egon nintzen Bartzelonan, eta esan zidaten, han, 1972an kalamua legeztatu zutenean kontsumoa ez zela batere hazi. Legeztatzeak ez du esan nahi mundu dena erretzen hasi behar denik, ez da beldurrik izan behar. Ausart xamarrak izateko garaia da, gauzei aurre egin eta ez aurpegia estali. Hipokresia handia dago honen inguruan.

Honek segurtasuna emango die kalamu klubei, ezta?

Bai, asmoa da segurtasun handiagoa izan dezatela. Oraingoz badakite babes politikoa emango diegula: "Legebiltzarraren gehiengoa zuekin gaude". Orain, fiskalen bati otutzen bazaio, barrabaskeriaren bat egin ahal izango du. Baina iritzi publikoaren ikuspegitik zailago izango du, eta baita administrazioaren aldetik kontrol handiagoa egongo delako ere. Elkarteen erregistroan dauden unetik, segimendu bat egiten zaie. Administrazioa bera da bermea egiten ari direna ondo egiten ari direla. Lehenago edo beranduago sortuko da gatazka juridiko bat, baina kalamu klubek badakite orain Eusko Legebiltzarreko gehiengo handiaren babes politikoa dutela, eta hori bada urrats bat.

Zuenaren kontrako norabidean, iragan asteko kontua da Valentzian, adibidez, kalamu klubei biderik ez ematea eskatu dutela zenbait psikologo eta terapeutak.

Ulertzen dut. Eta berdin asko erre duen eta horrek buruan kaltetu duen mutil edo neska baten gurasoen jarrera, ze halakoak badaude, eta nahikotxo. Ulertzen dut eurek esatea: "Patologiak eta jendearen bazterketa eragiten dituen zerbait bultzatzen ari zarete?". Ulertzen ditut. Baina norbanakoen askatasunaren ikuspegitik lan egin behar dugu. Eta, esandakoa, legeztatzeak ez du ekarriko kontsumoa gehitzea. Ponentziara ere aldeko pertsonak eta kontrakoak etorri dira, baina talde sozialik ez da egon egiten ari garenaren kontra agertu denik.

ZABALIK

ZULAI PLAZAOLA
goiena.net/komunitatea/

Jainkoa beltza balitz

Aspalditik ondorengo hau galdetzen diot neure buruari: zergatik kostatzen ote zaio horrenbeste jendeari *beltz* hitza erabiltzea arraza beltzeko pertsona bati buruz aritzen denean? Alexis Valdesek bakarrizketa baten dioenez, *beltz* hitzak konnotazio txarrak besterik ez du: *egun beltza, izurrite beltza, merkatu beltza*... eta batzuek, beltza den norbaitez hitz egiterakoan, *morenito, koloredun, belztxo*... hitzak erabiltzen dituzte. Gainera, tonu susmagarrian egiten dute, *beltz* hitza erabiltzea negatiboa eta erdeinuzkoa dela pentsatzen dutela aditzera emanez. Badirudi lotsa sentitzen dutela hitz horiek erabiltzeko orduan...

Lotsa nik sentitzen dut pentsatzerakoan pertsona hauek, esate baterako, irakasleak, medikuak edo psikologoak... izan daitezkeela edota integrazio sozialaren alde egiten duten erakundeetan parte har dezaketela. Noren esku gaude?

"Badirudi lotsa sentitzen dutela hitz horiek erabiltzeko orduan"

Azken hau aipatu ondoren hurrengoa planteatzeko aprobetxatzen dut: geroz eta elkarte gehiago eratzen dira, besteak beste, etorkinen integrazioaren alde egiten dutenak. Hain zaila da gure ingurunean integratzea elkarte hauen beharra izateko?

Gauza ikaragarriak entzun behar izan ditut. Behin, etorkinekin lanean aritzen den hezitzaile batek, haur kanpotar batekin hain ondo konpontzen nintzela ikustean, ondorengoa esan zidan: "Antzeko kolorea daukazuenez, zurekin identifikatuta sentitzen da". Nola liteke edozeinek hori esateko ausardia izatea? Are gehiago, nola liteke hezitzailea den pertsona batek hori esatea? Haur hori eta ni ondo konpontzen baginen, ez zen azal kolorearengatik, enpatia kontuagatik baizik.

Gaur egungo gazte batzuk berdintasunaren alde borrokatzen diren arren, badaude batzuk, tamalez, horren aldeko apustu egiten dutenak baina praktikan beste jokabide batzuk izaten dituztenak. Bakoitzak hausnarketa egin dezala.

Jainkoa beltza balitz, gauzak ezberdinak izango lirateke...

USTEAK USTE

JULEN IRIONDO | jiriondo@goiena.com

'Lapurretak' eta lapurretak

Sekula ez dut gustuko izan banketxeetako arduradunak harro esaten ikustea euren entitateak zenbat diru irabazi duen, urte batean bai, eta hurrengoan ere bai. Halako notizia bat entzun izan dudan bakoitzean beti pentsatu izan dut: "Nola liteke herritarrei *lapurtutako* diruarekin izandako irabazien berri, horrela, lotsarik gabe aurpegira botatzea?". Orain ari gara jakiten legezko *lapurreta* horiekin batera norbere aberasterako azpijokoetan, lasai, ibili direla hainbat, politikariak tartean. Dutena besteko boterea duten alderdiak ez balira, aspaldi leudeke neurri gogorragoak haien kontra. Epaitegiek egiten ez badute, herriak egingo duen itxaropena badut.

KALE INKESTA

Zer uste duzu ordu aldaketaren inguruan?

GORKA ZABALETA
ZUMAIA

"Egia esanda, ez dut ulertzen oso ondo zergatik egiten den ordu aldaketa. Ez diot zentzu handirik hartzen".

ELIZABETH TORRES
ORIO

"Beti egon da ordu aldaketa; batzuetan, ordu bat gutxiago; bestetan, bat gehiago. Nik ez dut aldaketarik sumatzen".

VICTORIANO TENA
ARRASATE

"Betidanik iruditu zait gaizki ordu aldaketa. Gainera, uste dut oso kaltegarria dela gure gorputzarendako".

MILA AGIRRE
BERGARA

"Egokitzea asko kostatzen zait. Goizean aurreratzen dena gauean galtzen da, eta alderantziz".

HANDIK ETA HEMENDIK

Karbono-nitrogeno ratioa

Jon Ander Galarraga
argia.eus/blogak/jon-ander-galarraga/

Gaurkoan kimika apur bat ekarriko dugu erabat konpostajeaz ari den blog honetan. Aditu eta sasiaditu askok erabiltzen duten esamoldea da "karbono-nitrogeno" ratioa eta aste honetan, zer den eta zertarako balio duen aztertuko dugu. Modu erraz batean, beti bezala.

Karbonoa eta nitrogenoa gure konpostagailuko elementu kimikorik garrantzitsuenetakoak dira, karbonoa energia ematen duten azukreen zati da eta nitrogenoa beharrezkoa da bizidunen adreilu diren proteinak eraikitzeko. Ez da harritzekoa, beraz, karbono eta nitrogenoarengatik borroka biziak egotea konpostagailuan.

Borroka hau mikroorganismoena izaten da, maila handi batean, hauek baitira konpostagailu barruan erreakzio kimikoen bidez karbonoa zein nitrogenoa erabili eta zirkularazten dutenak.

Behin karbonoa eta nitrogenoa zertarako diren jakinda, zer da ratioa?

Azken finean ratioa zatiketa bat da, proportzio bat. Konpostaje prozesu hasieran karbono-nitrogeno ratioa 30-1 izatea gomendatzen da, hau da, 30 pisu unitate karbonoko, nitrogeno 1 egotea. Proportzio honen arrazoia zeluletan dago, mikroorganismo batek edo ornogabe baten zelulen karbono-nitrogeno ratioa 6-1 izan ohi delako, baina beti behar da karbono proportzio gehiago; izan ere, karbonoa da energia ematen duen elementu zati handi bat eta gasolinarik ezean, motorrak ezin mugitu!

Deskonposizio prozesua aurrera joan ahala, ratio hau aldatu egiten da, prozesuaren bukaeran 15-1 ratiora iristen delarik. Izan ere, karbono asko CO_2 moduan atmosferara askatzen da eta nitrogenoa, berriz, mikroorganismoen barruan geratzen da adreilu funtzioak egiten.

Ratio honek, jakintsu kimikoen gaia dirudien arren, konpostagailuko usainekin zerikusia badauka. Karbono gehiegizko konpostagailu batean, ratio hau 30-1 izan ordez 40-1 denean adibidez. Ez dago mikroorganismo gehiago eraikitzeko nitrogenorik eta prozesua, karbono ugari egon arren, geldoago doa. Nitrogeno proportzio gehiegi badago, ordea, eta ratioa txikiagoa bada: adibidez 20-1. Ez dago gehiegizko nitrogeno hau bilduko duen oxigeno nahiko eta nitrogenoak beste elementuekin nahastuko da amoniakoa NH_3 bezalako konposatuak emateko. Aireztapena garrantzitsua da puntu horretan, eman oxigenoa nitrogenoari!

Beraz, bizitzan bezala, guztia oreka bat da. Guk ezin dugu karbono-nitrogenoa gure konpostagailuan neurtu, baina badugu jakiterik zein biohondakinek duten karbono kopuru handiak eta zeinek nitrogenoenak.

Karbonoaren biohondakinak biohondakin *lehorrak* deritzenak dira, normalean, hildako egur eta begetalak: zotzak, papera, kartoia, zerrautsa.

Nitrogenoaren biohondakinak, berriz, material *freskoak* deritzogunak dira: fruta, barazkiak, belar berdea...

Ikusiko duzuenez, egituratzailearen eta hondakin hezeen jokoan sartu garela nahi gabe. Karbono kopuru altuko elementuek egituratzaile funtzioak betetzen dituzte, nitrogeno altukoak material hezeak dira.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Mirari Altube
Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-88/2004
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

Goiena Klubako urriko zozketak!

Etxeko txikiendako urrian irabaz ditzakezuen sari aproposak. Hartu parte!

- **Irrien lagunen 20 maletin.**
- **Irrien lagunen 4 motxila eta kamiseta.**
- **Irrien lagunen aldizkariko urriko aleak.**

Parte hartzeko sariaren izena: Irrien Lagunak

iRRiEN LAGUNAK KLUBA

Sarrerak
Arrikrutz kobak bisitatzeko 6 sarrera zozketatuko ditugu.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

ARRIKRUTZ oñatiko kobak

Otarra
Bidezko merkataritzako produktuez osaturiko otarra.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarra

www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:
SMS: KLUBA [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla.
Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

HERRIAK

ARETXABALETA

Txarapeako lanak, ingurua txukuntzeko behar beharrezkoak

- Hasi dira etxeen osteko ezpondak egonkortzen eta ibaiaren alboko lurrak egokitzen
- Bost hilabete iraungo dute lanek, ondo bidean udaberrirako bukatuta izango dira

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Hasi dituzte lanak Txarapea ibilbidean. Urriaren 15aren bueltan etorri ziren Abadiñoko Lasuen SA enpresako langileak, eta dagoeneko hainbat gunetan dabiltza lanean. 369.094 euroko aurrekontua dute eta bost hilabetetan bukatuko dituzte; ondo bidean udaberriarekin batera.

Urteak zain egon ostean Txarapea ibilbideak behin betiko itxura izango du laster. Bruesa SA eraikuntza enpresak utzi zituen bukatu barik lanok etxebizitzak egindakoan (oraindik bi bloke bukatzeko daude); izan ere, hartzekodunen borondatezko konkurtsora jo zuen orduan. Udalean 400.000 euroko abala zuen jarrita hark, eta hori hartu dute orain lanok bukatzeko. Lehenengo urbanizatze proiektu gehigarria idatzi dute, eta gero Lasuen SA enpresa hartu lanok egiteko.

Eskailerak kendu

Kamioiak hara eta hona lurrez beteta, hondeatze-makina zuloak egiten eta langileak han eta hemen dabiltza azken hamar egunotan. Eta ikusmina eragin du horrek herritarrengan.

Batetik, hasi dira etxeen atzeko partean basoari kendutako zatiaren ezpondak egonkortzen: "Mugitu egin dira ezponda edo horma horiek lau puntutan eta egonkortu egin behar dira derrigorrez", azaldu du Udaleko Hirigintza teknikaria den Jose Mari Segoviak. Bestetik, Deba ibaiaren ertzeko pasealekua egokitzen dabiltza. Hondeatze-makina lurrak mugitzen hasita dago, eta poliki-poliki joango da itxura hartzen pasealekuaren alboko gunea: "Bukatutakoan Iturrizar plazatik kiroldegiraino joan ahal izango da errekaren ertzean egokitutako bidetik", jakinarazi du Segoviak.

Bestalde, Errekabarren kaletik eta Andramari auzunetik Txarapeara zuzenean igotzeko hainbat bizilagunek egindako eskaileretarako pasua itxita dago orain. Pasu hori itxi dute bertan dabiltzalako lanean, baina gero ere kendu egingo dituztela aurreratu du Hirigintza teknikariak: "Eskailera horiek ez dute inolako araurik betetzen eta edozein istripu gertatuz gero Udalaren erantzukizuna izan zitekeen. Lursail hori guztia egokituko dute lehenengo eta gero pentsatuko dugu zelan egin motzagoa Txarapearako igoera. Hori bai, ez da jarriko eskailerarik, %6ko desnibela baino gutxiago duten arrapalak baizik".

Lausittatik Markoleraino

Kalea bera txukuntzen ere hasi dira. Orain arte errepidearen bukaera itxita egon da bukatu barik dauden etxebizitza blokeen aurrean. Edukiontzi handi bat egon da han, eta obretako hainbat material inguruan, besteak beste harlauzak. Horiek guztiak kenduta, laster, Lausitta kalea Markolerekin lotuta egongo da, eta bai ibilgailuak, bai oinezkoak agertuko dira kiroldegiaren atzeko partean. Bukatutakoan, seinale horizontalak jarriko dituzte zirkulazioari laguntzeko.

Bestalde, argindarraren tentsio altuko linea lurperatu egingo dute. Azpiegitura eginda dagoela dio Segoviak, eta orain begi-bistan dauden kable guztiak ezkutatu egingo dituzte.

Horrez gain, lurrei eusteko egindako hormetan landareak landatuko dituzte; izan ere, aurretik ez da ezer hazi horma horietan lanak ez zirelako ondo bukatu. Eraiki barik utzitako lurzoruak txukundu egingo dituzte, eta hor ere belarra erein eta landareak landatu. Eta kiroldegiaren eta Belorrietako zubiaren artean dagoen partzelan ere zuhaitzak eta zuhaixkak landatuko dituzte.

Bukatzeko beste hainbat lan txiki ere egingo dituzte inguru guztia behar bezala egokituta eta txukunduta uzteko.

Bukatu bako blokeetan hesia

Bukatu barik dauden etxe blokeetan, ostera, Udalak ez du zeresanik, jabe pribatua dutelako. Hala ere, arazorik egon ez dadin aurrealdean hesia jarriko diete "ahal dela behintzat, inor sar ez dadin".

DATUA

369.094

EURO

Aurrekontua da 369.094 eurokoa eta Bruesaren abalarekin ordainduko dute.

Txarapea ibilbidetik Markole auzora jo ahal izango da laster. | M.A.

Deba ibaiaren albotik joango den pasealekua egokitzen. | M.A.

Argindarraren tentsio altuko linea lurperatu egingo dute. | M.A.

M.A.

Gernika plaza

Gernika plazako jolas parkea ere berritu egingo du Udalak. Hainbat enpresari eskatu dizkio proiektuak eta dagoeneko jaso ditu. Parte-hartze prozesua jarriko du abian orain, egokiena hautatzeko; batetik, neska-mutikoekin eta bestetik, herritarrekin. Proiektuak ikusgai egongo dira Arkupen gaurtik, eta horiek azaltzeko bilera egingo dute azaroaren 5ean (18:30).

Funanbulista txapela jaurtitzen. | I.S.

Plazan elkartutako ikusleak gora begira eta argazkiak ateratzen. | I.S.

Euskalgintzakoek abian jarri duten kanpainaren leloa. | I.S.

Denis Josselin kablearen gainean udaletxetik elizara bidean. | IMANOL SORIANO

ARRASATE

Argi dago badela hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik

Denis Josselin funanbulistak jarri du abian Arrasateko euskalgintzak antolatutako kanpaina

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Denis Josselin funanbulistak zur eta lur utzi zituen egubakoitzean Arrasateko plazan elkartutako ikusleak. Lurretik hamabost metrora jarritako sokaren gainean ibili zen; orain aurrera, gero atzera, orain hankaz gora, gero begiak itxita... Ikuskizunak, baina, bazuen mamia. Izan ere, Arrasateko euskalgintzako kideek abian jarritako kanpaina aurkezteko izan zen: *Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik*.

Arrasatearren atentzioa eskuratu gura zuten euskalgintzako kideek, eta lortu zuten, funanbulistak 20 minututan egindako ekitaldiarekin. Kable biluziaren gainean, lurretik hamabost metrotara, ez sare eta ez babesgarri, zazpi metroko barra eskuartean zuela ibili zen atzera eta aurrera 57 urte dituen Josselin frantsesa. Ibili bakarrik ez, eseri egin zen; hankaz gora jarri; buelta eman; atzerantz ibili; eskuei helduta zintzilikatu; buruz behera jarri hankak sostengu bakarrak zirela; eta begiak itxita ibili azken metroetan. "Hori guztia egitea posible bada ez al dira izango gauza herritarrak hizkuntza ohiturak aldatzeko?", pentsatu zuten euskalgintzako kideek. Eta udaletxeko balkoian jarri zuten pankartarekin –*Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik; Arrasaten, euskaraz*– hausnarketarako bidea zabaldu zieten.

ITXARO ARTOLA | AEDKO ORDEZKARIA

"Hizkuntza-ohiturak aldatzeko borondatea da kontua, nahi izatea"

M.A.

Arrasateko euskalgintzak jarri du abian kanpaina, eta horren barruan dagoen taldeetako bat da AED.

Funanbulista akrobaziak egiten Arrasateko plazan, zer eta kanpaina bat abian jartzeko.

Bai, ekintza ikusgarri eta erakargarriarekin jarri gura izan dugu abian euskalgintzakook gure kanpaina, ezohiko moduan.

Kanpainaren leloa da: *Badago hizkuntza-ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik*. Ez dago zalantzarik, ezta?

Bai, uste dugu sinbolismo edo konparazio polita dela, funanbulistak egin duen lan gaitz hori gure hizkuntza-ohiturak aldatzearekin. Ez da hain zaila, askotan aitzakia da, izan ere erdararako joera dugunean esan izan dugu: beti egin dugu gazteleraz, bat-batean aldatzea zaila da... Aitzakia hutsa da gure ustean, borondatea da kontua, nahi izatea eta ahalegintzea. Eta gure mezuak hortik jo gura du.

Leloaren aurkezpena izan da kanpainaren abiapuntua, baina orain zer etorriko da?

Leloa bota eta airean geratu beharrean hausnartzeko aitzakia jarri gura izan diegu herritarrei. Ahalegin berezia egingo dugu hori era ludikoan eta ezberdinean egiteko. Ez dut gehiegi aurreratu gura, baina bai esan, Goienaren laguntza izango dugula eta telebistaren eta sare sozialen bitartez bistaraziko dela. Froga batzuk egongo dira, lehiaketa batzuk... Guk uste jendearen gustuko izango direla.

Arrasateko euskalgintzaren barruan zeintzuk zaudete?

Dagoeneko hainbat urte daramatzagu lanean, eta hamaika erakundek osatzen dugu mahai hori; bertan daude ikastetxe guztiak, unibertsitatea barne, Euskal Herrian Euskaraz, AEK, Emun, Goiena eta Udala, besteak beste. Gure dinamika lau lantaldetan antolatuta daukagu lau esparrutan eragiteko, eta dira: lan mundua, aisialdia, transmisioa eta laugarrena, ekintzak, orokorrean herritar guztiengan eragiteko sortutakoa.

"Era ludikoan egingo dugu kanpaina telebista eta sare sozialak erabilita"

Eta esparru guztietara iritsi gura duzue kanpaina horrekin?

Modu orokorrean pentsatu dugu kanpaina hau, eta gero antzekoa egingo dugu sektoreka eragiteko. Iaz transmisioaren gaineko kanpaina egin genuen, guraso euskaldunei zuzendutakoa. Orain abian jarritakoa lan egiteko beste modu bat eta beste kanpaina bat dira, baina urteetan izango du jarraipena.

Eta zein da horrekin lortu gura duzuen helburua?

Gure helburu nagusia garbi dago zein den: euskararen erabilera bultzatzea. Arrasate, ezagutza aldetik, ez dago txarto, baina erabileran behar bada hankamotz gaude. Eta ohiturak aldatzea dela kontua uste dugu, norberaren borondatearen baitan dagoela hori, eta gu bide horretan gabiltza lanean. Gurako genukeena da jendeak hori bere egitea eta gurekin batera lan egitea. Izan ere, guztion arteko ahalegina izan behar da Arrasate euskalduntzea.

Trikitilariak erdiko kaletik gora. | M.A.

Anjel Padilla baserritarra azokako bere postuan. | M.A.

Kiroldegian egin zuten bazkaria erretiratuek. | M.A.

ARAMAIO

Erretiratuek ez ezik, bestelakoek ere disfrutatu dute Jubilatuen Egunean

MARION GRANOUILLET
GAZTA EKOIZLEA

"Egun garrantzitsua izaten da guretzat ere. Jende asko ibiltzen da kalean eta asko saltzen da. Pozik gaude, aurten ere horrela izan da-eta".

ANPARO ARMENDARIZ
ERRETIRATUA

"Hirugarren urtez jarraian etorri naiz bazkaltzera. Egun polita izaten da. Beste urteetan, gainera, zortea izan dut zozketan eta oparia jaso".

JABIER URIBARREN
ERRETIRATUA

"Meza entzutera joan gara lehenengo eta faltan bota ditugu Udal ordezkariak, ez ditugu ikusi. Egun hau oso polita izaten da".

OIHANA ELORTZA | ARAMAIO

Jubilatuen Eguna ospatu zuten zapatuan, Aramaion, eta erretiratuta ez daudenek ere disfrutatzeko moduko eguna izan zen. Trikitilariek kale bazterrak alaitu zituzten eta dantzan ere aritu ziren bat baino gehiago, erdiko kaleko goialdean dauden taberna parean, esaterako. Elkarteetan salda eta ogitartekoa eskaini zituzten eta urteroko azoka ere egon zen, gainera. Hasi San Martin eliza paretik eta ia kiroldegiraino, era guztietako produktuak eskaintzen zituzten postuak zeuden, horien artean: gazta saltzaileak, bitxigileak, zumitzezko saskiak egin eta saltzen zituen gizona, artilezko jantziak zituzten artisauak, perretxiko erakusketa dotorea, eta onddoak eta trufak zituena. Baita Aramaioko babak, piperrak eta kalabazak saltzen zituzten baserritarrak ere. "Ortuan dudan dena ekarri dut. Jende asko etorri da, eta saldu ere ondo saldu da", adierazi zuen Anjel Padilla baserritar aramaioarrak. Animaliak ere bazeuden, behiak eta behorrak, beste batzuen artean; baita talogileak eta Gure Esku Dago ekimeneko eta Fracking Ez taldeko kideak ere.

Erretiratuek bestalde, eurendako bazkaria zuten kiroldegian, oparien zozketa eta guzti. 111k zuten izena emanda.

Umeak amandrearen atzetik ipuinaren hariari jarraika. | IMANOL SORIANO

Akrobatak zintzilik plazan. | I.S.

ARRASATE

Gaua, argia, ipuinak eta magia Txatxilipurdirekin

Tailerrak, akrobaziak eta ipuin kontaketa ibiltaria eginda ospatu dute Gau-Eguna umeekin

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

"Iluntasuna, gaua, ametsak, ipuinak… lagun hartuta ospatu gura izan dugu Gau-Eguna umeekin", zioen Eneko Barberenak, Txatxilipurdiko zuzendariak, egubakoitzean. Arratsalde partean tailerrak egin zituzten baina ekitaldi nagusia iluntzean iritsi zen, iluntasunak harrapatu zituenean herriko bazterrak. Txalapartarien doinuek egin zieten ongietorria elkartutakoei, eta amandrearen ipuinak guztiak lotu. Hasi plazan, baina herriko txoko ezberdinetara jo zuten musikarien gidaritzapean. Han eta hemen, ipuinaren hariari jarraika ibili ondoren, plazara itzuli ziren guztiak eta soketatik zintzilik zeuden akrobaten lanarekin bukatu saioa.

Hogei urte egin ditu Txatxilipurdik eta horixe ospatzen dabil azken asteotan. Bizipozaren jaiarekin hasi zuten eta Gau-Egunarekin jarraitu: "20,5 urteurrena ere ospatuko dugu behar bada, datorren urtean", zioen Barberenak, eta gaineratu: "Harro gaude egindakoarekin eta beste hogei eta gehiago betetzea espero dugu".

Saihetsa txingarren gainean, herritarrek probatzeko gertu. | I. SORIANO

ARETXABALETA

80 kilo saihetsekin egindako mokadutxo guztiak saldu ditu UDAk ordu gutxian

M.A. | ARETXABALETA

Saihets jana egin zuen Aretxabaleta kirol elkarteak zapatu iluntzean Mitarte kalean. Azken urteotan egin izan duen ekimena da, dirua batu elkartearendako eta herria girotze aldera. Eta beste behin herritarrek ez zieten hutsik egin.

Iosu harategiko Juan eta Javi harakinek 80 kilo saihets ekarri zuten, eta Mitarte kalean bertan erre. "80 izan dira, baina beste hogei kilo izan bagenitu horiek ere saldu egingo ziren", zioen Adrian Merinok, UDAko presidenteak. Herritarrak gosetuta agertu ziren antza iluntzeko azken orduetan, eta denbora gutxian pintxo mordoa saldu zituzten, edatekoak lagun eginda. Loteria ere izan zuten salgai eta Gabonak bitartean eskuratu ahal izango da.

Omenaldia antolatzen ari den Joseba Ugalde herritarra, Arbolapetako gaztainondoaren aurrean. | JOKIN BEREZIARTUA

Omenaldia gaur, etzi bota behar duten Arbolapetako zuhaitzari

Txalapartariak, txistulariak eta dantzariak ekarri gura dituzte, 19:00etan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

"Arbola bota behar zutela enteratu ginenean herritar talde bat elkartu eta erabaki genuen zerbait egin behar zitzaiola guretako horren berezia den zuhaitzari". Joseba Ugalde ari da, beste batzuekin batera, Arbolapetako gaztainondo mitikoari omenaldi "xume" bat egitekotan. Urriaren 22an bota behar zuten, baina omenaldiagatik atzeratu egin dute: "Zinegotzi bati galdetu nion ea posible zen atzeratzea eta baietz, omenaldia gure kontu joateko baldintza bakarrarekin". Txalapartariak eta txistulariak, aurreskua eta hitz batzuk eskaintzea da omenaldia antolatzen dihardutenen asmoa: "Gizon batek galdetu dit ea lore eskaintza egin diezaiokeen. Erantzun diot baietz, baina lore gorriak badira bakarrik", adierazi du Ugaldek umoretsu.

Arbola bota ostean, beste bat jarri behar dutela uste du Ugaldek: "Oraingoa kendu egingo da, sustraietatik. Zazpi hilabetez haizea hartzen utzi behar da eta gero aukeratu beharko da ze zuhaitz jarri. Euskal Herrikoa izan dadila, eta hazkunde azkarrekoa. Izan ere, Arbolapetak ez du zentzurik izango zuhaitzik gabe".

Adineko jendea "oso larrituta" dagoela dio Ugaldek: "Urte asko dira, belaunaldi asko. Eta batzuk diote ea zergatik ez den zerbait egin lehenago. Aditu batek dio denbora batez mantendu ahalko dela, baina oso gaixorik dagoela. Udalak, jakinda arriskua dagoela, ezin du mantendu".

'Agur eta ohore', Arbolapeta

114 urte luzez arrasatearren arbola kutuna izan denari azken orduak geratzen zaizkio. Egunotan hainbat izan dira bertan argazkia atera duten herritarrak eta oraindik beste askok ere betikotuko dute momentua.

Udal langileak etzi hasiko dira arbola mozten, 08:00etan. Eguerdira arte ibiliko dira lanean eta zenbait unetan Olarte kalea itxi egingo dute eta inguruko lauzpabost aparkaleku ere hustu egingo dituzte. Herritar batek enborrean idatzi duen moduan: *agur eta ohore*, Arbolapeta.

Garcia: "Herritar guztien alkatea izan gura dut"

Alderdi sozialistak primarioak egingo ditu azaroan behin betiko alkategaia zein izango den zehazteko

J.B. | ARRASATE

Oscar Garciak 2015eko udal hauteskundeetan alkategai izateko hautagaitza aurkeztu zuen egubakoitzean. Alderdi sozialistak azaroan primarioak egingo ditu herrian bertan, beste hautagairik egongo den jakiteko. Hala ere, Garciak ez du beste alkategairik aurreikusten.

Hautagaitza aurkezteko prentsaurrekoan esan zuenez, "ondo barruratutako" erabakia izan da aurkeztearena: "Erabaki horren zergatiak kalean ikus ditzakegu egunero: langabezia, familiak dituzten arazoak, nire herriaren egoera... Herritar guztien alkatea izan gura dut, nire borondatea Arrasateko biztanleriak merezi duen alkatea izatea da". Era berean, "argi eta garbi" utzi zuen alderdi sozialistak alkatetza lortuko balu atez ateko sistema ez litzatekeela ezarriko, "inondik inora".

Horrez gain, azaldu zuen edozein aldarrikapen entzuteko "konpromisoa" hartzen duela: "Arrasatearrak dira gure kezka eta ardura nagusia".

Oscar Garcia. | ANDER LARRAÑAGA

1949an jaiotako arrasatearren ospakizuna, ezin hobeto

Baten ezean, bi ospakizun egun izan dituzte aurten. Hilaren 16an Kulturaten elkartu ziren propio egindako bideo batzuk ikusteko, eta gero Txalaparta elkartean luncha egin zuten. Urriaren 18an, berriz, Donostian igaro zuten egun osoa. 60 lagun baino gehiago bildu ziren.

XABIER USOBIAGA

Zaldibarren izena emateko eguna da gaur, Kulturaten

J.B. | ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketaren 53. edizioa azaroaren 1ean jarriko da martxan. Parte hartu gura duten taldeek gaur eman beharko dute izena Kulturateko areto nagusian, 17:30etik 20:00etara. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu beharko du; fidantza da 75 eurokoa. Argibide gehiagorako honako helbidera idatzi behar da: *zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com*.

Antolakuntzak jakinarazi du laguntzeko gertu egongo den jendea behar duela.

NIRE USTEZ

INES ALDAI

Oso ondo

Bakarkako gizarte honetan gero eta zailagoa da gehiengo bat ados egotea gai baten inguruan. Baina baditugu, zoritxarrez, hamaika bat eredu bat egiteko: txartel beltzak, ebola dela eta hainbat politikariren ezgaitasuna...

Azken honi lotuta *Exkalibur* txakur gizajoak jaso zuena. Sare sozialak *kolapsatu* egin ziren bere istorioaz. Debagoienean ere bat egin genuen bidegabekeria honekin.

Nolabait, basatiak ez garenaren seinale. Eta ingurumena zaintzeko kontzientzia ere badugula adierazteko, orain dela bi aste, egin zen Deba ibaiaren garbiketa. Egunkariak zioenez, 500dik gora debagoiendar aritu ziren. Oso ondo.

Orain bai, bostehun horietatik, zenbatek izango dute txakurra etxean? Edota, zenbatek izango dute etxean txakurra duten ezagunen bat? Ba al dute ezagun edota lagun horiek guztiek kaleak garbi mantentzeko kontzientzia? Noiz arte jasan beharko dugu euren axolagabekeria?

Aurreko baten, 2-3 urtetako umetxo bat ikusi nuen itxura bitxia zuen aztarna horietako batera abiatzen. Parkean zegoen. Gurasoak lasai egon zitezkeen parke horietakoa zen.

Baina ez. Orain, denetarako kontzientzia eskatzen dugunean, gure askatasuna bazter guztietan aldarrikatzen dugunean, ezin izango gara parkeetara lasai joan gure seme-alabak, bertan, askatasunez mugi daitezen. Oso ondo.

Ingurumen zinegotzi Josu Pereda hondakinen bilketaren gaineko argibideak ematen, Garagartzan. | JOKIN BEREZIARTUA

Hondakinen gaineko informazioa, erretiratuei eta etorkinei asteon

Komertzioekin ere badabiltza lanean sistema berria martxan jarri aurretik

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Aurrera doa Hondakinen Mahaiaren informazio eta kontzientziazio kanpaina. Aste honetan bertan herriko lau erretiratu etxeetan hitzaldiak emango dituzte informatzaileek eta mahaiko kideek: Toki Argin gaur (19:00), Uribarrin bihar (17:30), Musakolan etzi (17:00) eta Etxaluzen eguenean (17:30). Etorkinekin ere asteon egongo dira; eguenean Ekin Emakumeak elkartearen egoitzan (10:30) elkartuko dira eta egubakoitzean, hilak 31, Etxaluzeko Solozar gelan (16:00).

"Irudien bidez eta modu praktikoan" hondakinak zelan sailkatu azalduko dute. Arrasaten organikoaren bilketa selektiboa ezarri artean bi fase jarraituko zirela iragarri zuen Hondakinen Mahaiak maiatzean emandako prentsaurrekoan: batetik, barreiatuta zeuden edukiontzi berdeak kendu eta lauko edukiontzi guneak ezartzea; hori eginda dago dagoeneko. Hurrengo pausoa izango da edukiontzi berdea kentzea eta eta beste bi edukiontzi berri jartzea: marroia (organikoaren bilketarako) eta grisa (errefuserako).

Bigarren fase horretan sartu aurretik, baina, kontzientziazio eta informazio lana egitea "beharrezkoa" dela uste dute: "Denok berezitu behar dugu organikoa ondo".

Komertzioekin ere lanean

Gainera, organikoa eta errefusa atez ate jasoko zaien komertzioak ere bisitatzen ari dira informatzaileak. Jatetxe, taberna, kafetegi, fruta-denda, arrandegi, harategi, bazarrak eta supermerkatuak, besteak beste. Horiek guztiak organiko edota errefusaren sortzaile handiak kontsideratzen dira.

Komertzio horiekin amaitutakoan, frakzio guztiak edukiontzietara botako dituzten komertzioak bisitatuko dituzte. Horiek dira aurreko taldean ez dauden beste komertzio guztiak: arropadenda, estanko, bulego, farmazia, paper-denda, okindegi, zapata -denda eta, orokorrean, errefusaren eta organikoaren sortzaile handiak kontsideratzen ez direnak.

Hiru astean 2.500 txerto pasa gripearen kontra

UBANE MADERA | ARRASATE

"Badirudi aurreko urteetan baino txerto gehiago gabiltzala jartzen, baina, kanpaina amaitu arte, irakurketa osoa ezin da egin. Dena den, bai, jendea badabil txertoa hartzen. Adibidez, hiru astean, Arrasaten 2.500 txerto pasa jarri ditugu", jakinarazi du Edurne Marañonek, Arrasateko anbulatorioko erizainak.

Horrekin batera, baina, Marañonek gogora ekarri du txertoa jartzen segituko dutela azaroaren amaierara bitartean; hori horrela, herritarrak txertoa har dezaten animatu gura ditu.

Titulatu berriei begira, lan-poltsa sortu guran

J.B. | ARRASATE

Irailean plazaratu zuen Udalak titulatu berrientzako bekak deritzon programa, eta, horri lotuta, titulatu berrien poltsa osatzeko deialdia: "Animatu gura ditugu arrasatear titulatu berriak, langabe baldin badaude, poltsa honetan izena eman dezaten, lan aukera interesgarriak aurkitzeko bidea izan daiteke-eta".

BAZen entregatu behar da eskaera orria beteta, curriculuma, ikasketen agiriak eta NAren fotokopia, abenduaren 30a baino lehen.

Soul doinu dantzagarriak jarriko ditu Shake! taldeak

60ko hamarkada amaierako erreferenteak dituen taldea da: soula eta rock primitiboa egiten du

ANDER LARRAÑAGA | ARRASATE

Kooltur Ostegunak ekimenak urriko agenda ixteko Shake! seikotea ekarriko du datorren eguenean, hilaren 30ean.

2012an sortu zen taldea, eta, nahiz eta oraindik ezagunegiak ez izan, Bartzelonako taldeak oholtzan askotan ibilitako musikariak ditu.

Taldeak soula eta rock-and -rolla egiten du eta 60ko hamarkada amaierako musikarien izaera eta energia ditu erreferente; ukaezina da Stax eta Atlantic Records-en zigiluaren presentzia bistakoa dela, haien punk jarrerarekin batera.

Martillo abeslariaren ahotsak gidatzen du taldea (James Brownen eta Carla Thomasen ondorengo zuzena dela diote askok), eta, beste musikari eskarmentudun batzuekin batera, Shake! taldea generoaren sustraiak berpizten dituen lurrikara musikal bat dela esan daiteke; betiere, izaera bakarrarekin eta energia dosi erraldoi bat emanda euren zuzeneko gogor eta dantzagarriekin.

Martillo abesten. | SHAKE!

Elizondon egin zuten bazkaria 1951. urtean jaiotakoek

Hilaren 18an elkartu ziren 1951ko kintoak eta egun borobila izan zuten: Garibaitik irten eta Amaiurko errota ikustera joan ziren; han, hamaiketakoa egin zuten. Ondoren, loteria erosi eta Elizondon ederto bazkaldu zuten kantu eta dantza artean.

RAMON OSINAGA

OHARRAK

1958AN JAIOTAKOAK

Arabako Errioxara joango dira azaroaren 8an. Izena emateko azken eguna gaur da, urriak 27. 60 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0001 59 0011144438 (Laboral Kutxa). 09:00etan elkartuko dira Garibai autobus geltokian.

1959AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 22an Kajoi tabernan elkartuko dira, 11:30ean. Gero, Uarkape jatetxean bazkalduko dute; 60 euroko ordainketa egin behar da, azaroaren 13a baino lehen.

1964AN JAIOTAKOAK

Aurten 50 urte betetzen dituztelako ospakizun berezia egingo dute azaroaren 8an. Izena emateko 65 euroko ordainketa egin behar da honako kontu korronte zenbaki honetan: 2095 5055 50 9113880736 (Kutxabank). Harremanetarako posta elektronikoa da: *arrasate1964kintada@gmail.com*.

Olatz Pagaldai aktorea, 'Erdaldun berrien kluba' antzezlaneko une baten. | GOIENA

Antzerkia eta musika nagusi azaroko agendan

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako egunaren eta Santa Zeziliaren harira, hainbat ekitaldi egongo da

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hitzorduz beteta dator azaroko Udal egitaraua. Askotariko ekitaldiak egongo dira; ospakizunak, kirol ekitaldiak, antzerki emanaldiak, ipuin kontaketak, hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak, musika eta film emanaldiak.

Antzerkiaren kasuan, helduendako hiru emanaldi eta umeendako bi egongo dira. Helduen kasuan, Glu-Glu antzerki taldeak *De cuerpo presente* lana egingo du azaroren 7an, 22:00etan, Zabalotegin; 21ean, *Hitzak helduentzat* ikusteko aukera egongo da Hika taldearekin 22:00etan, Zabalotegin; eta 28an, AED elkarteak *Erdaldun berrien kluba* eskainiko du, 22:00etan, Zabalotegin. Umeen kasuan, hilaren 8an, *3 txerritxoak* ikusteko aukera.

Ipuinak ume eta nagusiendako

Ipuin kontaketen kasuan, haurrendako eta helduendako saio bana egongo dira. Helduendako *Cuentos del Sahara* emanaldia egingo dute Idoia Sanchezek eta Maryan Jdira Mehamdiek –gazteleraz eta arabieraz– hilaren 25ean, 19:30ean, Udal Liburutegian. 28an, berriz, *Printzesak kontu kontari* izeneko saioa egingo du Maider Galartzak 18:00etan eta 18:30ean, Udal Liburutegian.

Santa Zezilia ere ospatuko da

Zenbait musika emanaldirekin gozatzeko aukera ere egongo da azaroan; kontuan hartzekoa da, gainera, Santa Zezilia ospatzen dela azaroaren 22an.

Alde batetik, Aldeta taldeak lan berria, *Izarrak izaretan* izeneko diskoa aurkeztuko du hilaren 2an, 20:00etan, Zabalotegin. Aldeta, Intxaurrondoko taldea da eta bertan parte hartzen du Juanra Unamuno bergararrak.Baina ez da hori aurkeztuko den disko bakarra izango: hilaren 9an, *Gure kolkotik 2014* trikitixa diskoaren aurkezpen kontzertua ere egongo da, 17:30ean, Zabalotegin.

Santa Zeziliako ospakizunari dagokionez, Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua egingo du hilaren 22an, 20:00etan, Mariaren Lagundian eta 23an, kalejira eta kontzertua (12:30) egingo ditu Udal Musika Bandak, Udal Pilotalekuan.

Hitzaldiak eta erakusketak

Azaroko gidak bi hitzaldi ere jasotzen ditu. Alde batetik, Jon Arretxe idazleak *11 bidai, 11 liburu* ikus-entzunezkoaz arituko da hilaren 12an, 19:00etan, Irizar jauregian. Bestetik, Paul Rios Lokarriren gainean arituko da hilaren 12an, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Horrekin guztiarekin batera, azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko eguna ere bada, eta horren harira, *Persepolis* izeneko filma ikusteko aukera egongo da egun horretan, 20:00etan, gaztetxeko zine-klubean, besteak beste.

Osintxun, bestalde, hilaren 9an abiatuko dute *Azaroa Gaztainatan* egitaraua. Hitzaldiak, antzerkiak eta umeendako jolasak egongo dira, beste gauza batzuen artean.

OHARRAK

1945EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 22an egingo dute, eguerdiko 14:30ean. Izena emateko 30 euro aurreratu behar dira Azpeitxi jatetxean bertan, azaroaren 17a baino lehen.

1951N JAIOTAKOEN KINTO AFARIA ERREKIN

Azaroaren 8an egingo dute. Festarekin bat egin nahi dutenek 30 euro sartu behar dituzte Laboral Kutxako zenbaki honetan: 3035 0009 19 0091146500.

1935EAN JAIOTAKOEN BAZKARIA AZPEITXIN

Azaroaren 16an egingo dute, 14:30ean. Interesa dutenek 15 euro aurreratu beharko dituzte Laboral Kutxan, azaroaren 11 baino lehen.

1960AN JAIOTAKOEN AFARIA

Afaria azaroaren 15ean egingo dute Txarrantxa jatetxean. Izen-ematea San Martin plazako estankoan egin behar da.

SAN JOXEPEKOEN IRTEERA LIZARRARA

Dagoeneko zabalik dago San Joxepeko erretiratuek azaroaren 6an Lizarrara egingo duten irteerarako izena emateko epea. 08:30ean abiatuko dira autobus geltoki nagusitik eta egun osoko txangoa egingo dute. Lizarraz gain. Nafarroako beste txoko batzuk ere ezagutzeko aukera egongo da. Joan nahi dutenek elkarteko egoitzan eman beharko dute izena, urria amaitu baino lehen.

NIRE USTEZ

MAIALEN MADARIAGA

Sinestea da kontua

Sinestekoa Jarduneko gogoeta saiora gerturatu zen herritar kopurua. Elkarri gogorarazi genion oraindik ere indartsu gaudela. Bere garaian, Euskara Elkarteen sortzaileek, Ikastoletako irakasleek eta euskaltzaleek sinestarazi ziguten euskarazko hedabideak eta kultura eskaintza izatea edo euskaraz kalean lasai hitz egite hutsa posible zirela. Horretan sinesten zutelako iritsi gara gure begiokin hori ikustera.

Behin honaino iritsita, gure begiei beste betaurreko batzuk jantzi beharrean gaudela uste dut. Izan ere, zoritxarrez, zenbatek uste du euskararen alde egiteko zegoen guztia jada egin-da dagoela? Ez nuke ilun jarri nahi, baina oraindik dezente falta zaigunaren susmoa daukat.

Sinesgarritasunik ba ote dute euren haurrei kontuz! edo etorri! esanez, arratsaldea jolasparkean *yocreo*-ka pasatzen duten guraso horiek? Zer sinesgarritasun du *Facebook*-eko orrialdea euskaraz instalatuta izan arren, hormak *mesiento-triste*-ka betetzeak? Sinesgarria ote da euskararen aldeko gobernu batek euskara hutsezko egunkariei diru-laguntzak murriztea?

Ez nuke zutabe hau lutoz jantzi nahi. Gonbidapen bat besterik ez: oraindik ere egiteko asko dagoela uste dutenentzat eta hala sinesten ez dutenentzat ere, zabalik daude ateak Jarduneko gogoeta saioetan..

"Zabalik daude ateak Jarduneko gogoeta saioan"

GOIENA

Etorkizun duina eskatu zuten Candyko langileek

Candy-Groupeko arduradunen erabaki ofizialaren berri segitu arren, langileek atzera ere kalera irtetea erabaki dute, euren kezkaren eta egoera larriaren berri emateko. ESK, LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek osatutako enpresa batzordeak deituta hasi dira elkarretaratzeak egiten –eguenean Irala kalean–. Izan ere, duten pentsamendua da Bergarako fabrika "likidatuta" dagoela.

Lehiaketaren azken edizioko irabazleak, sari banaketaren ostean. | GOIENA

Dagoeneko martxan da kirol argazkien lehiaketaren 24. aldia

Epaimahaiak erabakia jakinarazi ostean, lan guztiak Aroztegin erakutsiko dira

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergarako Udalak eta Arizondo argazkizale elkarteak kirol argazkien lehiaketa antolatu dute 24. urtez. Gaia, noski, kirola izango da. Argazki teknikari dagokionez, zuri-beltzean zein koloretan aurkez daitezke eta laborategiko edozein teknika aplikatuta. Parte-hartzaileek kategoria bakoitzeko sari bakarra jaso dezakete, eta argazkilari bakoitzak, gehienez ere, mota bakoitzeko lau argazki aurkez ditzake.

Lanen onarpena

Argazkiak jasotzeko azken eguna azaroaren 5a izango da. Interesa dutenek euren lanak 40x50 zentimetroko kartulina batean aurkeztu beharko dituzte. "Argazki paperaren tamaina eta argazkiko irudia ere bakoitzaren aukeran gelditzen dira", argitu dute antolatzaileek.

Lanen atzealdean, izenburua, egilearen izen-abizenak, bizilekua, telefonoa eta, hala badagokio, parte hartzen duen argazki-elkartearen izena adierazi beharko dira. Argazkiak udaletxera eroan edo gutun ziurtatuz bidal daitezke. Antolatzaileek gogoratu dute ez direla lanek jasan dezaketen arazoez kargu egingo. Lehiaketan parte hartzeak baldintza guztiak betetzea dakar.

Sari banaketa

Epaimahaiak erabakia azaroaren 8an hartuko duen arren, sariak hurrengo astean banatuko dituzte: sari banaketa Aroztegi aretoan egingo da azaroaren 14an, 20:00etan.

Kategoria bakoitzean lau sari banatuko dira. Guztiek jasoko dute garaikurra eta diru saria: lehenengoak 210 euro; bigarrenak, 180 euro; hirugarrenak, 150 euro; eta herriko onenak, 120 euro. Garaikurrak izango dira Santi Arrietaren argitaratu gabeko zeramika-lanak.

Lan sarituak antolatzaileen eskuetan gelditukо dira, eta horiek argitaratzeko aukera izango dute, betiere, egilearen izena jarrita. Horrez gain, argazki txapelketa hori Argizaiola lehiaketarako sailkatzeko baliagarria da.

Arropak jasotzen Gallineroko umeendako

KOMUNITATEA GOIENA | MARIAREN LAGUNDIA | BERGARA

Udazkeneko lehenengo hotzak sentitzen hasiko gara laster, eta ziur denok hasiko garela armairuetan begira gure umeak ondo prestatzeko datorren neguko hotzak eroso eta bero pasa ditzaten.

Urtez urte sendotuz doan harremanari jarraipen emanez, azken egun hauetan Madrilgo Gallinero *herrixkan* lan egiten duten boluntarioekin harremanetan egon gara, eta beraiek ere kezka berbera daukate: bertan bizi diren umeak zela prestatu datozen hotzei aurre egiteko.

Gogoratuko duzue zelan duela bi urte umeak etorri ziren, eta bizipenekin batera zuek emandako arropaz beteriko autobusean nola bueltatu ziren. Poztu ginen esan zigutenean orduko negua hobeto pasa zutela Bergaratik eraman zituzten arropa eta zapatei esker.

Hau entzun eta zera pentsatu dugu: aurten ere zuengana jotzea denon artean ahalik eta arropa asko batzea. Helburu hori lortzeko, urri bukaera arte haurrentzako arropa eta zapatak batuko ditugu ikastolan ohiko puntuetan, jaioberrietatik hasi eta 12 urte arteko umeentzako arropa jasoko dugu. Ea guztion artean Gallineroko umeek negua ahalik eta ondoen igarotzea lortzen dugun!

Arantza Otaduy | Historialaria

"Historialariok iragana ikertzeko esfortzu handia egiten dugu"

- Angiozar eta bere bailara ezagutzeko bisitak azaroaren 1ean eta 2an dira
- Historia, etnografia, ondarea eta antzeko gaiak jorratuko ditu historialariak

I.G. | BERGARA

Bergara, hedadura mailan Gipuzkoako herri handienetako bat da, eta bisitari gehienak bere erdigunean geratzen diren arren, auzo eta mendiek altxor ugari ezkutatzen dituzte. Hauek ikertu eta jendeari erakusteko ardura hartu duen Arantza Otaduy historialariak, Angiozar ezagutzeko bi bisita gidatu egingo ditu auzoan zehar azaroan.

Nondik sortu zen Angiozar ezagutzera emateko aukera hau?

Bi bergararrekin batera *Iraganeko Oinatzak* izeneko proiektua sortu genuenean, hasieratik argi izan genuen, inguruko ondare historiko eta naturala ikertzeaz gain, berau zabaltzeko lana ere hartu behar genuela, hortik sortu zen bisitak egiteko aukera.

Angiozar berezia da?

Oso berezia. Elgetako parte izan eta gero, XX. mendean Uberarekin batera, Bergararekin bat egin zuen. Horrez gain, behe Erdi Arotik aurrerako garapena ezagutzeko toki aproposa da. Angiozar bidegurutze garrantzitsua zen; Arrasateko altzairua edo Bergarako ehunak Bizkaira eroateko igaro beharreko tokia.

Arantza Otaduy historialaria. | GOIENA

"Bizilagunekin dugun hartu-emana oso aberasgarria izaten ari da"

Ondarea ere erakutsiko duzue?

Ibilbidea ez dugu guztiz finkatu baina, eliza edo auzoko jauregiren bat bisitatuko dugu. Azpimarratzekoa da Juan San Martin eta Patxi Larrañaga bezalako historialariek etnografia eta baserrietako historian egindako lana. Gurea bezalako ibilbide bat planifikatzerako orduan, aurrekoen lana oso baliotsua da.

Bisita auzora mugatuko da?

Angiozar ez da irla bat, eta bailara guztia bezala Oñatiko jauntxoaren menpe egon zen. Eskualdeko eta inguruetako gertakariak errepasatuko ditugu, beti ere Angiozarrek dituen ezaugarriak azpimarratuz.

Auzotarrek nola jaso dute bailara ezagutzera emateko ideia?

Angiozargo jendearen laguntza erabatekoa izan da, eta eurengandik asko ikasten ari gara. Jose Angel Mikeorekin, auzo alkatearekin, dugun hartu-emana oso positiboa izan da.

Herritarrok gure iragana ongi ezagutzen dugu?

Historialariok demaseko esfortzua egiten dugu iragana ikertzeko, hortaz, ulergarria da herritarrek euren sorterriaren historiaren oso ehuneko txikia ezagutzea. Guk geuk ere, asko sakondu arren, historiaren zatitxo bat baino ez dugu ezagutzen.

Bisitara joan nahi dutenek nora joan behar dute?

Turismo bulegoa itxita dagoenez, errazena *turismoa@bergara.net* helbidera mezu bat bidaltzea edo 943 77 91 83 telefonoan eskaera egitea da. Horretarako aukera egubakoitzean amaituko da.

'Bypass' filmak itxiko du zineklubaren euskal zinearen zikloa

Euskal zinearen gaineko zikloa eguazten honetan amaituko da. Aurreko bi asteetako zine emanaldien ostean, etzi (20:00) *Bypass* komediaren txanda izango da. Komedia askotan bezala, horretan ere amodioak garrantzi handia izango du. Emanaldiaren ostean Patxo Telleria zuzendariarekin solasaldia egongo da.

Julen Rivas artistaren argi-ilunez beteriko hiri paisaiak

Hamazazpi akuarela batu ditu Julen Rivas margolariak Nahikari tabernan. Azken urteotan komikigintzan lanean ibili eta gero, Rivas bere hastapenetara bueltatu da. Tabernara eroan dituen lanetan, sakonera eta argi-ilun joko interesgarria duten hiri paisaiak ikus daitezke. Erakusketa egubakoitza arte dago.



2014-2015 denboraldiko Arrikrutz Oñatiko kobak ziklokros taldeko zazpi txirrindulariak. | O.E.

Gogoz hasi du denboraldia Arrikrutz ziklokros taldeak

Abenduaren 21ean da Oñatiko lasterketa eta aurten kanposantu ondoan izango da, ez San Martinen

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Laugarren denboraldia hasi du Arrikrutz Oñatiko kobak ziklokros taldeak. Egubakoitzean egin zuten talde berriaren aurkezpena kultura etxean, eta aurten ere gogotsu daudela adierazi zuten.

Oñatikoa, kanposantu ondoan

Bizikleta gainean joan ziren aurkezpenera taldekideetako bi eta zuzendaritzako eta mekanikarien taldeko kideekin batera atera zuten argazkia txirrindulariek, denak irribarrea ezpainetan zutela, pozik denboraldi berrirako. "Kadete mailan Ander Gartzia lehiatuko da eta gainerakoak junior mailan: Xabi Aiastui, Andoni Igartua, Xabi Murgiondo, Beñat Ormaetxea, Ekaitz Txintxurreta eta Julen Umerez", adierazi zuen zuzendaritzako kide den Ruper Arkauzek. Harekin batera osatzen dute talde hori Josu Alberdik, Iker Arkauzek eta Julen Arkauzek. Mekanikari lanetan, berriz, Mikel Untzurruntzaga arituko da denboraldi honetan ere.

Atzo, domeka, Karrantzan, izan zuten aurtengo denboraldiko lehen lasterketa. "Egutegia jarrita dago, bai, baina txirrindulari bakoitzak erabakiko du nora joan. Julen Umerezek, esaterako, duela gutxi bukatu du errepideko denboraldia eta atseden hartuko du orain, beranduago hasiko da ziklokroseko lasterketan parte hartzen. Dena dela, azken hiru urteetan hartu duten esperientzia ez dute alferrikakoa. Dagoeneko hasi dira euren artean berba egiten lasterketa eta denbora konkretuez, eta hori ona da, ziklokrosa gustatzen zaiela esan gura du horrek", dio Ruper Arkauzek.

Aurreko hiru denboraldietan Espainiako txapelketan ere parte hartu dute Arrikrutz Oñatiko kobak taldeko txirrindulariek eta aurten ere gustatuko litzaieke iaz beste podium edo gehiago egitea.

Gutxienez hamazazpi lasterketa dituzte egutegian taldea osatzen duten zazpi txirrindulariek. Eta aurten ere jokatuko da bat Oñatin. Abenduaren 21ean izango da. Aurten, baina, San Martinen egin ordez kanposantuaren inguruan izango da. "Aitor Biainek egin duen dokumentalean argi ikusten da Oñatin zer nolako garrantzia izan duen ziklokrosak eta ezinbestean sartu behar da Oñati lasterketen egutegian", dio barrez Arkauzek.

Aitor Biainen dokumentala

1953an mundu mailako ziklokros txapelketa egin zen Oñatin eta hori aitzaki hartuta egin du Aitor Biain gazteak *1953, historia pedalkadaz* izeneko dokumentala. Egubakoitzean bota zuten zinema aretoan, ziklokros taldearen aurkezpena egin aurretik. Lasterketa haren garrantzia, eta haren aurretik eta ondoren Oñatin txirrindularitzaren alde egindako lana jasotzen ditu argazki, agiri eta irudi zaharrekin eta lekukoen adierazpenekin.

O.E.

Liburudun bihurrikaria

Udal liburutegiak gonbidatuta etorri zen Shakti bihurrikaria Oñatira joan den egubakoitzean, Liburutegien Nazioarteko Eguna ospatu zen egunean. Gonbidatuak eta arrazoia ikusita, liburu bat eskuetan zuela etorri zen Shakti, eta mahaitxo baten gainean bihurrikatu zen, erabat, hainbat herritarren aurrean; Foruen plazan lehenengo, Santa Marinan gero eta Atzeko kalean, azkenik. Denak utzi zituen aho zabalik.

NIRE USTEZ

MIREN ZUBIA

Ni ez nauzue engainatuko

Ebola, ebola.

Ebola, ebola, *(ez),* ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, *(saiatu)*, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, (*zuon*), ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, (*betiko*), ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, (*helburua*), ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola

Ebola,ebola, ebola, (*ezkutatzen*), ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola, ebola,

ARETXABALETA

Poxpolo eta konpainia Arkupen izan ziren hil honetan. | JOSETXO ARANTZABAL

Kulturaz gozatzeko aukera asko izango dira azaroan

- Zine emanaldiak eskaintzen hasiko dira berriro
- Azaraoren 25erako elkarretaratzea eta antzezlana

I.G. | ARETXABALETA

Kultura ekintzez blai dator azaroko agenda: erakusketak, antzerkiak, zinena... Denetarik izango da, denendako.

Azaroan bueltan da zinea

Zine eskaintza berriz ere bueltan da azaroaz batera. Batetik, zineklubeko emanaldiez gozatzeko aukera izango da eguenetan; eta bestetik, zine komertzialaz asteburuetan. Zineklubean ikusi ahal izango da, esaterako: *La gran belleza*; *Cronicas diplomaticas*; *Joven y bonita;* eta *Iruzurgilea*. Zine komertzialean: *Lasa eta Zabala*; *El niño*; *La entrega*; *La isla minima;* eta *Loreak*. Haurrentzako aukera ere egongo da: *Como entrenar a tu dragon 2*; *Maia erlea*; *Aviones 2*; *Pancho el perro millonario;* eta *Hurrak eta lapurrak*.

Bertsoak, antzerkiak eta abar

Zineaz gain, bestelako eskaintza ere zabala izango da azaroan. *Euskal Herriko hilerriak* erakusketa ikusteko aukera egongo da Arkupen azaroaren 3tik 29ra bitarte, adibidez. Honako antzerki saioez disfrutatzeko aukera ere egongo da: *Up;* eta *Poxpolo eta Konpainia*. Ademgik antolatuta, elkartasun jaialdia egingo dute Irrien Lagunek azaroaren 16an, Ibarra kiroldegian, 17:00etan. Sarrera bost euro da eta Arkupen daude salgai. Lekaixoka bertso-eskolakoek, berriz, bertso musikatuen emanaldia egingo dute azaroaren 7an, 19:00etan. Sarrera lau euro da. Bestalde, GKEen esperientziak trukatzeko mahai-ingurua egingo dute azaroaren 24an Arkupeko bigarren solairuan, 18:00etan. Eta ipuin kontaketa saioa egingo du Odei Arregik azaroaren 8an liburutegian, 11:30ean.

Azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Eguna izanik, elkarretaratzea antolatu dute Herriko Plazan, 19:00etan. Horretaz gain, *Maitasunaren ostean, maitasuna* antzezlana izango da Ados taldearekin.

ESKORIATZA

Eskoriatzako Auzokoren aurkezpen jaia

KOMUNITATEA GOIENA | MIRIAM ISASMENDI
AUZOKO | ESKORIATZA

Eskoriatzako Auzoko egitasmoaren aurkezpen jaia izan genuen eguen iluntzean Fernando Eskoriatza plazan. Jaitxo honen helburua Auzoko proiektua ezagutzera ematea zen, eskoriatzarrak informatzea. Mahai pare baten bueltan bildu eta bertan astero Auzokon parte hartzen dugunok prestatutako jaki eta edari ezberdinak eskaini genizkien momentu horretan plazan zeuden herritarrei. Horrela, eskoriatzarrek munduko zenbait janari ezberdin probatzeko aukera izan zuten: Saharako kuskusa, Pakistango te beltz eta pakorak, bertako ardi gazta... Azkenean, herritar ugari hurbildu ziren jaira eta giro paregabea sortu zen janarien eta musikaren bueltan. Oso pozik geratu gara emaitzarekin eta uste dugu etorritakoak ere primeran ibili zirela!

Eguenean Auzoko aurkezteko egin genuen jaia. | MIRIAM ISASMENDI

NIRE USTEZ

MAIDER OTAMENDI

Teknologia berriak

Bizi garen gizarte eredu honetan berebiziko garrantzia dute teknologia berriek, eta ikusten denez, gero eta pisu gehiago izango dute gure egunerokotasunean. Garai batean lanerako ezinbesteko tresna bihurtu zena gaur egun bizitzaren gainontzeko esparruetara zabaldu da. Aisialdira, lagun arteko harremanetara, osasunera... Hau, printzipioz, ez dago gaizki! Gure bizi-kalitatea hobetzea dutela helburu suposatzen da. Baina horrela al da benetan? Inoiz ez al duzue izan dependentzia bat sortzen ari zaizuen sentsazioa? Etxetik mugikorrik gabe irtetea... "Ez, mesedez! Hori ezinezkoa da! A ze inkomunikazioa!".

Ohiturak aldatzen gabiltza, hori horrela da, ezin da ukatu, onerako edo txarrerako, hori beste eztabaida bat da!

Baina helduak garen heinean, gure buruaren jabe gara, zertan gabiltzan badakigu, eta gure ekintzek izan ditzaketen ondorioak ezagutzen ditugu. Baina eta haurrek? Prestaturik al daude gure haurrak jasan ditzaketen arriskuen aurrean? Ezagutzen al dituzte arrisku hauek? Bene-benetan, ez dut uste! 8-10 urtetako haur bat ez dut uste nahiko heldua denik modu libre batean interneterako konexioa duen mugikor batekin ibiltzeko! Nahiz eta batzuei harrigarria suertatu, egon badaude. Hezi beharko ditugu horretan ere!

"Etxetik mugikorrik gabe irtetea... ez, mesedez!"

Eguazten arratsaldean odola ateratzeko unitate mugikorra izango da Aretxabaletako plaza parean

Urrian Aretxabaletan egin diren bi odol ateratzeetan 75 lagunek eman dute odola. Eguazten hau, urriak 29, izango da horretarako azken eguna. Unitate mugikorra izango da Herriko Plaza parean 16:30etik 20:15era. Egun eta ordutegi hori aukeratu dute pintxopote eguna delako, eta, hain zuzen ere, gazteak animatu nahi dituzte odola eman dezaten.

Kontzertua eskainiko du Pettik Aretxabaletako Arkupe kultura etxean eguenean, 19:00etan

Folk eta rock doinuak eskainiko ditu Arkupen Juan Luis Perez (Petti) musikari nafarrak eguen honetan Aretxabaletan, Arkupen, 19:00etan. Sarrera lau euro da. Igor eta Iñigo Telletxea izango ditu lagun baxuan eta baterian, eta Gose taldeko Osoron ere igoko da taula gainera, gonbidatu berezi bezala. Pettiren abestiak eta bertsioak entzun ahal izango dira.

Bazkaria egingo dute Aretxabaletako Bainetxe kalean jaiotakoek azaroaren 8an, lagun giroan

Aretxabaletako Bainetxe kalean jaiotakoek bazkaria egitea pentsatu dute. Lagunarte giroan egingo dute, kontuak kontatzeko aitzakiarekin. Ospakizuna azaroaren 8an, zapatua, izango da. Bazkaria herriko Atseden tabernan izango da. Azaroaren 3a baino lehen eman behar da izena honako telefono honetara deituta: 615 79 05 75.

ESKORIATZA

Eskoriatzan baserritar jantziak egiteko ikastaroa antolatu dute; izena emateko azken eguna: urriak 31

Amaia Albes arrasatearrak baserritar jantziak nola egin erakutsiko du Eskoriatzan. Azaroaren 3tik abenduaren 15era izango da ikastaroa –astelehenetan–, 18:30etik 20:30era. Izena emateko azken eguna urriaren 31 da. Horretarako, kultura etxera deitu behar da (943-71 46 88). Prezioa hamar euro da.

Kirol elkarteentzako oinarrizko prestakuntza eskainiko dute azaroan egingo duten ikastaroan

Kirol elkarteei zuzendutako ikastaroa egingo dute Eskoriatzan. Landuko duten gaia: kirol hastapeneko ikaste-irakaste prozesuen azterketa. Azaroaren 14an eta 21ean izango da, Ibarraundi museoan, 18:00etatik 20:00etara. DoaN da. Izena emateko: *kirolak@eskoriatza.net* edo 943-71 53 28. Horretarako azken eguna azaroaren 12a da.

Liztor beltzaren habia, Arbitrio etxearen (Torrezahar) beheko aldean. | L.Z.

Liztor beltzaren habia. | L.Z.

ELGETA

Liztor beltzaren habia bat Arbitrio etxearen ondoko intxaurrondo batean

Udalak eskatuta Tomas Sagasti oñatiarrak tratamendua egin zion hilaren 22an, eta diote habia hamabost bat eguneko epean jausiko dela

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Intxaurrondoak hostoak galdu dituenean gelditu da agerian liztor beltzaren habia. Tamaina ederrekoa da, eta uneotan barruan erlerik ez badauka ere, zuhaitzetik zintzilik jarraitzen du.

Auzotarrek abisua eman ostean, berriki ezarritako protokoloa jarri zuen martxan Elgetako Udalak. Deba Garaia Landa Garapenetik adostuta dute inguruotan Tomas Sagasti oñatiarra arduratuko dela horrelako kasuetan dagokion neurriak hartzeaz. Hala, urriaren 22an izan zen Elgetan, eta tutu luze baten laguntzaz pozoia sartu zuen habiaren barruan bertan zeuden erleak hiltzeko. Ondoren, beste produktu batekin igurtzi zuen habia kanpoko aldetik. Hori, egonez gero, habiara bueltan datozen erleak hiltzeko.

Aurten, hirugarrena

Ez da aurten Elgetan agertzen den liztor beltzaren lehenengo habia. Udaletik aditzera eman dutenez, beste bi kendu dituzte: bata Goimendi auzoan, eta bestea Olaegi baserri inguruan.

Hirugarren habia hamabost bat egun barru jausiko dela adierazi dute. Bestalde, denboraldi batean ezingo da intxaurrondo horrek emandako fruiturik jan.

Azaroaren 9an, 16an eta 23an jokatuko da pintxo lehiaketa

L.Z. | ELGETA

Turismo Sailetik aditzera eman dutenez, ate joka dugu Elgetako VII. pintxo lehiaketa. "Printzipioz, herriko sei ostalarik agertu dute lehiaketan parte hartzeko asmoa", adierazi du Turismo Saileko arduradun Patxi Basaurik. Hala, azaroko bigarren domekan, azaroaren 9an, egingo dute lehenengo jardunaldia. Tabernari bakoitzak bi pintxo aurkeztuko ditu eta epaimahai ofizialak dastatu eta baloratuko ditu. Egun berean, ostalariek euro baten truke eskainiko dituzte bezeroei.

Hurrengo bi domeketan —azaroaren 16an eta 23an— botoa emateko aukera izango dute bezeroek Publikoaren Saria erabakitzeko. Pintxoak, kasu bietan, euro baten truke eskainiko dituzte ostalariek.

Aurten ere, pintxoen osagaiak asmatzeko erronka luzatuko diete bezeroei.

Txistulariak kalean

Eguerdiko txikiteoa girotzeko, gainera, txistulariak ibiliko dira kalez kale eta tabernaz taberna hiru domeketan.

LEINTZ GATZAGA

15-20 haur espero dira aurtengo ludotekan

Duela hiru aste inguru hasi zuten ludotekako ikasturte berria. Garazi Orobengoa ludotekako arduradunak adierazi du oraindik haur guztiek ez dutela izena emateko orria entregatu; beraz, oraindik epea irekita dagoela esan daiteke. Oraingoz, 15-20 haur joango direla aurreikusten da.

IKER AIZPURU

ARAMAIO

Ekonomatuko bazkide egiteko aukera zabalik, 20 euroko kuota ordainduta

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Aurrera doa Aramailur kontsumo taldearen ekonomatua, eta oraindik bazkide berriak hartzeko moduan dago taldea: "Oraingoz ez dago arazorik genero faltagatik-edo, eta gura duenari irekita jarraitzen du", diote. Bazkide egiteko *aramailurkt@gmail.com* helbidera idatzi behar da eta hasierako kuota ordaindu. Kuota da 20 eurokoa. Baina bazkide ez direnek ere aukera dute ekonomatuan erosketak egiteko; horiek egun bateko bazkide bihurtu beharko dira, euren erosketan euro bat gehiago ordainduz.

Ekonomatua astean bi egunetan egoten da zabalik: martitzen arratsaldetan 17:00etatik 20:30era, eta zapatu goizetan 11:00etatik 13:00etara. Produktuen zerrenda luzea da oso.

Bi herritar ekonomatuan, erosketak egiten. | JOKIN BEREZIARTUA

2015eko egutegia osatzeko argazki lehiaketan parte hartzeko azken eguna izango da eguena, hilak 30

Udalak 2015eko egutegia eta argazkien bilduma osatzeko lehiaketa antolatu du aurten ere. Parte hartzaileek hiru argazki aurkeztu ahal izango dituzte gehienez eta argazki guztiak Aramaion ateratakoak izan beharko dira, lehenago argitaratu gabeak. Argazkiak udaletxean edo kultura etxean entregatzeko azken eguna izango da eguena, hilak 30. Argazki onenaren egileak 200 euroko jasoko du eta urtaro bakoitzeko argazki onenak, berriz, 100 euro. Argibide gehiagorako, udaletxera jo: 945 44 50 16.

ANTZUOLA

Gaur eman daiteke izena mendiko bizikleta irteeran

Arrolak familia osoarendako mendiko bizikleta irteera antolatu du azaroaren 1ean egiteko

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Mendiko bizikleta irteera antolatu du Arrola Mendi taldeak. Ibilbidea familia osoan egiteko modukoa da: Andoaindik Leitzara, 25 kilometro. Ibilbide gogorragoa egin nahi dutenek Lekunberriraino joateko aukera izango dute.

Eraman beharrekoa: frontala edo bizikletarako linternak tunelak pasatzeko; irteera egun osokoa denez, janaria ere eraman behar da.

Irteera eguna: azaroaren 1a, zapatua, goizeko bederatzietan, Sagastiko autobus geltokian.

Izena emateko aukera gaur, urriak 27, dute interesa dutenek, 19:00etatik 19:30era, Olaranen, edo aurrez *arrolamt@gmail.com* helbidera idatzita.

Ikasle eta langabeek, 5 euro; langileek, 10; umeek, doan.

Merienda eta hitzaldia

Bihar, urriak 28, Pedro Etxebarriak hitzaldia egingo du Olaran etxean, 18:00etan. Gaia: taldean nola hitz egin eta nola entzun besteek esaten dutena. Landatxopek antolatutako hitzaldia da.

Ondoren, erretiratuendako lokalean elkarteko bazkideendako urteroko merienda antolatu dute, arratsaldeko zazpietan hasita. Ogitartekoak eta txokolatea banatuko dituzte.

Kutxabank: hitzaldia

Gaurko, urriak 27, Kutxabanken pribatizazioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako proposamenari buruzko hitzaldia antolatu dute. Olaran etxean izango da hitzaldia, arratsaldeko zazpietan hasita, hain zuzen ere.

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan
R.P.S. 149/10 L.L.G

MULTIÓPTICAS Optika
Juan Carlos Guerra, 1 behea | Arrasate
Ibargarai, 16 | Bergara
%15eko deskontua (deskontua ez da aplikagarria promozioetan ezta segurtasun betaurrekoetan).

ARRIKRUTZ
oñatiko obak

ARRIKRUTZ Kobak
Araotz Auzoa | Oñati
Sarreran %10eko deskontua (topea bost pertsona).

Guztiz Eder

GUZTIZ EDER Estetika zentroa
Kalebarria 29 | Oñati
%5eko deskontua argizari epelarekin eta beroarekin egindako depilazioetan (bekainak eta ezpain gainekoa izan ezik).
%10eko deskontua gorputz osoan txokolatearekin egindako estalduran eta masajean.

Izotz Jauregia
TXURI-URDIN

TXURI URDIN Itzotz jauregia
Anoeta Ibilbidea 24 | Donostia
% 20eko deskontua zapatu eta domekatan (ez bada zubia edo oporraldia).
% 10eko deskontua zubi eta oporraldietan.

DONOSTIA SAN SEBASTIAN
AQUARIUM

AQUARIUM – Donostia
Bi erosi eta bat ordaindu (Sarrena garestiena ordainduko da).

Gracian mertzeria

GRACIAN Mertzeria
Bidekurutzeta kalea 6, Bergara
25 eurotik goragoko erosketetan %20ko deskontua.

RPS: 115/13
instituto optico

INSTITUTO OPTIKOA
Bidekurutzeta 10 | Bergara
%15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan eta aparatu audifonoetan.

ione moñux
fisioterapia zentroa
RPS: 301/14

IONE MOÑUX Fisioterapia zentroa
Burdinate plaza 2 | Bergara
Lehenengo sesioa, sesio erdi.

AZPEITXI JATETXEA

AZPEITXI Jatetxea*
Aranerreka kalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00
Azpeitxi jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Eguneko menuan, bazkarian kafea doan. Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

Markiegi

MARKIEGI JANTZI DENDA
Olarte kalea 2 | Arrasate
Produktu guztietan %10eko deskontua.

MIREN GARAI

MIREN GARAI
Zarugalde kalea 23, 2 ezk. Arrasate
Tel.: 943 799 690
Aurpegia garbitzeko tratamenduarekin, eskuetako tratamendua doan.

LONBIDE
OINETAKOAK

LONBIDE Oinetakoak
Bidekurutzeta kalea 5, Bergara
Produktu guztietan %10eko deskontua.

ML

ML Ile-apaindegia
Alfonso X Jakintsua plaza 1 behea,
Arrasate / Tel.: 943 797 965
"Nanokeratin System" proteina tratamenduan %20ko deskontua.
Beste edozein zerbitzuetan %5eko deskontua.

Nebraska TABERNA

NEBRASKA taberna
Zarugalde 35 - Arrasate
Tel.: 943 79 09 39
Mahou garagardo botila, euro bat bazkideentzat
Zapatu eta igandeetan, edaria + pintxotxoa doan
Interneteko menuetan %5eko deskontua

SARA MERENDERUE

SARA MERENDERUA Jatetxea
Meatzerreka auzoa 19,
Kanpazar bidean, 3km-tara – Arrasate
Tel.: 943 77 15 86
Astelehenetik igandera, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
Astebukaerako afarietan, eguneko menuarekin, kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

TABERNA-BERRI
JATETXEA

TABERNA-BERRI Jatetxea*
Durana kalea 26, Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 67
Taberna-Berri jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero;
Astelehenetik igandera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
Astebukaeretan, eguneko menuan, afarian kafea doan.

ZABALA
Jatetxea

ZABALA Jatetxea*
Labegaraieta 14, Bergara
Tel.: 943 76 42 57
Zabala jatetxeko otorduetan bazkide-txartela erakutsiz gero; Astelehenetik larunbatera, eguneko menuan, bazkarian kafea doan

argia

ARGIA Aldizkaria
www.argia.com
%25eko deskontua harpidetzan. (Bazkide berrientzat soilik).

naren
RPS:289/13

NAREN
Fisioterapia eta osteopatia zentroa
Belorrieta 5 behea | Aretxabaleta
%15eko zerbitzu guztietan (Errehabilitazioan izan ezik).

Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5 | Eskoriatza
Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.

LILURA
EDERTZE INSTITUTUA
RPS: 299/13

LILURA EDERTZE INSTITUTUA
Estetika zentroa
Bidekurutzeta 7 | Bergara
%15a laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
%20eko deskontua elikagai intolerantzia proban.
%10eko deskontua mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
%10eko deskontua fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.
Bazkidearentzat eta lagunarentzat

kuttuna
ESTETIKA ZENTROA
RPS: 285/13

KUTTUNA Estetika
Aranburuzabala 19, behea | Eskoriatza
%5eko deskontua zerbitzu guztietan (beste promozio batzuk izan ezik).

PEUGEOT
OÑATI GARAJEA

OÑATI GARAJEA
Autoen garaje. Konponketak
Goribar Auzoa 9 | Oñati
Oñati %5eko beherapena egiten diren konponketetan.

• JAUJA KIROLAK •

JAUJA KIROLAK
Irizar pasealekua 1 behea, Bergara
Produktu guztietan %5eko deskontua.

Portaloi Optika
RPS: 262/13

PORTALOI optika
Erdiko kalea 10, Arrasate
%15eko deskontua (ez metagarria beste eskaintza batzuekin eta ez aplikagarria segurtasun betaurrekoetan).

* Eskaintza honek, GOIENA KLUBEKO txartelaren titular bakoitzeko, kafe bat hartzen du barne.

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:
Goiena papera: Astelehenetan ere etxean.
Deskontuak:. Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: **15 €.** | **943 25 05 05**
kluba@goiena.com | *goienakluba.com*

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñak arnasa hartu du; Antzuolak, ostera, behean jarraituko du

▸ Aloñak eta Antzuolak derbia jokatu zuten atzo arratsaldean Azkoagain futbol zelaian

▸ 36.minutuan Julen Aranbarri egotzi zuen epaileak; horrek lehia baldintzatu zuen

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Atzo arratsaldean Azkoagainen jokoan zeuden hiru puntuak garrantzitsuak ziren bai Aloñarendako eta baita Antzuolarendako ere. Bi taldeak sailkapeneko beheko postuetan zeuden, eta arnasa hartu beharra zuten. Bada, oraingoz arnasa hartuko duen taldea Aloña izango da. Hiru puntu garrantzitsu eskuratu zituzten oñatiarrek. Garaipenarekin, behean daudenekiko zuloa egin du Aloñak eta sailkapeneko erdialdera begira jarri. Antzuolak, aldiz, azken aurreko jarraitzen du, bi punturekin.

Hasiera bizia izan zuen lehiak

Lehenengo zatia nahiko parekatua izan zen. Bi taldeak gogor atera ziren zelaira. Lehenengo minutuetan Aloñak aukera gehiagoak izan zituen; hala, aukera ona izan zuten etxekoek 15. minutuan. Martxel Aiastuiren jaurtiketa, baina, ondo geratu zuen Unai Etxeberriak. 36. minutuan epaileak Antzuolako jokalari bat egotzi zuen: Julen Aranbarri. Jokalariak bi txartel hori ikusi zituen, lehenengoa 10. minutuan. Antzuolarrak ez ziren gustura geratu epailearen erabakiarekin. Eta jokaldi horrek erabat baldintzatu zuen lehia.

Hala ere, jokalari bat gutxiago izan arren, Antzuolak izan zuen lehenengo zatiko aukera garbiena: Imanol Arantzabalen jaurtiketak zutoina jo zuen. Azkeneko minutuetan intentsitate handiarekin jokatu zuen Antzuolak, baina golik ez.

Golak bigarren zatian

Antzuolako atzelarien huts baten ondoren etorri zen partiduko lehenengo gola. Atzelariak atezainari egin zion pasea, baina baloia Jon Ander Kortabarriak lapurtu zuen. Horrek, Josu Juaristiri eman zion eta oñatiarrak baloia sareetan sartu zuen. 63. minutua zen.

Norgehiagoka maldan gora jarrita, Antzuolak aurre egiteko indarrak atera zituen. Estrategia jokalditan hainbat aukera izan zituzten, baina oñatiarren mesederako baloia atzokoan ez zen sareetan sartu.

Julen Aranbarri eta Josu Juaristi —baloiarekin— derbiko jokaldi batean. | JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren golean lasaitasuna

Joseba Irizar Aloñako jokalariak amaieran aitortu zuen moduan, bigarren gola egitea beharrezkoa zuten oñatiarrek lasaitasuna hartzeko. Bigarrena, Iñigo Markinezen eskutik etorri zen. Josu Juaristik ezker hegaletik falta bat bikain erdiratu zuen, eta Markinezek, Antzuolako atzelariei aurre hartuaz, buruz errematatu zuen baloia sareetara.

Atzoko emaitza kontuan hartuta, Antzuolak gogor egin beharko du lan datorren astean, etxean, Aretxabaleta liderraren aurka punturen bat irabazteko. Oñatiarrak, aldiz, Irunera joango dira Real Unionen aurka jokatzera. Aloña baino gorago dago Real Union sailkapenean, puntu bakarraren aldearekin. Lehia irabaziz gero, irundarren aurretik jarriko dira oñatiarrak.

EMAITZA

ALOÑA MENDI

2-0

ANTZUOLA

FITXA TEKNIKOA

Aloña Mendi: Aginagalde, Irizar, Palacios, Ugarte (28. min. Kortabarria), Urkia, Moreno (71. min. Uribetxeberria), Juaristi (90. min. Astigarraga), Zabaleta, Markinez, Lizarra (58. min. Irizar) eta Aiastui.

Antzuola: Etxeberria, Paredes, Arruti (56. min. Linazisoro) Zabala (80. min. Fernandez), Lete, Hernandez, Gorostola, Aranzabal, Agirre (65. min. Godoy), Aranbarri eta Longares.

Beste: Bai Antzuolako eta baita Oñatiko zale asko joan ziren Azkoagainera derbia ikustera.

JOSEBA IRIZAR | JOKALARIA

"Garaipenak balio digu lasaitu eta goiko postuei begira jartzeko"



A.E.

Aloñako jokalaria pozik zegoen atzo lortutako hiru puntuekin. Aurrera begira lan egiteko indarra emango die.

Garrantzitsuak dira gaur lortutako hiru puntuak.

Bai, kanpoan berdintzetik gatoz eta puntu beharrean geunden. Garaipenak balio izan digu beheko taldeekiko zuloa egiteko, eta gora begira jartzeko.

Nola ikusi duzu gaurko lehia?

Bagenekien partidu gogorra izango zela. Antzuola talde gogorra da, eta guk ere gogor planteatu dugu derbia. Jokalari bat gutxiagorekin geratu dira eta hori erabakigarria izan da. Saiatu diren arren, gu gehiago izan gara.

Lehenengo gola egitea kostatu egin zaizue.

Bai, beti kostatzen zaigu lehenengo gola egitea. Behin lehenengoa eginda, bigarrena egin beharra zegoen; bestela, edozein kontraerasotan edo estrategia jokalditan berdinketa egin zezakeen Antzuolak.

AITOR GODOY | JOKALARIA

"Lehenengo zatian izan ditugu partiduan aurretik jartzeko aukerak"

A.E.

Partidua berdindua izan zela zioen amaieran Godoyk; baina gola egindakoak eraman zituen hiru puntuak.

Puntu beharrean dago Antzuola?

Bai, bi punturekin gaude zazpi partiduren ostean, lehenengo garaipenaren zain. Behin lehenengoa irabazita badakigu jarraian gehiago etorriko direla.

Nolako derbia izan da?

Nahiko berdindua. Lehenengo zatian aurretik jartzeko aukera izan dugu, baina ezin izan da. Gero, jokalari bat gutxiagorekin geratu gara eta horrek asko baldintzatu du lehia.

Zertan oinarritu da zuen jokoa?

Estrategia jokaldietan gola egiten saiatu gara. Izan ditugu aukerak, zutoina ere jo dugu, baina ez dugu gola egiterik izan. Zazpi partidu hauetan ez gara inoiz aurretik jarri. Gaurkoan, aurretik jarri izan bagina punturen bat aterako genukeela uste dut.

OHOREZKO ERREGIONALA

Hogeigarren minutuan sartu zuen gola Real Union taldeak

Bigarren zatian gol aukerak sortu arren bergararrek ez zuten berdintzerik lortu

EMAITZA

BERGARA
0-1
REAL UNION

Bergarako jokalari bat baloiarekin aurrera egin nahian. | IMANOL SORIANO

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Bergarak ez du asteburu honetan punturik gehitu. Real Union taldearen bisita izan zuen zapatu arratsaldean Agorrosinen, eta irundarrek partidu hasieran lortu zuten markagailuan aurretik jartzea. Arrisku handiko jokaldi bat baino gehiago egin eta gero, azkenean, bidasoarrek 20. minutuan egin zuten gola, taldeko kapitainaren ekimenez. Bergararrek saiakera bat baino gehiago egin zuten jokoa bizkortuz eta erasoa finduz, baina emaitzarik lortu gabe. Atsedenean berdin jarraitzen zuen markagailuak, eta bigarren zatian ere egindako ahaleginak ez zuen fruiturik eman. Gol aukerak sortu arren baloiak ez zuen irundarren atea zulatzerik izan.

Estutasunak saihestea

Denboraldi hasiera gogorra izan dute Aitor Arrateren mutilek, baina badirudi mailari neurria hartzen hasiak direla. "Hobeto gabiltza. Sailkapeneko erdialdean gaude eta hamar puntu egin ditugu lau astean", adierazi du entrenatzaileak.

Bergarako taldeak bost jokalariren baja izan du denboraldi honetan, ondorioz, bost taldekide berriak dira. "Helburua, aurten, iazko estutasunik ez pasatzea da", azaldu du Arratek. "Mailari eustea ahal dela sailkapeneko erdialdean mantenduz".

Hurrengo astean Ordiziako taldearen aurka jokatuko du norgehiagoka Bergarak. Sailkapeneko goiko aldean dagoen taldea da, eta etxean jokatuko du.

Mondrako jokalaria baloiaren jabe eta Bergarako bi jokalarirengandik babesten. | JOSETXO ARANTZABAL

ERREGIONAL LIGA

Mondrak hiru gol egin zituen Bergararen aurkako derbian

Jokalari oso gazteak dituzte Bergaran, eta Arrasateko taldeak eskarmentu handiagokoak

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

Etapa oso ezberdinean daude bi taldeak, eta nabari izan zen, atzo, domeka, Ipintzan jokatutako derbian. Arrasateko taldea maila gogorragoan jokatzetik dator, eta eskarmentu handiagoa duten jokalariak ditu. Bergarak, berriz, talde oso gaztea du; gehiengoak gazte mailakoak dira.

Derbia 0-3 emaitzarekin amaitu zen. Arrasatearrek lehenengo minutuan egin zuten aurreneko gola; Ane Arregik hain zuzen. Bigarrena 20. minutuan etorri zen, eta Eider Zeziagak egin zuen. Atsedenaren ostean egin zuen hirugarrena Lide Zubiagak.

Etxeko taldea saiatu zen jokoa egiten, eta birritan jo zuten arrasatearren ateko zutoina, baina golik lortu gabe. "Taldea, gaurkoan, gazte mailako bederatzi jokalarirekin eta kadete mailako hirurekin osatu dugu", azaldu zuen Bergarako entrenatzaile Gotzon Odriozolak. "Jokalari oso gazteak dira. Helburua, denboraldi honetan, ikastea da eta futbolarekin gozatzea. Gol aukerak sortu ditugu, baina arrasatearrak gu baino hobeak dira".

Arrasatearrak gustura

Txanponaren beste aldean da iaz maila galdutako Mondra taldea. "Ondo hasi dugu norgehiagoka", azaldu zuen Andoni Ezkurra entrenatzaileak. "Gero, golak sartu ditugu, eta nire iritziz taldea gehiegi lasaitu da. Askotan egiten dugu hori".

Aurrekoa denboraldi gogorra izan zen Mondra taldearendako. Txapelketako partida guztiak galdu zituzten, baita maila ere. "Urte gogorra izan zen, baina baita aberasgarria ere. Asko ikasi genuen, eta jokalariak gogortzeko balio izan zuen. Aurten, bi maila beherago gaude, eta ziklo berri baten hasieran. Partiduz partidu goaz, eta momentuz bi garaipen, bi porrot eta berdinketa bat egin ditugu. Nondik gatozen kontuan hartuta pozik gaude emaitza horiekin, eta futbolarekin gozatzen ikusten ditut neskak".

OHOREZKO ERREGIONALA
JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaletak 5-0 irabazi du

Denboraldiko seigarren garaipena lortu zuen atzo, domeka, Aretxabaletako taldeak. Valleren mutilek bolada onean jarraitzen dute, eta lider Ohorezko Erregional mailako txapelketan. Tolosa izan zuten aurrez aurre, eta aurkaria ezer gutxi egiteko gauza izan zen, Ibarran. Hurrengo astean, Eztalan jokatuko dute Aretxabaletakoek.

PREFERENTEA
JOSETXO ARANTZABAL

Mondrak 2-1 irabazi dio Lazkaori

Mondrak ere garaipena lortu du aste bukaeran. Denboraldi hasiera honetan emaitza hobeak lortu dituen Lazkao taldearen bisita izan zuen atzo, domeka, Mojategin. Arrasatearrek bi gol egin zituzten eta 2 eta 1eko emaitzarekin urrezko hiru puntu eskuratu. Soraluze izango du hurrengo arerioa Mondrak.

Iker Barbero saskiaren azpian, aurkariak begira dituela. | IMANOL SORIANO

EBA MAILA

Defentsa indartu behar dute EBAn partiduak irabazteko

- MUk galdu egin zuen etxean jokatutako lehenengo norgehiagoka
- Zale asko joan zen Iturripera eta euren babesa erabatekoa izan zen

EMAITZA

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
99-102
MIKELDI

FITXA TEKNIKOA

MU: Arantzabal (12), Zeziaga (15), Atxa (9), Barrena (4), Barbero (14), Arejolaleiba (12), Saez de Cortazar (9), Barberena, Lorenzo (2), Kintana (11), Atxa, Balantzategi (11).

Mikeldi: Oianguren (38), Gomez, Ortiz de Zarate (9), Lorenzo (15), Andia, Guerrero (4), Martin (9), Garzon (2), Lucic, Cuadra (20) eta Bereziartua (5).

Beste: 1. laurdena: 21-23; 2. laurdena: 40-52; 3. laurdena: 64-77; 4. laurdena: 99-102.

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Zapatuan estreinatu ziren Ointxe taldeko jokalariak zaleen aurrean. Valladoliden ezustekoa eman ostean, etxean irudi ona emateko gogoz atera ziren kantxara Josu Larreategiren mutilak. Lehenengo laurdenean, gauzak ongi egin zituzten. Markagailuan aurretik jarri ziren eta aldeari eutsi zioten ia denbora guztian zehar. Azkeneko 30 segundoetan, baina, Mikeldiko jokalariek markagailuari buelta eman eta 21-23 aurreratu ziren.

Bigarren laurdenean jaun eta jabe izan ziren bilbotarrak. Etxeko taldeak lan txarra egin zuen defentsan; batez ere errebotean ibili ziren gaizki. Hala, erreboteak aprobetxatu zituzten eta bigarren aukeran sartu zituzten saskiratze asko. Taula azpiko jokoaz gain, kontraerasoan ere oso ondo ibili ziren bilbotarrak.

Alde handiegia

Atsedenaldira 12 puntuko aldearekin joan ziren bilbotarrak. Aldagelatik bueltan, etxeko mutilek gogoz hasi zuten hirugarren laurdena. Aldea murriztea lortu zuten, eta lau puntuko aldearekin jarri ziren. 51-56 zeudela, jaurtiketa librea izan zuten alde arrasatearrek; hala, hirugarren minuturako 54-56 hurbildu ziren markagailuan. Baina, ondoren, aldea berriro ere handitzen joan zen, 15 puntukoa izan arte.

Azkeneko laurdenak intentsitate handia izan zuen. Etxeko jokalariek azkeneko segundora arte borrokatu zuten eta eskura izan zuten garaipena; baina, hiruko jaurtiketa ez zen saskian sartu. Gainera, taldea partiduan sartuta egoteko arrazoietako bat zaleen babesa izan zen. Iturripera joandako zaleek gogoz animatu zuten taldea. Ozen entzun zen euren ahotsa; bai taldea animatzerakoan, eta baita aurkariak urduri jartzerakoan ere.

Defentsa gogortu beharra

Lehia polita izan zen zapatukoa. Arrasatearrak gustura geratu ziren egindako lanarekin, baina aitortu zuten "astean lan egin beharko dugu defentsa zuzentzen".

Hasi berri den denboraldiari begira baikor dago Josu Larreategi entrenatzailea. "Liga oso parekatua izango da", dio. Bai entrenatzailea eta baita jokalariak ere ados daude, batez ere etxeko partiduetan atera behar dituztela puntuak. Indartsuak izan behar dira Iturripen eta horretarako, zaleen babesa izango dute.

Babesle berria: Bereiker

Ointxek MUz gain, babesle berria izango du aurten: Bereiker.

JOSU LARREATEGI
ENTRENATZAILEA

"Defentsan zulo asko utzi ditugu eta oso samur sartu dituzte saskiratzeak, bai kontraerasoan eta baita azpiko taulan ere. Konfiantza hartu dute, eta guk aldiz, ez dugu erraztasunik izan erasoan. Hala ere, hiru aldiz gora egin dugu eta aldea murriztea lortu dugu, baina ezin izan dugu lehia berdindu".

IMANOL ZEZIAGA
JOKALARIA

"Bigarren laurdenean eurak oso ondo ibili dira; korrika asko egin dute eta errebotean fin ibili dira. Guk ez dugu lan ona egin defentsan. Hala ere, uste dut partidu polita izan dela eta zaleek asko animatu gaituztela. Zaleen babes barik ezin izango ginateke partiduan sartuta egon azkeneko minutura arte".

MIKEL AREJOLALEIBA
JOKALARIA

"Nahiz eta 16 puntugatik galtzen joan azkeneko segundoan hirukoa sartu eta lehia irabaztekotan egon gara. Aurkariak ondo ibili dira, batez ere errebotean, eta guk ez dugu defentsa lan ona egin. Gure helburua da aurkariak 60 puntutik behera egitea, eta gaur 102 sartu digute. Atera kontuak! Nahikoa lan dugu astean zehar egiteko".

GORKA KINTANA
JOKALARIA

"Defentsan gaizki ibili garen arren, behintzat azkeneko momentura arte borrokatu dugu. Defentsan lan txarra egin dugu. Puntu asko jaso ditugu; hori horrela, gu ere derrigortuta gaude puntu asko egitera, eta horretarako oso fin ibili beharra dago. Gaur lortu dugun arren helburua da horrenbeste puntu ez jasotzea".

BIGARREN MAILA

Natra Oñatik samur irabazi zuen lehia zapatuan Portugaleten

Oñatiarrak Portugaleteko taldea baino askoz hobeak izan ziren zapatuan. Samur irabazi zuten lehia: 40-91, hain zuzen. Natra Oñatik lan ona egin zuen eta arazo barik irabazi zuen denboraldiko laugarren norgehiagoka. Dagoeneko hiru partidu irabazi dituzte eta sailkapen orokorrean bigarrenak dira, 7 punturekin.

GIPUZKOAKO MAILA

Grosen aurka 39-23 galdu zuten Eskoriatzarrek

Eskoriatzako neskak puntu bakarrarekin itzuli ziren egubakoitzean Manteo kiroldegitik. Bera Bera Gros taldearen aurkako lehia 39-23 galdu zuten. Eskoriatzarrek hiru partidu jokatu dituzte eta bakarra irabazi dute. Sailkapenean seigarrenak dira, 4 punturekin. Hurrengoa Cafes Aitonaren aurka izango da.

GAZTE MAILA

Eskoriatzako gazteek Cafes Aitona mendean hartu zuten zapatuan

Gazte mailako taldeak lan txukuna egin zuen zapatuan Manuel Muñoz kiroldegian. Cafes Aitona Askatuak Adarra taldearen aurka 50-37 nagusitu ziren. Hori horrela, hirugarren postuari eusten diote eskoriatzarrek: bi partidu jokatuta hiru puntu lortu dituzte. Datorren astean atsedena izango dute.

KADETE MAILA

MU C taldeak 53-40 galdu zuen Ordiziaren aurka zapatuan

Ointxe taldeko gaztetxoek ezin izan zuten garaipenik ekarri Ordiziatik. MU C taldeak 53-40 galdu zuen zapatuan. Bi partidu jokatu dituzte dagoeneko eta arrasatearrek ez dute garaipenik lortu. Datorren astean ez da izango ligako partidurik; eta azaroaren 9ko aste bukaeran, atsedena izango du MU taldeak.

KADETE MAILA

Bergarako taldeak 43-27 galdu du Andoaingoaren aurka

Kadete partaidetza mailako bigarren multzoan dagoen Soraluze Bergara taldeak ezin izan zuen garaipenik ekarri Andoaindik zapatu goizean. 43-27 galdu zuten bergararrek; hala, denboraldiko bi lehiak galdu dituzte. Datorren asteko atsedenaren ondoren, azaroaren 9ko aste bukaeran Urretxun jokatuko dute Goierribusen aurka.

Familiendako antolatutako triatloia; batzuk parte hartzen, eta beste batzuk espaloietatik animoak ematen. | JOSETXO ARANTZABAL

'KIROLA KALERA' EGUNA

Hogei talde animatu ziren familiendako lehen triatloian parte hartzera atzo, Bergaran

- Udal Kirol Zerbitzuek 'Kirola kalera' egunerako egindako berrikuntzek harrera ona izan zuten
- Umeek gozatu zituzten gehien jolasak, eta ikusmin handia sortu zuen Markel Uriarteren erakustaldiak

LARRAITZ ZEBERIO | BERGARA

"Familia giroa egon da, eta hori zen sustatu nahi genuena". Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuetako arduradun Iñaki Ugartebururen hitzak dira, eta gustura agertu da atzoko *Kirola kalera* egunak emandakoarekin. "Esan daiteke bete dugula helburua. Egiten dugun balorazioa oso positiboa da".

Familiak kirol jarduerak egitera mugitu nahi zituzten, eta aukera zabala eskaini zuten atzo, domeka, Bergaran. Oreka jokoak, bizikleta eliptikoak, malabarismo jokoak, bizikletan eta patinetan ibiltzeko jolasak... Horiek eta gehiago egon ziren Mintegiko jolastokian zein Ibargarai kalean, eta neska-mutikoak gustura. Apur bat lotsatiagoak izan ziren gurasoak nahiz eta bakarren bat parte hartzera animatu zen.

Orbea Enduro Crew taldeko Markel Uriarte aretxabaletarrak erakustaldia egin zuen. Bizikleta gainean duen trebeziarekin zur eta lur utzi zituen ikusleak, eta jende mordoa batu zen hark egindako itzulipurdiak ikusteko.

Triatloia guztiendako

Kirola kalera eguneko berrikuntza nabarmenena familiendako triatloia izan zen. Azkenean, hogei taldek hartu zuten parte, eta korrika irten, bizikletan jarraitu eta patinete gainean amaitu zuten zirkuitua. Ez zen lasterketa izan, eta haurrak zein helduak gustura ibili ziren ikusleen animo artean. Triatloian parte hartu zuten neska-mutiko guztiak jaso zuten domina amaieran, eta familia parte-hartzaileen artean urtebeterako bi familia-abonu zozketatu zituzten. Badiola eta Eguren familiendako izan ziren sariak.

Forman egoteko, bestalde, garrantzitsua da ondo elikatzea, eta atzokoan parte-hartzaileek fruta eta ura eskura izan zuten doan eta goiz osoan zehar.

Triatloia hasi aurretik Markel Uriarte bizikleta erakustaldia egiten. | L.Z.

Hitzaldia eguenean

Bestalde, eguenean, hilak 30, *Familia, futbola eta formazioa* delako hitzaldia egingo dute Bergaran, Realaren formazio taldeen arduradun Luki Iriartek eta Eibarko idazkari tekniko Fran Garagartzak. Kirol profesionalean eta maila apalagoetan duten esperientziaz jardungo dute biek. Futbola izango da kirol protagonista, baina kirol guztietako pertsonendako luzatu dute gonbitea. Hitzaldia Irizar jauregian izango da, 19:00etan.

AINHOA GALLASTEGI
BERGARA

"Gauza asko dago egiteko eta gustatu zait jaialdia. Sokaren gainean ibiltzea oso polita iruditu zait, eta behin eta berriz saiatu naiz. Oreka mantendu behar da".

IÑAKI ALBERDI
BERGARA

"Gure gaztaroan ez zegoen horrelakorik, eta oso gutxitan ibiltzen ginen jolasean gurasoekin. Orain badago aukera hori, eta ekimen polita iruditzen zait.".

NAHIA GAZTELU
BERGARA

"Bizikleta eliptikoetan ibili naiz baita oreka mantentzeko guneetan ere. Gustatzen zait kirola egitea, eta bizikleta horiek oso dibertigarriak iruditu zaizkit".

LANDER TENA
BERGARA

"Gauza asko egon dira, eta berriak batzuk. Oso gustura ibili naiz lagunekin. Bizikleta eliptikoetan ibili naiz gehien oso dibertigarriak direlako".

MIREIA GALLASTEGI
BERGARA

"Egun polita da eta umeekin kirola sustatu arren animatu gara triatloian parte hartzera. Aukera polita da ondo pasatzeko. Umeak ere gustura etorri dira".

Jarduera eskaintza zabala aukeran

Errege Mintegiko jolastokian kirolarekin zerikusia duten jarduerak egiteko aukera zabala egon zen, atzo, 11:00etatik bazkaltzeko ordura arte. Bizikleta eliptikoek arrakasta handia izan zuten neska-mutikoen artean, baita Zurrumurru antzerki taldearen zirku tailerrak ere. Bestalde, herriko hainbat taldek bat egin zuten ekimenarekin. Hala, patinen gainean egin daitezkeen jarduerak erakutsi zituzten Hanka Labanka irristaketa taldeko kideek, eta bizikletaren gainean egin daitezkeenak Lokatza Ziklismo Eskolako lagunek.

Oreka jokoak egiteko aukera izan zen Mintegiko patioan. | LARRAITZ ZEBERIO

Bizikleta eliptikoek arrakasta handia izan zuten umeen artean. | LARRAITZ ZEBERIO

MENDI BIZIKLETA

Inguruko parajeekin gozatu dute Mondran Bike martxa egindakoek

300 txirrindulari baino gehiago elkartu ziren zapatu goizean Arrasate inguruko basoetan

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Gustuko tokian aldaparik ez, eta egonda ere aise igotzeko gai izan ziren zapatu goizean Mondran Bike mendi martxa egiteko elkartutakoak. 300 txirrindulari baino gehiago hasiera puntuan; izan ere, Arrasateko martxa inguruko politenetakoen artean dago txirrindularien esanetan: "Paraje benetan politak daude. Gainera, beste batzuk baino ibilbide teknikoagoa da".

Jende pilaketak motel joatea eragin zuen lehen kilometroetan, baina poliki-poliki, bakoitza bere martxa hartzen joan zen, bere abiadura, eta orduan hasi ziren disfrutatzen txirrindulariak.

Enduro bonus jaitsiera

Musakolatik irten eta Bedoñara artean ibilbide berbera egin zuten guztiek, eta han motza edo luzea hautatzeko aukera izan zuten. Motza gurago izan zutenek 22 kilometro egin zituzten, 800 metroko desnibelarekin. Horien artean Naiara Corcuera izan zen: "Antzolatzaileei esan nien ibilbide motza, benetan motza egiteko, martxa popularragoa izan dadin eta neska gehiago anima daitezen. Gaur hiru edo lau bakarrik izan gara".

Ibilbide luzea aukeratutakoek, ostera, 34 kilometro egin zituzten, 1.150 metroko desnibelarekin eta tartean enduro bonus jaitsiera bat zegoen –hori ere aukeratzeko–. "Gogorra da jaitsiera, eta bizikleta ondo erabiltzen jakin behar da, baina era berean, asko disfrutatzen da", zioten antolatzaileek.

Ezustekorik eta aparteko istripurik gabe bukatu zuten martxa txirrindulariek. Eta ordu bi baino lehen asko Musakolan ziren berriro, Besaide mendizale elkartekoek eskainitako mokadutxoa jateko gertu.

Txirrindulari guztiak elkarrekin Musakolako irteera puntuan. | IMANOL SORIANO

Basoan gora hainbat txirrindulari. | I.S.

Martxa bukatu ostean mokadutxoa jaten hainbat. | M.A.

IMANOL GARCIA
ANTOLATZAILEA

"Eguraldi ederra eta txirrindulariak oso gustura ibili dira. Ez da egon aparteko arazorik, nahiz eta bat edo beste jausi. Ibilbidea ondo zegoen, euririk ez du egin-eta, horrek erraztu egiten du beti martxa".

NAIARA CORCUERA
ARRASATE

"Ibilbide motza aukeratu dut, badaezpada, ez nuen sufritzeko gogorik eta. Zati batzuk ezagutzen nituen aurretik, baina osoa gaur egin dut eta gustura, lasai-lasai. Jausi egin naiz baina ez dut aparteko minik hartu".

IGOR VAZ
ARRASATE

"Luzea egin dut, enduro bonus jaitsiera eta guzti, eta asko disfrutatu dut. Inguruko martxetatik politena da, eguraldi ederra izan dugu, gainera. Udazkenean martxa mordoa dago eta gustura jarduten dut".

IBAN AIALA
ESKORIATZA

"Oso martxa polita izan da, inguruko paraje asko ezagutzeko aukera ematen du-eta. Luzea egin dut, baina enduro bonus jaitsiera egitera ez naiz animatu. Bidea txukun zegoen, lokatz barik, eta gustura ibili naiz".

MIKEL SEBASTIAN
ARETXABALETA

"Ibilbide luzea gogortxoa izan da, aldapa eta jaitsiera askorekin, baina oso gustura ibili naiz. Arrasatekoa ezagutzen dut, teknikoa da, eta gustuko dut. Astean behin behintzat egiten dut halako martxa bat".

ERRUGBIA

Liderra samur hartu dute mendean arrasatearrek 41 eta 5 irabazita

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Partidu bikaina jokatu zuten atzo goizean Igor Isasiren mutilek Mojategin. Gernika hartu zuten aurrez aurre; eta, liderraren aurrean kikildu beharrean, euren onena atera eta samur gailendu zitzaien. Talde joko ona egin zuten, bai defentsan eta baita erasoan ere.

Bi taldeetako jokalariak lehian. | JOSETXO ARANTZABAL

10. minuturako 3 eta 0 aurretik ziren etxekoak. Ondoren, entsegu bat sartu zuten, markagailua 8 eta 0 ipiniz. Lehenengo zatiko azken 3 minutuetan Gernikak egin zuen entsegua: 8-5.

Bigarren zatian, bost entsegu

Bigarren zatian bost entsegu egin zituzten etxekoek, markagailua 41 eta 5 ipiniz.

Garaipenarekin, Arrasate errugbi taldeak lidergoa hartu du. 14 puntu izatetik 19 izatera pasatu dira; eta Gernikak 15 punturekin jarraitzen du. "Iaz Gernikak ez zuen taldea atera eta horregatik ez genekien nolakoak izango ziren", zioen partidu amaieran Isasik. "Garaipen garrantzitsua" izan zela gaineratu zuen.

Datorren astean Bilbon defendatu beharko dute lidergoa arrasatearrek. "Bilboko taldea ere ez dugu ezagutzen", azaldu du Isasik. Arrasatearrek euren jokoa egitera joan beharko dute.

ESKUBALOIA

Gol bateko abantailaz irabazi du Ford Mugarrik Askartzaren aurka

A.E. | ARRASATE

Ford Mugarrik 26-27 irabazi zuen zapatuan Quiron Askartzaren aurka. Arrasatearrek lan ona egin zuten, eta modu horretan, denboraldiko laugarren garaipena lortu.

Sei partidu jokatu dituzte eta bederatzi punturekin sailkapeneko bosgarren tokian daude arrasatearrak –16 talde dira–. Datorren astean Uharte hartuko du Arrasateko taldeak Iturripeko kantxan.

Aloña Mendi elkartea

Euskadiko txapelketan, Aloña Mendiko neskek galdu egin zuten Aialaren aurka, 23-21. Modu horretan, oñatiarrek sailkapeneko bosgarren tokian jarraitzen dute lau punturekin, lau partidutatik bi irabazi ostean. Mutilen senior mailan, Gipuzkoako txapelketan, Izarraitz Aloña Mendik 28-19 irabazi dio Amenabarri. Bi aste barru Urolaren aurka lehiatu beharko dira oñatiarrak.

Soraluce Bergara

Bergarak emaitza txarra izan du aste bukaerako lehian. Bidasoa Irunen aurka 31-20 galdu zuten mahoneroek. Hala, sailkapeneko erdialdetik behera jarraitzen dute bergararrek, hamaikagarren tokian, hain zuzen. Izan ere, lau partidu jokatu dituzte eta horietatik bakarra irabazi; beste hiruak galdu egin dituzte.

Datorren astean seigarren jardunaldia jokatuko dute. Bergarak Erandioko taldea hartuko du Labegaraietan.

SQUASHA

Alberto Ferreiro eta Laura Saez nagusi Euskal Ligako txapelketan

49 jokalarik jardun dute norgehiagokan asteburuan Arrasateko kiroldegian

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Ake Squash Euskal Liga txapelketa jokatu zuten egubakoitz eta zapatuan Arrasateko Musakolako kiroldegian. 49 jokalarik jardun zuten norgehiagokan, horietatik 29 gipuzkoarrak; hamabi, arabarrak; sei, bizkaitarrak; eta bi, nafarrak.

Egubakoitzean lehen fasea jokatu zuten 30 jokalarik, eta ez zen ezustekorik izan. Final hamaseirenak ere uste bezala joan ziren eta Patxi Zuluetak izan ezik, gainerako buru guztiek egin zuten aurrera. Baita final zortzirenetan ere; Harriet Arenaza bakarrik jausi zen.

Zapatuari ekin zioten kontsolazioko partiduekin eta final laurdenekin. Final aurrekoetan Alberto Ferreirok irabazi zion Jorge Amestoyri (3-1) eta Liam Kanek Sergio Salgadori (3-1). Hortaz, finala Ferreiroren eta Kaneren artean jokatu zuten. Lehen eta hirugarren jokoetan berdinduta ibili ziren, baina azkenean hirurak Ferreirorendako izan ziren (3-0).

Emakumeen norgehiagoka ere jokatu zen zapatuan. Sei parte-hartzaile izan ziren, eta Laura Saez nagusitu zen partidu guztiak irabazita.

Jokalari bi lehia estuan. | ARITZ GORDO

Txapeldunak eta beste hainbat jokalari eta antolatzaile. | ARITZ GORDO

MENDIA

JOSETXO ARANTZABAL

Mendien argitasunean Huberrekin

Alexander Huber Alemaniako eskalatzaile entzutetsuak *Mendien argitasuna* ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen atzo, iluntzean, Oñatin. Sokarik gabe eskalatu izan duelako ezaguna den mendizalea Aloña Mendikoek gonbidatuta etorri zen, eta argazki dotoreak eta sekuentzia zinematografikoak eskaini zituen musikaz lagunduta.

ATLETISMOA

Soraluze-Bergara X. Antxintxika Lasterketarako izen-emate epea egubakoitzean itxiko dute

Domekan, azaroak 2, jokatuko da Soraluze eta Bergara arteko X. Antxintxika Lasterketa. Izena emateko azken eguna egubakoitza, urriak 31 da, *www.kirolprobak.com* webgunean. Hala ere, antolatzaileek, Antxintxika taldeko kideek, jakinarazi dute 500 lasterkari bakarrik onartuko dituztela. Ibilbideak 10 kilometro ditu eta azken urteotako berbera da. Proba 11:30ean hasiko da Soraluzen; aurretik (11:00) gurpildun ahulkian dabiltzanek irtengo dute eta gero patindunek (11:15).

Asier Garitano | Leganes futbol taldeko entrenatzailea

"Bigarren Mailara helduta umilak izan behar dugu, baina, batez ere, lehiakorrak"

- Bergararrak Bigarren B Mailatik Bigarren Mailara igo zuen iaz talde madrildarra
- Laugarren denboraldia du lehen entrenatzaile lanak egiten: Orihuela, Alcoy eta Leganes

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Asier Garitano (Bergara, 1969) Leganes futbol taldeko entrenatzailea da. Bigarren B Mailatik Bigarren Mailarako igoera lortu zuen iaz, eta horren aitortza jaso zuen Vicente del Bosqueren eskutik: Rafael Cobo saria. Aitortzaz, Leganesez eta egungo futbolaz egin du berba.

Gustura jasotzen dira halako sariak?

Zalantza barik, bai. Lortutako igoerarengatik eta taldeak igoera lortu zuen moduarengatik eta erakutsitako jarrerarengatik jaso genuen saria. Eta hori diot, nik jaso arren, nirekin egunero lan egiten dutenen saria ere badelako: teknikari, jokalari, elkarteko langile… Eta Cobo saria bereziki baloratzen dut nire lankideek emandakoa delako. Epaimahaian Nazional Mailako entrenatzaile direnak daude. Igoera bai, baina bereziki talde izaera eta lana baloratu dizkigute.

Bigarren B Mailatik Bigarren Mailara. Hori zen helburua?

Ez genuen helburururik zehaztu. Leganesera heldu nintzenean, hutsetik hasi behar izan nuen lanean. Ordura arte kluba enpresa baten eskuetan zegoen eta Huescara joan ziren taldea utzita. Kontratua sinatu nuenean bost jokalari zeuden taldean, eta haietatik hiruk ez zuten gurekin jarraitu.

Hori horrela, hutsetik hasi nintzen, kirol arloan, eta baita azpiegitura arloan ere. Helburua zen taldea osatzea eta, batez ere, zaleengana heltzea. Hamabostean behin Butarque zelaia beteta ikusteko ahaleginean hasi ginen, eta helburu txikiak betetzen joan ginen, poliki-poliki. Emaitzek ere lagundu ziguten, eta, liga bigarren lekuan bukatu ostean, igoera lortu genuen.

Badakigu nekeza izango dela, baina, igoera lortuta, orain, iaz hasitako bideari jarraipena eman behar diogu.

Bigarren B Mailatik Bigarrenera aldaketa handia dago?

Bigarren Maila maila profesionala da. Aldaketa asko daude: aurrekontuak, entrenatzeko eta jokatzeko instalazioak, lanerako teknikari gehiago behar dira… Klubarendako aldaketa handiak dira eta, gainera, astero-astero, lehiatu behar dugu. Emaitzek ipiniko gaituzte merezi dugun lekuan.

Igo berri den taldea izanda, helburua mailari eustea izango da?

Ez naiz helburuak ipintzearen aldekoa. Ez dut epe luzerako helburuetan sinesten. Asteroko partidua da gure helburua. Ondo lehiatu behar dugu. Iaz nirekin egon ziren hamabost jokalari ditut eta jarrera berberarekin egingo dugu lan, eta ikusiko dugu noraino heltzeko gai garen.

Partiduz partidu orduan?

Bai, horixe da futbolaren errealitatea. Iaz, modan ipini zuen Cholo Simeonek, baina betidanik futbolean egon izan den kontzeptua da. Leganesen bide onetik goazela uste dut.

Lehenengo Mailan jokatu duten talde askoren kontra lehiatuko zarete. Zuen maila nolakoa den neurtzeko partiduak izango dira?

Egun, Bigarren Mailan dauden taldeetatik hamalauk inoiz jokatu izan dute Lehen Mailan. Talde horien kontra lehiakorrak izan behar dugu. Sportingen kontra azken minutuan galdu genuen, eta Betisen kontra irabazi. Emaitzengatik harago, lehiatzeko gai izan ginela azpimarratuko nuke. Betisek, Valladolidek eta Las Palmasek kalitate puntu bat gehiago dutela uste dut. Euren atzetik ibiliko dira Mallorca, Osasuna, Zaragoza… eta ostean, gainerako guztiak.

Maila honetara helduta umilak izan behar dugu, baina lehiatzeko gai izan behar dugu. Nire jokalariei Eibar ipintzen diet adibide moduan. Bi urtean Bigarren B Mailatik Lehen Mailara heldu dira, eta, klub umila izanda ere, Atleticoren eta Bartzelonaren kontra lehiatzeko gai izan dira. Hori da gure bidea.

Eibar aipatu duzula, hango jokalari izan zinen zu ere!

Eta Gaizka Garitanorekin kointziditu nuen han. Bi etapatan jokatu nuen Eibarren: lehena 23 urterekin. Klubak bilakaera ikusgarria izan du, barrutik eta kanpotik. Nik oso oroitzapen onak ditut eta guretako ispilu bat da: lana ondo eginda, helburu handiak lor daitezke. Hori erakusten du Eibarrek.

***Garitano* abizena bogan dago orain, Gaizka Garitanori esker.**

Hala da, eta asko pozten naiz harengatik. Askotan nahasten gaituzte. Senitartekoak garela uste dute askok. Lezaman topo egin genuen jokalari ginenean: Gaizkak, Anderrek eta hirurok. Ostean, Eibarren egon nintzenean ere han zegoen Gaizka. Ez dugu ahaidetasunik: ni bergararra naiz eta haiek bizkaitarrak. Dena den, hartu-emana badaukagu, eta asko pozten naiz egiten ari den lanarekin. Ondo lan eginda, helburuak bete ahal direla erakusten du horrek.

Asier Garitano bergararra, Leganes taldeko txandalarekin. | LEGANES FUTBOL TALDEA

"Bigarren Maila maila profesionala da eta aldaketa izugarria izan da"

"Ez naiz helburuak ipintzearen aldekoa; partiduz partidu joango gara"

"Eibar ispilua da: lana ondo eginda, helburu handiak lor daitezke"

"Bergarara entrenatzaile? Maletak beti gertu ditugu"

Leganesera heldu aurretik, hainbat taldetan egon zara entrenatzaile.

Aurtengoa dut laugarren denboraldia entrenatzaile nagusi moduan. Aurretik Orihuelan eta Alcoyn egon nintzen. Orihuelan igoera fasea jokatu genuen, eta Alcoyn egon nintzen urtean Real Madrilen kontra jokatu genuen Kopa Txapelketa. Esperientzia itzelak izan ziren. Curriculumerako oso onak.

Bigarren entrenatzaile lanak egin nituen Alacanten. Han bukatu nuen nire futbol jokalari ibilbidea, eta han hasi nuen entrenatzaile ibilbidea.

Entrenatzaile moduan Lehenengo Mailara heltzeko esperantzarik badaukazu?

Oso zaila da Lehen Mailara heltzea. Entrenatzaile bat kaleratzen dutenean, hautagaien zerrendan agertzen direnak betiko entrenatzaileak dira. Zirkulu itxia dela esango nuke. Ezagunen batengatik ez bada, zaila da Lehen Mailan muturra sartzea. Bigarren Mailan ere zaila da. Biak ala biak maila profesionalak izanik, ez da erraza muturra sartzea. Hortaz, behin Bigarren Mailara helduta, aukera aprobetxatu beharko dut.

Gauzak ondo doazenean entrenatzaile lana ederra ei da. Egoera okertzen denean, ez horrenbeste!

Horrelakoa da entrenatzaileon lana. Emaitzen esku gaude. Nik, zorionez, ez dut futbolaren alderdi txarra bizi izan, baina hori heltzen denerako prest egon gurako nuke.

10 urterekin joan zinen Lezamara eta handik eraiki duzu futbol jokalari eta entrenatzaile bidea. Ametsa bete duzu?

Baietz esango nuke. Lehenengo, futbol jokalari izan nintzen 13 urtez. Alacanten bukatu nuen jokalari ibilbidea eta han hasi nintzen bigarren entrenatzaile moduan. Gustuko lana daukat, eta ezin naiz kexatu. Ea, bada, luzerako lanbide dudan entrenatzaile lana. Gaur egun ere, mutiko guztiek gura dute futbol jokalari izan, eta gutxi batzuek betetzen dute ametsa. Nik bete nuen.

Etorkizunean Bergarara itzultzeko asmorik?

Urtean hiruzpalau aldiz joaten naiz familia ikustera, baina ez dakit entrenatzaile lanetarako joango naizen.

Entrenatzaileok beti ditugu maletak gertu eta batek daki non egongo naizen bihar edo etzi. Egia da Bergaran ez dudala futbolean jokatu, eta, akaso, entrenatzaile ibilbidea bukatzeko aukera polita izango litzateke.

KULTURA

Taldekako argazkien ostean argazki erraldoia atera zuten Herriko Plazan. | IMANOL SORIANO

Dantzan jarraitzen du Lore Gazteak taldeak

Lehen promozioko dantzariek omenaldia jaso zuten zapatuan egindako 50. urteurreneko festan

Lehen dantzariek omenaldia jaso zuten. | IMANOL SORIANO

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Txaloak, barreak, animoak, malkoak, musuak, nerbioak... Zirrara berezia zuten soinean zapatu eguerdian Lore Gazteak dantza taldeko kideak. Oraingo eta lehengo dantzariak. Izan ere, denak elkartu ziren Arrasateko dantza talde horren 50. urteurrena ospatzeko. Azken egunetako entseguetan lesionatu zirenak ere han ziren, hutsik egin barik.

Herriko lau puntu ezberdinetatik atera ziren, Seber Altuben elkartzeko. Handik, Iturriotz kaletik gora, elkarrekin joan ziren Herriko Plaza Ngusiraino, kalejiran. Musika eta dantza lagun zutela, nola bestela. Behin plazara helduta, dantzan egin zuten. Ordurako, lagun, senide eta bestelako herritar asko zeuden plazan jarritako hesien ostean, argazki kamerak eskuan zituztela.

Aurreskuarekin hasi

50 urte hauetan hil diren taldeko kideen omenez egin zuten lehen dantza. Aurreskua. Eta belaunaldi ezberdinetako dantzariek egin zuten, elkarrekin. Tartean zen Kike Gomez de Segura ere, Lore Gazteak taldearen sortzaileetako bat. Markinarra izanik, bizkaitar erara dantzatu zuen aurreskua.

Haren ostean mutilek egin zituzten hiruzpalau dantza, egungo taldeko neska-mutilek haien segidan, eta hala, taldeka, beste makina bat dantza: makilekin, ezpatekin, arkuekin... Dantza taldea utzita dutenek ere egin zuten saioa, egun kanpoan bizi direnak ere etorri ziren lehengo taldekideekin batera egotera eta egunaz disfrutatzera; bikain jardun zuten guztiek. Taldeak 50 urte egin arren, bertako kideei ez zaie oraindik ahaztu ez dantzan egiten, ezta oinetan zeramatzaten alpargaten sokak lotzen ere.

Eguerdiko dantzen ostean omenaldia egin zieten lehen urtetako dantzariei eta taldeko argazkiak atera zituzten gero plazan bertan. Handik Uarkape frontoira joan ziren, bazkaltzera. 250 lagun elkartzea espero zuten. Behin indarrak berreskuratuta iluntzeko erromerian eta kaleko giroan gastatu zituzten askok.

BEÑAT BARRUTIA
DANTZARIA

"Lehengo maiztasunarekin ez naiz joaten dantzan egitera, baina taldekoa naiz oraindik. Gaur, elkarrekin dantzan ibilitako asko elkartu gara. Kanpoan bizi direnak ere etorri dira eta egun oso polita izan da guztiondako".

EUGENIO OTSOA
DANTZARIA

"Lore Gazteak ginen lehen eta Lore Gastatuak orain, baina Loreak, hala ere. Duela urte gutxi Mexikon egin nion aurreskua, bizkaitar erara, Jon De Luisa Sasetari, gerrako erbesteratu baten semeari".

IZAR MENDIKUTE ETA IZASKUN ARREGI
DANTZARIAK

"Lehen promoziokoak gara gu. Ez dugu ondo oroitzen noiz hasi ginen, baina bai 1968ko alardean parte hartu genuela. Orduko dantzak eta doinuak gogoan ditugu oraindik, koreografia ez horrenbeste, baina tira, disfrutatzera etorri gara. Txaloekin hunkitu egin gara, dantza berriak ikasi ditugu... Ederra gaurko eguna, benetan".

OLATZ ZUAZUBIZKAR ETA MARKEL ZUBIA
DANTZARIAK

"Txikien taldeko kideak gara. 26 bat gara guztira eta gaur hemen egotea gura izan dugu besteekin batera. Astean ordu eta erdiko entsegua izaten dugu eta gustura joaten gara. Izan ere, dantzan egitea gustatzen zaigu. Egiten ditugun dantza gehienak taldekoak dira, ez bakarkakoak, eta gustura gabiltza. Gaur ere oso ondo pasatu dugu".

Amets Ormaetxea eta Irati Gutierrez jaialdian. | LARRAITZ ZEBERIO

Imuntzo eta Beloki bikotea. | IMANOL SORIANO

Kepa Junkera eta Sorginak. | LARRAITZ ZEBERIO

LEIRE ETXEZARRETA
TRIKITI IKASLEA

"Txapelketak egiten dira, baina mota honetako saioak ez hainbeste. Aspaldian jendaurrean ikusi bako trikitilariak ere egon dira. Eta oso polita izan da, asko gustatu zait".

JUAN R. IMUNTZO
TRIKITILARIA

"Bakoitzak bere ekarpena egin du eta aberasgarria izan da. Iruditzen zait, gainera, badagoela publiko bat horrelako jaialdiak ikusteko gosez dagoena. Sumatu egiten da eta, noski, oso pozgarria da".

Panderoaren taupadaz eta trikitiaren jolasaz, gozamena

- Belaunaldi eta estilo ezberdinetako trikitilariek bat egin zuten Oñatin
- Ehun urtetik gorako koplak, rock doinuak... ba ote dago mugarik?

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Luxua izan zen zapatukoa edozein trikiti zaleturendako. Oñatiko Lizargarate elkarteak antolatutako jaialdia bi ordu pasatxoko gozamena izan zen, eta aspaldiko partez uneko trikitilari esanguratsuenak jaialdi berean elkartuta ikusteko aukera bakarrenetarikoa.

Estilo eta eskola oso ezberdinek bat egin zuten emanaldian, baita trikitilari belaunaldi ezberdinek ere. Iker Zubeldiak eta Iban Urdangarinek bertsotan eta umoretik aurkeztutako jaialdian izan ziren: Irati Gutierrez eta Amets Ormaetxea; Imuntzo eta Beloki; Xabier Etxaniz eta Ainara Saizar; Kristina Olano; Agirrebeña anai-arrebak Jauregirekin; Kepa Junkera eta Sorginak; eta amaitzeko, Gozategi anai-arrebak.

Soinu txikia oinarri hartuta ia denetik entzun zen Santa Ana aretoan: ehun urtetik gorako koplak, biribilketak, trikitiak eta porrusaldak, reagge zein rock doinuak, dultze meneoak, pasodobleak...

Tradizionala zein modernoa, trikitilari eta pandero-jotzaileek argi erakutsi zuten soinu txikiarekin gauza berri asko egin daitezkeela oraindik ere, eta askok horretan dihardutela buru-belarri.

Publikoak ere horrela baloratu zuen, eta asko hunkitu ere egin ziren trikitilariek erakutsitako trebeziarekin. Hala, gazte zein nagusi, eskuzabalak izan ziren. Txalo egin zuten musikarien trebezia nabarmentzeko, eta irrintzi —bat egon zen— poza adierazteko. Noski, gustura hartu zituzten keinu horiek guztiek, trikitilariek eta pandero-jotzaileek.

Harrera bereziki ona izan zuten jaialdian Imuntzo eta Belokiren doinu jostagarriek, Xabier Etxaniz eta Ainara Saizarrek eskainitako pieza liluragarriek zein Kepa Junkerak, sei ikasle gazterekin batera, egindako eszenaratzeak. Belaunaldi gazteagoek ere eman zuten zer esana; infernuko hauspoa ez da galbidean.

Aipamen bereziak

Publiko zaletua elkartu zen, zapatuan, Santa Ana aretoan eta emanaldi bizia egin zuten trikitilariek. Ez zen aipamenik falta izan: Oñatiko moneta berria, herriko trikiti zaleek egindako lana... Gai asko irten ziren kopletan. Baita Araotz auzoko Primi Erostarberen omenez Imuntzo eta Belokik egindako aipamena ere. "Inoiz egon den irrintzilari bikainenetakoa, bikainena ez bazen", esan zuen Belokik.

Jaialdiaren ondoren, afaria egin zuten gaztelekuan, eta afalostean, zelan ez, erromeria izan zen Gari eta Iñakirekin, ospakizuna agurtzeko.

RIPeko Karlosi eta Porturi gertukoen keinua

Karteleko hiru taldeez gainera, publikoan zeuden zaleak ere taularen gainean

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Zapatuan batu ziren, bi urtean behin egiten duten moduan, RIP taldeko Karlos eta Porturen gertuko lagunak Arrasaten. Elkarrekin bazkaldu eta askotariko musika estilotako kontzertuaz gozatu zuten gero, La banda del Abuelo, Ladislao eta Screamer& Sinners taldeen eskutik.

Gehienbat, etxekoak kantuan

Hirukote formatuan eta zale gutxiren aurrean, dotore zabaldu zuen herriko La Banda del Abuelok gaua. Debagoieneko hainbat musikari batzen dituen Ladislaok hartu zuen gero lekukoa poliki -poliki zalez betetzen zihoan aretoan. Euren kantuak gainbegiratuz osatu zuten errepertorioaren zati nagusia eta Des-Kontroleko Magurekin batera kantatutako *Mundo Muerto* abestiarekin egin zioten RIPekoei keinutxoa.

Askorentzako sorpresa izan ziren Screamer& Sinners psikodelikoek borobildu zuten kartela; kantu propioez gainera, RIPen *Ahogate*, *Pisar la sociedad* eta *No hay futuro* jo zituzten.

RIPeko Karlos eta Porturen omenez, Ladislao taldearen emanaldia. | I. S.



Sueños de Arena ikuskizunaren amaieran, Borja Gonzalez panpinarekin ikusleak agurtzen. | JOSETXO ARANTZABAL

Zero en conductaren *Allegro ma non troppo* ikuskizun gordina. | IMANOL SORIANO

Katilukada saioa eginda, Mikel Ibarzabalek azalpenak eman zituen gero. | I. S.

Helduek eta haurrek, Mostrako txotxongiloekin goxo-goxo egin dute amets

- Txotxongiloak kalera ateratzeko aurtengo erronka, nota onarekin gaindituta
- Aterpe barruko ikuskizunek ere harrera ona; txartel guztiak salduta

A. ARANBURUZABALA | BERGARA

"Zoragarria izan da; ikusleen harrera ezin hobeak, artisten maila handiak, atzeko lanetan izan den lan-taldearen ondo egindako jardunak eta Udalak emandako samurtasunek bermatu dute beste behin, bi urtean behin herrian egiten dugun Txotxongilo Mostraren arrakasta. Ikusleek lotsa galdu dutela iruditu zait oraingoan, eta asko poztu nau horrek; asko izan dira-eta guregana eta artistengana eskerrak ematera eta zoriontzera joan direnak" kontatu zuen Taun Taun taldeko Itsaso Azkaratek, Mostrako antolatzaileak.

Helduak ditu Bergarako Mostrak jomuga nagusi, baina izan dira haurrentzako eta familia giroan gozatzeko ikuskizunak ere: "Aberastasuna eta poztasuna ematen dio Mostrak herriari. Lehenago, bonoa hartuta, saio guztietara joaten ginen; aurten, txikiaren ordutegira moldatuta, eguneko saioak ikusi ditugu. Umeentzako ere plan polita da", kontatu zuen zapatuan *Katilukada* saioan zegoen ikusleak.

Lau egunetan, bederatzi saio

Askotariko teknika eta jatorriko panpinak izan dira: istorio gogorrak eta barregarriak kontatu dituzte; panpina txikiak edo handiak eskuetan hartuta; zuzeneko musikak lagunduta edo dekoratu bitxiek apainduta. "Inor gutxietsi barik, baina zapatuan San Martin plazan egin zuten Borja Ytuquepintasen *Sueños de Arena* saioa une magikoa izan zen. Gonzalezek harearekin egin zituen pantaila handian erakusten zituen irudiak; horietan bereziena aurrean zuen udaletxea, San Pedro elizaren kanpandorrearekin irudikatu zuena. Roc Sala Coll piano-jolearen zuzeneko musikak oraindik ere magikoagoa egin zuen saioa. Izarrak zeruan, telefonoarekin argazkirik ateratzeko astirik ez zuten 500 ikusle baino gehiago, pantailari begiak itsasita", dio emozioz Taun Taunekoak.

Artistak, etxean moduan

"Igartzen da, arloko profesionalak zaretela; asko eskertzen dugu emandako tratua", gonbidatuek antolatzaileei esandakoak horiek, Mostraren balorazioa egiterakoan, kontuan hartzeko hitzak, bada.

Bergarako *Peter Pan*-en azken saioko azkeneko agurra. | JOXEAN ROBLEDO

Peter Panen dekoratuak, maitasunez gorde dituzte

Bergarako *Peter Pan* musikalak Euskaldunan agurtu du bi urtetako ibilbide arrakastatsua

A. A. | BERGARA

Amaiera bikaina eman zioten Bergarako musika eskolakoek *Peter Pan* musikalari; zapatuan, Euskalduna jauregian egin zituzten bi emanaldiekin borobildu zuten bi urtetako ibilbidea.

"Euskaldunan erakustea sekulako oparia izan da guretzat. Haurrak ere konturatu ziren Euskalduna ez zela beste batzuetan izan garen ezaugarri bereko aretoa; orain arteko eszenatoki handiena Kursaalekoa zen, eta pentsa, Donostiakoa baino lauzpabost aldiz handiagoa zen zapatukoa. Antolatzaileek oso jator hartu gintuzten eta zer esanik ez ikusleek; izan ere, orain arteko emanaldi jendetsuenak, herrian erakutsitakoak izan ziren. Hirutan erakutsi genuen Bergaran, bada, zapatuan, hiru horietan baino ikusle gehiago batu genituen. Guztiei eskerrik asko eta bereziki, Pikupe Produkzioak-eko lagunei, euren lorpena izan da-eta gure *Peter Pan* Euskaldunara eramatea", azaldu zuen Valen Moñuxek, zuzendari artistikoak, atzo, domeka, dekoratuak desmuntatzen ari zela.

Azkenekoan, gozatzera!

Oso landuta zuten lana; horregatik, etxetik atera ziren unetik lasai zeuden. Bi autobus beteta heldu ziren Bilbora; azken entseguak egin, bazkaldu eta birritan erakutsi zuten musikala gero.

Gozatzea zuten helburu eta horrela egin zuten, giro onean. Lanak bukatuta, afaldu eta nekatuta, baina zapore gozoaz itzuli ziren gehienak etxera, beste batzuk desmuntatzen geratu baziren ere. Agur Peter Pan eta konpainia!

Rafa Rueda eta Oier Guillan, egubakoitzean, Kulturaten. | IMANOL SORIANO

Bibliotekaren eguna ospatzeko Ruedak musikatu eta Guillanek errezitatutako poemak

A. A. | ARRASATE

Gabriel Arestiren poemarekin hasi eta, besteak beste, Jose Luis Otamendi eta Vladimir Maiakovskren poemak aukeratuta egin zuten Rafa Ruedak eta Oier Guillanek *Munduaren neurria* kontzertu-errezitaldia egubakoitzean, Kulturateko areto nagusian. Kantuak poemekin tartekatuta, ordubeteko saio goxoa egin zuten.

Eguenean, Oh!ndas

Egubakoitzekoaz gainera, Lur Kortaren ipuin kontaketak ere egin dituzte; eta eguenerako PAI taldearen *Oh!ndas* ikuskizun bitxia proposatu dute Bibliotekaren eguneko ospakizunak borobiltzeko. Bi emanaldi izango dira 11:15ean eta 14:30ean, biak gazteleraz. Parte hartzeko, aurrez izena eman behar da, 943-25 20 25 telefonora deituta.

GURE MUSIKA TALDEAK

FLY SHIT

"Erritmo eta intentsitate aldaketek hor jarraitzen dute"

- Autoekoizpena izan da laukotearen apustua, DDT eta In my heart empire-en laguntzarekin
- Estudioko laugarren lana datorren zapatuan aurkeztuko dute bergararrek

JAGOBA DOMINGO | BERGARA

Estudioko laugarren lana astean kaleratuko dute Fly Shit bergararrek. *Barneko ahotsaren bila* da lan berria eta Azpeitiko Elektrika estudioan grabatu dute Ander Barriuso teknikariarekin. Fly Shitek hemezortzi urte betetzen dituen honetan, etxeko marka diren erritmo aldaketak klasiko izaten jarraitzen dute. Zapatuan bertan aurkeztuko dute diskoa etxean, Bergarako gaztetxean, eta gutxi balitz, Txapa irratiko 30. urteurrena ospatzen jardungo dute Estricallarekin batera.

Jai paregabea diskoa aurkezteko.

Denbora luzea behar izan da kontzertua antolatzeko. Lagun bat urtebete inguru lanean ibili da;-berak Anestesia, Estricalla eta 25th Coming Fire taldeak lortu nahi zituen baina azkenean Estricallak eta biok joko dugu. Gainera, Txapa irratiko urteurrenarekin bat egiten du eta ospakizunen barruan sartu dute.

Gaztetxearekin eta Txaparekin harreman estua duzue aspalditik.

Anderrek [gitarrista] urteak daramatza Txapa irratian eta guk gaztetxean…

Azken estudioko lana 2010ekoa da, zenbat denbora eman duzue *Barneko ahotsaren bila* prestatzen?

Gure erritmoa nahiko lasaia izaten da; lehen lasaia bazen, orain zer esanik ez. Azkenean gehienok familia daukagu, eta lehen zaila bazen, orain pentsa… Iazko abendu inguruan hasi ginen kantuak egiten, baina ez ginen disko baten bila joan. Kontzertu gutxi jo genituen eta pixkanaka erritmoak eta kantuak lantzen hasi; abestiak genituenean diskoa egitea erabaki genuen. Azken hilabeteak ibili gara lanean buru belarri.

Orain arte diskoen artean aldaketak nabari izan dira; oraingoa?

Betiko ildo beretik jarraitzen dugu baina beste buelta erdi bat eman diogula uste dugu. Asko erritmo ertainak dira, baina Fly Shiten etiketa ere hor dago: erritmo aldaketak, intentsitate aldaketak... Azken finean, denborak aurrera egin ahala influentzia berriak xurgatzen dituzu eta nahitaez igartzen dira. Eskola zaharreko hardcoretik gatoz, baina hortik hasita hainbat adar ditugu gustuko.

Azpeitira jo zenuten grabatzera.

Bai, Ander Barriuso teknikaria aspaldiko laguna da eta oso gustura ibili gara berarekin. *Bizitza... baina nola bizi* diskoko sei kantu harekin grabatu genituen 2005ean, beraz, aspalditik dator harremana. Maiatzean bateria eta baxua grabatu genituen eta ekainean gitarrak eta ahots nagusia. Grabazioa nahiko azkar joan zen; kontua da, baina, Barriusok lan handia izan zuela gero eta horregatik atzeratu da. Horrez gain, hainbat kolaborazio izan ditugu diskoan, tartean Txirbileneako Roberrek idatzitako letra *Utopia Laztantzen* kantuan.

Kantu hori gainera aurrerapen bezala igo duzue Internetera.

Bandcamp plataformara igotzea erabaki genuen promozio apur bat egiteko.

Diseinua ez du Txorik egin oraingoan.

Barneko ahotsaren bila kantuko diseinu grafikoa Supercools taldeko Aitorrek egin du oraingoan. Londresen bizi da eta gurekin ez ahazteko lan pixka bat eman diogu.

CDa bai, baina biniloan ere argitaratuko duzue lan berria?

Biniloa oraindik ez da heldu baina espero dugu Durangoko Azokarako esku artean izatea. Gure asmoa da, gainera, Durangoko Azokan Sapuetxe gaztetxean jotzea. Kapritxoa da biniloan editatzearen kontua. Egia da gaur egun, musika estilo jakinetan biniloa CDa baino gehiago mugitzen dela, baina kapritxo bat izan da. Biniloa eta CDa batera saltzea da gure asmoa, eta hemendik aurrera, posible dugun heinean, diskoa aurkeztea. Oraingoz data batzuk itxi ditugu eta hainbat gaztetxetatik deitu digute, baina esan bezala, lasai hartu behar ditugu gauzak orain. Hala ere, horrenbeste urteren ostean zirkuitu txiki bat eginda daukagula uste dugu.

Fly Shit laukote bergararra. | BURRUDAYE

"Gogoa geneukan diskoa biniloan editatzeko"

ZERTZELADA

'BARNEKO AHOTSAREN BILA'

Estiloa: Hardcorea.

Egilea: Fly Shit (Bergara, 2014).

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Berrasmatu eta arriskatu

Sorreratik ezagutzen dut Bergarako taldea eta gogoan daukat nola hasi ziren AEBetako RKL talde handiaren gerizpean hardcorea egiten. Musikari eta konposatzaile moduan nabarmen garatzen joan dira eta Euskal Herriko hardcore taldeen artean erreferente dira aspalditik. Gerora, bestelako sonoritateak eta intentsitatea landu izan dituzte, posthardcorea kasu, oso emaitza on eta disko borobilekin. Orain, lan honetan, gehiago esperimentatu eta etiketetatik kanpo aritu dira: RKLren markak eta hardcoreak hor diraute –hilobira eramango dituzte–, baina horrez gain post-hardcore, emo, jazz, rock zein funkyarekin ere probatu dute, ausardiaz eta irudimenaz.

IKER BARANDIARAN

Ipuinak kontatzeko gakoa, espazioa zaintzea

Pello Añorga: "Isiltasunetik abiatutako hitzek oihartzuna sor dezakete gugan"

MAIALEN TORRES | ARETXABALETA

Haurrei zer eta nola kontatu landu aurretik, horretarako espazioak sortzea ezinbestekoa dela uste du Pello Añorga idazle, ipuin kontalari eta irakasleak. Hain zuzen ere, horixe lantzen du Aretxabaletan martxan den ikastaroan. Haur Hezkuntzako umeen guraso zein irakasleek joan den martitzenean ekin zioten ipuinen bidez komunikatzeko espazioak nola sortu ikasteari, eta bihar egingo dute bigarren eta azken saioa. Añorgaren ustez, garai batean "errazagoa" zen espazio horiek sortzea. "Negua iristean, sutondoan bildu eta edozer kontatzen zen", dio, baina argi du gaur egun espazio hori kasu askotan "desagertu" egin dela eta telebistari, telefono mugikorrei eta "daramagun bizimodu azkarrari" jakin behar zaiela aurre egiten.

Horregatik, barne eta kanpo interferentziak alde batera utzi, eta kontatzeko eta entzuteko guneak sortzeko gakoetan jartzen du arreta Añorgak. "Lasaitasuna, patxada, intimitatea eta konfiantza behar dira", esan du, haren ustez "isiltasunetik abiatutako hitzek oihartzun handiagoa" sor dezaketelako heldu zein haurrengan.

Gainera, idazleak azaldu duenez, konfiantza espazioan sortutako lotura afektiboa mantendu egiten da gerora ere, eta haurrek errazago komunikatuko dituzte euren arazo zein kezkak kontalariarekin (izan guraso zein irakaslea). Era berean, espazio intimo horretan, ipuinen bidez "giza esperientziaren gairik garrantzitsuenak" lantzeko aukera ere badagoela dio Añorgak.

Pello Añorga, Eskoriatzako haurrei ipuinak kontatzen. | AMAIA TXINTXURRETA

Nola kontatu ipuin bat?

Ipuin bat kontatzea komunikazioan oinarritzen dela azpimarratu du idazleak, eta kontaketa momentuan "benetan hor egotea" eta "esaten ari garena sinestea" besterik ez dela behar azaldu du. Hortik aurrera, hainbat baliabide espresibok eta alderdi estilistikok lagun dezaketela ere onartu du. Besteak beste, haurraren izaeraren arabera ipuina egokitzea, erritmo egokia mantentzea, hizkuntzaren erabilera zaintzea, ahotsa ondo kudeatzea, mugitzea edota errimekin jolastea.

Hala ere, Añorgak funtsezkoenari ematen dio garrantzia: kontaketarako espazio egokia eta komunikaziorako konfiantza giroa sortzeari, hain zuzen.

Aisialdiaz gozatzea, familian lotura afektiboak sortzeko gakoa

M.T. | BERGARA

"Jolasa plazera da". Etxadi taldeko Johana Rekagorri eta Maialen Sanchez psikologoen esanak dira horiek. Izan ere, eguaztenean Bergaran izan ziren, familiari eta aisialdiari buruzko hitzaldia eskaintzen, eta, hamar bat partaiderekin batera, aisialdi ereduaz, jolasen onurez eta eskolaz kanpokoez aritu ziren.

Familian denbora libreaz gozatzeko aukera izateak errutinetatik kanpo gozatzeko, familia arteko harremanak hobetzeko, seme-alaben eta gurasoen arteko lotura afektiboak sendotzeko eta seme-alabak hobeto ezagutzeko aukera ematen duela argi dute Etxadiko kideek. Hizlarien esanetan, denboraren antolaketa da horretarako gakoa "garrantzitsua da familiako kide guztien artean denbora librearen erabilera antolatzea. Horretarako, denbora zertan eta zelan gozatu nahi dugun erabaki behar da, baita familian edo bakarka egingo dugun ere" azaldu dute.

Dena den, Rekagorriren eta Sanchezen ustez, erabakitzerako garaian, kontutan hartu behar dira seme-alaben gustuak, lehentasunak, abileziak eta nahiak eta ziurtatu egin behar da familiako kide guztien beharrizanak asetzen direla. Horrez gain, azpimarratu nahi izan dute familiako aisialdia ez dela "beti kontsumoarekin lotu behar" eta aparteko dirurik gastatu gabe egiteko moduko proposatzen dituzte. Besteak beste, mendira edo egun pasa joatea, futbolean edo saskibaloian aritzea, herriko elkarteetan parte hartzea, karta edo mahai jokoekin jolastea, etxean antzerkiak edo dantzak prestatzea, sukaldean elkarrekin aritzea edota zerbait margotzea.

Eskolaz kanpokoen oreka

Gogoan izan zuten, baita ere, familia askok arazoak dituztela euren ordutegiak uztartzeko, batez ere, lanagatik eta arrazoi sozialengatik. Hori dela eta, "eskolaz kanpoko jarduerak aprobetxatzen dira seme-alabek gurasoekin egin ezin ditzaketen jarduerak egiteko" esan dute Rekagorrik eta Sanchezek.

Edonola ere, bi psikologoek azpimarratu dute abilezia eta trebetasunak lantzeko "positiboa" izan daitekeen arren, gehiegizko eskolaz kanpoko jarduerak "ume eta gazteengan nekea eta estresa" ere eragin ditzakeela. Hori dela eta, denbora librearen eta eskolaz kanpokoen arteko oreka lortzen saiatzea proposatzen dute.

Adimen gaitasun handiko haurrek, identifikazio beharra

Euren garapen egokirako ezinbestekoa da haurrek duten jakin-mina ahal bezain ondo elikatzea

AMAIA AGIRIANO | ARRASATE

Oso garrantzitsua da adimen gaitasun handiko haurrak ahalik eta azkarren identifikatzea, era horretan beraien hainbat jokaera hobeto ulertuko dugulako, eta garapen emozional, sozial eta akademiko egokia izateko komeni zaien heziketa mota eskaini ahal izango diegulako.

Gaian aditua den Miraca Gross-ek (1998) dioenez, haur batek ohiz kanpoko gaitasun goiztiarrak baditu, ez da bere gurasoen presioagatik, adimen gaitasun handiarekin zerikusia duen goiztiartasun naturalagatik baizik.

Izan ere, gaitasun handiko haur gehienek txiki-txikitatik erakusten dituzte esanguratsuak diren hainbat ezaugarri. Besteak beste, arreta goiztiarra, behaketa eta memoriarako gaitasun izugarria eta jakin-min handia izaten dituzte. Era berean, eskolan aspertu egin ohi dira. Hori dela eta, komenigarria da gurasoak adi egotea haurraren lehen urteetan, beraiek direlako haurra hobekien ezagutzen dutenak.

Identifikazio goiztiarra

Normalean, haur hauek oharkabean pasatzen zaizkie irakasleei, eta edonorentzat garrantzitsua bada ulertua sentitzea, are gehiago haur batentzat, eta, zer esanik ez, hain sentiberak diren adimen gaitasun handiko haurrentzat.

Hori dela eta, identifikazioaren helburua ez da haurra etiketatzea, guraso eta hezitzaileek haurraren ezaugarriak ezagutu eta behar duen heziketa eskaintzea baizik.

Adimen gaitasun handiko haur batentzat, beharrezkoa da bere gaitasun kognitiboa zaindu eta elikatzea, bere galdera eta hausnarketak kontuan hartu eta berauei ahalik eta erantzunik egokiena emanez.

Urtetan bestelakorik pentsatu izan bada ere, ikerketek agerian utzi dute haur bat ebaluatzeko momenturik onena 4 eta 8 urte artean dagoela (Silverman, 1986) eta beraz, txiki txikitatik zorionts izateko, heziketa egoki bat eskain diezaiokegu; guraso eta hezitzaileon esku dago.

ERREZETA

Egingo al ditugu txokolatedun madalenak?

M.T. | ARRASATE

Urtzera iritsi gabe, mikrouhin labean 100 gramo gurin berotu, eta ondoren irabiagailuaz harrotu behar dira. Irabiatzen jarraitu bitartean, 150 gramo azukre gehitu behar zaizkio gurinari, pixkanaka. Jarraian, irabiatzeari utzi gabe, bi arrautza bota behar dira nahasketara, baita 200 gramo irin eta koilarakada bat legamia ere. Masa homogeneoa lortutakoan, txokolate zatiak gehitzen zaizkio nahasketari. Masa krematsua izan dadin, ezinbestekoa da hasieran gurina ondo harrotzea eta osagaiak pixkanaka gehitzea. Ondoren, moldeetan sartu behar da masa, betiere goraino bete gabe, gero labean hazi egingo baita. Azkenik, aurrez 180 gradura berotutako labean sartzen dira moldeak, 20-25 minutuz, eta hoztu bezain laster, jateko prest izango dira madalenak (hamar inguru).

IRTEERA

Donostiatik Pasaiara oinez, itsasoaren ertzetik

M.T. | ARRASATE

Donostiako Gros auzoan, Sagues inguruko gasolindegiaren ondoan du abiapuntua itsasertzeko bideak. Zemoriya kaleko eskaileretan gora, De Arbola pasealekuraino igo behar da, eta hortik aurrera, seinaleek eta marka zuri-gorriek gidatuko dute bisitaria Pasaiaraino. Ibilbidean zehar, bada iturri bat, baita hamaiketakoa egiteko mahaiak ere. Gehienez hiru orduko ibilaldia da, eta hasiera da zatirik gogorrena, behin altuera batera igota, zeharka egiten baita gainontzekoa. Bideak paisaia ikusgarriak zeharkatzen ditu, eta amaiera aldera, zilarrezko faroaren ondotik ere igarotzen da. Bertatik, Pasaiara jaisten da, Albaola itsas kultur faktoriara, eta pasealekuan aurrera eginda, badiaren bestaldera pasatzeko itsasontziaren geltokia dago. Donostiara itzulera autobusean egin daiteke.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, **zatoz gure webgunera**
guraso.com

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Aretxabaleta. Etxebizitza salgai Andra Marin. Erabat berritua, bizitzera sartzeko moduan. Bi logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Berokuntza indibiduala, gasarekin. 605 74 34 39 (M. Carmen) edo 645 00 90 03 (Ramiro)

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan San Antonion. 943 76 21 39

Elgeta. Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, jangela-egongela, sukalde hornitua eta bi bainugela. Berokuntza eta igogailua. Egoera oso onean, eraikin nahiko berria. 606 08 39 92 edo 679 56 84 78

Oñati. Etxebizitza berria ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logela eta bi bainugela. 652 76 50 90

Oñati. Etxebizitza ematen da errentan. Lau logela, egongela -jangela, bi komun eta sukaldea. 650 56 62 06

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, bi logelakoa. Partikularren artean. 662 43 08 54

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, hiru logelakoa. Hilean 500 euro ordain ditzaket gehienez. 662 68 56 03

Baserri bila Debagoienean. Bikote arrasatearra Debagoienean edo inguruan errentan hartzeko baserri bila dabil. 680 34 29 60 edo 699 28 99 06

Bergara. Bi logelako etxebizitza errentan hartu nahi dut. 602 03 33 56

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genukeen bi bergarar gazte gara. Ezinbestekoa errenta kontratua. 608 787 771 edo 606 83 82 15

Bergara. Etxebizitza errentan hartuko nuke, konponketa batzuk behar dituena. Aitor. 608 973 867

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Erdigunetik gertu etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dut. 678 82 69 77

Arrasate. Etxea osatzeko pertsona bat behar dut edo, bestela, logela bat hartuko nuke errentan prezio onean. Neska arduratsua naiz. Maider. 634 43 31 79 edo 654 92 57 92

Oñati. Etxebizitza osatzeko pertsona bat beharko genukeen bi langile gara. Interesaturik egonez gero deitu mesedez 18:00etatik aurrera zenbaki honetara: 653 74 87 51

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean garaje itxia ematen da errentan, merke. 679 74 00 61

4. LANA

401. ESKAINTZAK

OÑATI
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
615 71 71 62

Antzuola. Pertsona euskalduna behar da egun erdiz, goizez, urtebeteko haur bat zaintzeko. 609 81 89 52

Arrasate. Mutil euskalduna behar da zaintza lanetarako. Bazkariak prestatu, paseatzera irten.. Astelehenetik ostiralera, goizeko ordutegian. Deitu telefono zenbaki honetara: 649 70 23 90

Arrasate. Gizonezko euskalduna behar da astelehenetik ostiralera pertsona nagusi bati laguntzeko, 16:00etatik 9:00etara bitartean. 619 18 12 81 edo 629 42 19 79

Bergara. Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 83 06 97

Emakume euskalduna behar da. Emakume euskalduna behar da Elgetako baserri batean etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu telefono zenbaki honetara: 678 32 44 36

402. ESKAERAK

Aretxabaleta edo Arrasate. Haur hezkuntzako zikloa duen neska gazte euskalduna eta haurrekin esperientzia. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 669 10 77 48

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko gertu, arratsaldetan eta asteburuetan. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 639 44 86 30

Arrasate. Mutila goizetan nagusiei laguntzeko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 673 71 80 93

Bergara. Emakumea lanerako prest. Deitu telefono zenbaki honetara: 658 31 06 20

Bergara. Adin ertaineko emakumea umeak eta nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 610 34 97 88

Bergara. Garbiketak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 688 65 10 22

Debagoiena. Emakumea prest goizez etxeak garbitu edo pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko. (Clara). Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 65 19 01

Debagoiena. Bertako neska, esperientziaduna, nagusiak etxean zaintzeko gertu. Baita gauez ere. 637 18 07 23

Debagoiena. Dendari, sukalde laguntzaile edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen. Erreferentzia onak eta lege paperak ditut. 631 83 58 20

Debagoiena. Emakume arduratsua lanerako gertu: nagusiak zaindu, etxeko lanak egin, tabernatan eta abar. Etxean bizi izaten, egun osoz edo orduka ere bai. 615 06 28 04

Debagoiena. Emakume espainiarra, eskarmentuduna, nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 633 84 65 30

Debagoiena. Esperientziadun pertsona asteburuetan nagusiak zaintzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 96 98 74

Debagoiena. Esperientziadun sukaldaria lanerako gertu: menuak, pintxoak, ogitartekoak eta abar egiten aritutakoa. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 666 83 21 95

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:
943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.eus/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: **PREZIO BEREZIAK** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.
Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak.
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

1. ETXEBIZITZAK
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

2. GARAJEAK
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

3. LOKALAK
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

4. LANA
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

6. MOTORRA
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

7. ANIMALIAK
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

8. DENETARIK
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

9. HARREMANAK
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

10. RELAX

K OROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:
- Simon Arrieta 68 m², 2 logela, 80 m2ko terrazarekin. 132.600 €.
- Simon Arrieta 69 m², 3 logela. 20 m2ko terrazarekin. 107.100 €.
- Ibargarai 73 m², 3 logela. 235.000 €.
- Zubieta 110 m², 3 logela. Hortua, lokala eta trastelekuarekin. 95.000 €.
- Fraizkozuri 162 m², 4 logela. Trastelekuarekin.
- San Pedro 73 m², 3 logela. 13 m2ko terrazarekin. 115.000 €.
- San Antonio 86 m². 3 logela, trastelekua eta garajearekin. Igogailua. 204.000 €.
- Angiozar 170 m², duplexa. Garajea, txokoa eta 180 m2ko lur sailarekin.
- Artekale 47 m², 2 logela. Berriztua. Trastelekuarekin. 100.000 €.
- Matxiategi 88 m², 4 logela. Igogailua. Ganbara. Prezio jeitsiera. 190.000 €.
- Barrenkale 113 m², 3 logela, duplex berria. Igogailuarekin.
- Masterreka 72 m², 2 logela, duplexa. Trastelekuarekin. Berria estrenatzeko. 160.000 €.
- San Lorenzo 65 m², 2 logela. Garajea eta trastelekua aukeran. Berria. 200.850 €.
- Zubiaurre 70 m², 2 logela. Erabat berriztua 180.000 €.
- Simon Arrieta 82 m², 3 logela. Igogailuarekin. 160.000 €.
- Ibargarai 57 m², 2 logela, oso ondo. Garajearekin. 215.000 €.
- Bidekurutzeta 71 m², 2 logela, erabat berriztua. Igogailua eta terraza haundiarekin. 204.344 €.
- Angiozar 60 m², 2 logela, erabat berriztua. Trastelekuarekin. 92.000 €.
- Zubiaurre 104 m², 2 logela. Berria. Igogailua. Trastelekua, Terrazarekin.
- Martoko 60 m², 2 logela, berogailua eta igogailua. 60.000 €.
- Aranerreka 79 m², 3 logela, berogailua, trastelekua. Garajea aukeran. 164.850 €.
- Iraburu 82 m², 3 logela, berogailua. 120.000 €.
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 100.000 € PREZIO JEITSIERAREKIN
- Ibargarai 90 m², 3 logela. Igogailua 235.000 €.
- Ibarra 129 m², 4 logela, berogailua. 150.000 €.
- Martoko 140 m², 4 logela. Berria.Oso ondo. 225.000 €.
- Ibargarai, 60 m², 2 logela. Berria. Oso ondo. 229.000 €.
- Matxiategi, 115 m², 3 logela, trastelekua eta balkoia. Berriztua. Oso ondo.

ANTZUOLA:
- Sagasti 140 m², duplexa. 250.000 €.
- Sagasti 86 m². 3 logela. 163 m2ko terrazarekin. AUKERA BIKAINA. 216.364 €.
- Beheko Auzoa 60 m². 2 logela. Oso ondo. Prezio jeitsierarekin.
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202 €.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
- Aiherra 83 m². 3 logela. Igogailua eta balkoia.Oso ondo. Prezio ona.
- Kale Goi. Oso ondo. AUKERA BIKAINA. 125.000 €.

SORALUZE:
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri, Loralde eta Rekalde. Etxe onak.

ELGETA:
- Torrealdea 77 m². 3 logela. Berria. Oso ondo.
- Domingo Iturbe, adosatua 150 m² + 45 m² garajea + 90 m² lursaila.

OSINTXU:
- Osintxu 85 m². 3 logela. Igogailua. Berriztua. 130.000 €. AUKERA BIKAINA.

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 688 88 38 32

Debagoiena. Garbiketa lanetan, nagusiak edo umeak zaintzen edo zerbitzari lanetan lan egingo nuke. 20 urte ditut. Diana. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 663 46 65 17

Debagoiena. Mutila etxeko lanak egin, nagusiak zaindu edota sukalde laguntzaile jarduteko gertu. Esperientzia daukat nagusien zaintzan eta lege paperak ditut. 658 74 94 63 edo 632 26 01 84

Debagoiena. Mutila lanerako gertu. Nagusiak zaindu edota baserri lanetarako. Baita eraikuntzan ere. Gidabaimena daukat eta baita elikagaien manipulazio baimena ere. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 602 06 33 80

Debagoiena. Mutila lanerako gertu: eraikuntzan, gidari, sukalde laguntzaile edota nagusiak zaintzen. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 60 48 51

Debagoiena. Mutila orduka zaintza lanak egiteko gertu. Eskarmentua eta erreferentziak dauzkat. 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusi edo umeak zaintzen eta garbiketak egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 35 81

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta etxeko garbiketak egingo nituzke, orduka edo jardun osoz. Sukalde laguntzaile eta zerbitzari ere bai. Nahiago dut Arrasaten bada. Deitu telefono zenbaki honetara: 658 31 06 20

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke eta garbitasun lanak egin ere bai. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 632 08 57 69

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 678 84 45 28

Debagoiena. Neska arduratsua eta esperientziaduna umeak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko, zein nagusiak lagundu edo paseoan ateratzeko gertu. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Debagoiena. Neska garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko, sukalde laguntzaile, zerbitzari eta abarretarako gertu. Deitu 663 40 92 67 telefonora.

Debagoiena. Neska gertu nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketak egiteko. Orduka, gauez, etxean bertan bizi izanda edo bestela. 674 55 02 98

Debagoiena. Neska lan bila sukaldean, zerbitzari, zaintza lanetan etxean bizi izaten, orduka edo egunez. Deitu 654 11 15 14 telefonora.

Debagoiena. Neska lanerako gertu. Eskarmentua dut nagusiak zaintzen eta atari eta abarren garbiketan. 629 29 11 23

Debagoiena. Neska lanerako gertu: nagusiak zaindu, tabernan sukaldari, garbiketak eta abar. Autoa daukat. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 636 11 23 40

Debagoiena. Neska orduka etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko gertu. Deitu 943 25 05 72 edo 658 70 56 94 telefono zenbakira.

Debagoiena. Neska prest lan egiteko. Geriatriako ikasketak ditut. Ospitalean gaua pasatu edo etxean bertan gaixoak zaintzen. Autoa daukat. 600 00 51 60

Debagoiena. Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Ez daukat gidabaimenik. 677 83 37 23

Debagoiena. Sukalde laguntzailea lan bila. Bost urteko eskarmentua. Nagusi eta umeak zaintzen edota denetariko garbiketak egiten ere lan egingo nuke. Gidabaimena eta autoa. 677 73 79 59

Lan bila. Mutil gaztea lan desberdinak egiteko prest; adinekoak zaindu, sukaldeko laguntzaile, zerbitzari. 685 73 25 35

Oñati. Etxean bertan bizi izaten edo egunez lan egingo nuke. Etxe garbiketan eta umeak zaintzen ere arituko nintzateke. 685 79 80 81

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Fisikako partikularrak. Fisikako ikasle ohia behar da larunbat goizetan Fisika graduko mekanika eta elektromagnetismoko partikularrak emateko. Iluntzetan deitu. 673 21 62 83 edo 607 33 96 85

502. EMAN

Arrasate. Esperientziadun psikopedagogo eta ingeles irakaslea eskola partikularrak emateko eskaintzen da, LMH eta DBHn. Banaka zein talde txikitan. Ingeles eskolak goizetan ere bai. 658 70 67 84

Bergara. Ingeniaritza eta Irakaskuntzako Masterra duen pertsona eskola partikularra emateko prest. LH edo BH-ko edozein irakasgai emateko prest, ingelesa barne (Advance titulua dut). 620 88 16 29

Oñati. Majisteritzako 3.mailako ikaslea naiz eta klase partikularrak ematen ditut. LHko edozein ikasgai (ingelesa barne). 672 25 91 89

6. MOTORRA

602. EROSI

Autoa erosiko nuke. Bigarren eskuko autoa erosiko nuke. Egoera onean eta gehienez 1.500 eurotan. 637 13 16 23 edo 632 61 83 43

Furgoneta edo automobil familiarra. Bigarren eskuko furgoneta txikia edo automobil familiarra erosiko nuke. 628 40 39 16

7. ANIMALIAK

701. SALDU

Akuria. Akuria, kaiola, liburua eta hainbat osagarri dauzkat saltzeko. 671 84 15 63

703. EMAN

Akuriak. Akuriak (kuiak) dauzkat opari emateko. 605 73 68 70

Katakumeak. Bi katakume ematen dira opari. Uztailaren 22an jaiotakoak dira. Baserri edo txaleterako egokiak. 663 65 76 06

8. DENETARIK

801. SALDU

Fagor sukaldea. Fagor sukaldea saltzen dut: 7 modulu goikoak eta 9 modulu behekoak, granitozko bi enzimera eta bitrozeramika. 1.200 euro. 666 24 17 65

802. EROSI

Mendirako eskiak. Mendiko eskiak erosiko nituzke. Baita botak ere. Saltzeko asmoa izanez gero, deitu hurrengo telefonora: 675 70 58 54

804. HARTU

Bizikletak. Botatzeko dagoen edo erabiltzen ez duzun bizikleta baduzu, nik jasoko nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. Iñaki. Botatzeko badituzu deitu telefono zenbaki honetara: 699 06 23 95

Eskola liburuak. Arrasateko Institutuan, Batxilergo 1. mailako Gizarte adarrean erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nituzke. Ikasgaiak: ekonomia, matematika, gaztelera eta ingelesa. Botatzeko badituzu deitu telefono zenbaki honetara: 696 13 91 22

Eskola liburuak. Oñatiko Elkar Hezi eskolan, 2. DBHn erabiltzen diren bigarren eskuko liburuak hartuko nituzke. Ikasgaiak: natur zientziak eta matematika. 696 13 91 22

Eskola liburuak. DBH 4.mailako liburuak hartuko nituzke. Botatzeko badituzu deitu telefono zenbaki honetara: 632 17 48 38

805. TRUKATU

Hizkuntza truke. Nik frantsesa erakutsiko nizuke, modu praktikoan, eta trukean ingelesa ikasi gura nuke. 630 05 91 98

Hizkuntza trukea. Alemana praktikatu nahiko nuke, C1 maila ikasten nago. Euskaraz, gazteleraz edo ingelesez hitzegin dezaket. Deitu telefono zenbaki honetara: 657 72 51 65

806. GALDU

Telefonoa Arrasaten. Telefonoa galdu nuen zapatuan, urriaren 18an, goizean Iturriotzetik Zaldibarrera bidean. Zuria da. Paper bat dauka atzean itsatsita. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke deitzea. 943 77 16 01

Urrezko pultsera. Irailaren 29an, astelehena, urrezko pultsera galdu nuen Malvinetatik Txondorrara jaisten den bidean. Balio sentimental handi du eta eskertuko nuke aurkituz gero deitzea. 626 01 75 33

807. AURKITU

Patinetea Aretxabaletan. Santa Kurtz kaleko Briko-Lan denda parean patinete bat agertu zen urriaren 1aren bueltan. Dendan galdetu. 943 79 68 58

808. BESTELAKOAK

Arrasate-Elgoibar joan etorria. Arrasatetik Elgoibarrera eta alderantziz joaten naiz autoan egunero, autobidetik. Arratsaldez sartzen naiz eta iluntzean Arrasatera bueltan. Norbait interesatuta balego eta gure ordutegiek bat egingo balute, gastuak partekatzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu 600 77 05 56 telefonora. 600 77 05 56

Folk Musikaria. Irlandar, eskoziar eta euskal musika herrikoia 'session' eran jotzeko musikari bila gabiltza (gitarra, trabesera, soinua, soka instrumentuak, eta abar). Momentuz Arrasaten entsaiatzen gabiltzan hiru musikari gara, ondo pasatzeko asmoarekin. 645 73 12 16 edo 695 78 52 49

Leioara autoz. Leioako kanpusera Arrasatetik autoz, eta arratsaldez, joaten garen bi lagun gara. Autoa konpartitzeko interesa duenak zenbaki honetara dei dezake: 696 44 43 99

ETXEKO SUKALDERAINO

Jon Suinaga | Idazlea

- Harreman eskasa du sukaldearekin, baina egun berezietan gustura aritzen da
- Lehen eleberria kaleratuta, txirrindularitzari buruzko zerbait idaztea du buruan

"Pertsonaia historikoak eta haien pasarteak ditut inspirazio iturri"

MAIALEN TORRES | BERGARA

Jon Suinagak (Bergara, 1967) ingeniaritza ikasketak egin zituen arren, betidanik izan du idaztea gogoko eta dagoeneko komiki bat *(Jony & Kompis)* eta eleberri bat *(Allende los mares)* kaleratu ditu, azken hori iazko azaroan. Horrez gain, kirola egitea du gogoko eta korrika, bizikletan eta mendian aritzen da, besteak beste.

Jon Suinaga zelakoa da?

Ezinegonez betetako pertsona arrunta naiz, buruan ideiak sortzeko makina duena.

Zein harreman duzu sukaldearekin?

Egia esateko, nahiko harreman eskasa dut, beti kanpoan bazkaltzen dut-eta; afalorduan ere ez diogu denbora luzerik eskaintzen. Entsalada bat, pizza bat… Plater errazetara jotzen dugu.

Zein da zure espezialitatea?

Egun berezietan aritzen naiz sukaldean, eta esango nuke paellari neurria hartua diodala. Alabak eta bere lagunek nik prestatutako makarroiak ere gustura jaten dituzte.

Zertara gonbidatuko zenuke lagun on bat?

Ardo on bat edanez elkarrekin lasai hitz egitera, eta ondoren, jatetxe on batean bazkaltzera.

Eta etsairik handiena zertara?

Errespetua eta jokamoldea hobetzeko ikastaro batera.

Zeinekin gustatuko litzaizuke mahaiaren bueltan esertzea?

Bizirik balego, Cristobal Colonekin egingo nuke bazkaria, eta, bestela, Arnaldo Otegi eta Iñigo Urkullu gonbidatuko nituzke; ea bazkalostean norabide berean lan egiteko ados jartzen diren.

Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?

Ez dut uste nire bizitzako puntu zehatz batean hasi zenik, naturalki betidanik izan dudan zerbait da. Kontua da azken urteotan beste gauza batzuei baino lehentasun handiagoa eman diodala.

Zer eman dizu idazteak?

Momentu on asko eman dizkit, idazten dudanean oso gustura aritzen naizelako, eta eleberria kaleratzea sorpresa izan zen, baita satisfazio handia ere.

Ze osagai behar dira idazle izateko?

Zaletasuna izatea eta idazteari orduak eskaintzea.

Baduzu libururen bat labean?

Azkenaldian, txirrindularitzari buruz idatzi izan dut Interneten, eta horri lotutako zerbait egin nahiko nuke; baina oraindik ez dut erabaki zer izango den.

Zein istorio idatziko zenuke gustura?

Beti gustatu izan zaizkit bidaia eta abentura liburuak, eta horrelako bat idatziko nuke, Colonekin Ameriketara bidean zihoan marinel baten ikuspegitik, agian.

Nondik datorkizu inspirazioa?

Idazleak hartzen dituzte eredutzat askok, baina nik pertsonaia historikoak eta haien pasarteak ditut inspirazio iturri.

Iratxoek hiru desio eskatzeko aukera eman dizute…



Jon Suinaga, *Allende los mares* eleberria eskuan duela. | JESUS CASO

"Txirrindularitzari buruz idatzi izan dut eta horri lotutako zerbait egingo nuke"

Inguruko jendearentzat osasuna eta zoriona eskatuko nituzke, baita Euskal Herri independentea ere.

Zure bizitzako anekdota bat?

Asko izan ditut, baina kontatzeko modukorik ez zait bururatzen.

Damu zara…

Seriotasunez idazteari lehenago ekin ez izanaz.

Zer errepikatuko zenuke?

Motxila soinean hartu eta neskarekin Kubara joan nintzenekoa, edo Brasilera eta Argentinara egin genuen eztei-bidaia.

Zerk beldurtzen zaitu?

Ingurukoak sufritzen ikusteak.

Lanetik etxera iritsi berri, zer egitea gustatzen zaizu?

Aktibo egoten saiatzen naiz, kirola egitera edo alabaren bila joanez, bestela; izan ere, sofan eseriz gero, ez dut eguna aprobetxatzen.

Nora egingo zenuke ospa?

Espaziotik Lurra ikustea gustatuko litzaidake.

Ze aholku konpartituko zenuke?

Bizi izateko ilusioa izatea eta norberaren ametsak jarraitzea.

AUKERAN...

COCINILLAS.ES

Lehen platera: Marisko-entsalada epela

Bigarrena: Solomilloa roquefort saltsan

Postrea: Hostopil-tarta

Edatekoa: Errioxako ardo ondua

PATRIZIAREN GUTIZIA

Patrizia Vitelli

BOLETUS, IDIAZABAL ETA PATATA GRATINA

Perretxiko sasoian gauden honetan, naturak ematen digun opari goxo horiekin egindako errezeta proposatu behar dizuet oraingo honetan: boletus, idiazabal eta patata gratina.

Izan ere, neguak ekarriko digun egun hotzerako trantsizioan, txunditzen gaituzten kolore beroak eta kalabazak, mandarinak, gaztainak, hurrak eta perretxikoak ematen dizkigu: lanpernak, amanita caesareak, niskaloak, gibelurdinak, zizahoriak…

Boletus nahaskia

Perretxiko guztien artean, baina, erregea boletus edulis-a da, onddo zuria, lagunendako, eta berau jateak estasiarengandik gertu dagoen egoera emozionaleraino garamatza. Hori bai, baldintza garrantzitsu bat kontuan hartu beharra dago boletusa kontsumitzeko orduan: erabat garbi egon behar da, eta ez du izan behar lur arrasto bat bera ere. Bi baldintzok kontuan hartuz gero, kozinatuta edo gordinik jan dezakegu.

Izan ere, boletusaren okela zuria oso preziatua da gastronomian, eta duen ur-usainak ahosabairik zorrotzenak eta sukaldeko bazter guztiak konkistatzen ditu. Gure lurralde honetan, gehienetan nahaski eran kontsumitzen da. Xehe-xehe egindako tipulinarekin, koipetutako zartaginera botatzen dira onddoak laminatuta arin frijitzeko. Horri irabiatutako pare bat arrautza gehitu eta guztia ondo nahasita, jaki horrek izango duen arrakasta erabatekoa izango da.

Onddoekin egindako errezeta, labetik atera ostean. | 'THE COOK ROCKER'

Fitxa

- Denbora: 90 minutu.
- Zailtasuna: ★★★☆☆

OSAGAIAK

- Onddo freskoak, 500 g.
- Kozinatzeko esne-gain likidoa, 400 ml.
- Lau berakatz buru.
- Porru bi.
- Lau patata handi.
- Idiazabal gazta.
- Gatza.
- Pipermin beltza.
- Olioa.
- Tipulina. Baina dekoratzeko erabiltzeko da; beraz, guztiz aukerazkoa da, eta kendu egin daitekeena.

Prestaketa

1. Kazola txiki batera esne-gaina bota, birrindutako pipermin beltz apur bat, gatza eta berakatza, fin-fin zatituta. Su-eztitan egiten utzi, 10 minutuz. Gorde.
2. Porrua xerratxo finetan zatitu eta koipetutako zartaginean salteatu. Behin eginda, onddoak gehitu, garbituta eta zatituta. Onddoak bigun daudenean, sutik kendu, eta gorde.
3. Patatak lamina oso finetan zatitu, patatak zuritzeko tresnarekin, adibidez.
4. Laberako ontzian salteatutako onddo-geruza bat jarri, beste geruza bat patatekin, beste bat esne-gainarekin eta beste bat birrindutako Idiazabal gaztarekin. Hiruzpalau bider egin, hostopil antzerako bat sortu arte. Ordubetez, 150 graduan egin, aldez aurretik labea berotuta. Epel atera, pikatutako tipulina gainetik botata.

Flickr-eko argazkiak saldu ahalko dituzte erabiltzaileek

J.B. | ARRASATE

Flickr argazki biltegiko erabiltzaileek irudiak salerosteko aukera izango dute datorren urtean, Yahoo!-k abiaraziko duen zerbitzu beri bati esker. Merkatu moduko bat egitea da asmoa eta salmentaren zati bat argazkiaren jabeari emango diote. Bilatzailea egongo da eta balio komertziala izan dezaketen argazkiak, erabiltzaileek hala nahi izanez gero, erosi ahal izateko moduan eskainiko dira irudi merkatu horretan.

Beti eguneratua

Argazki biltegi erraldoia da Flickr eta 10.000 milioi irudi baino gehiago daude gordeta bertan gaur egun, 96 milioi erabiltzaile bakarrekin. Zerbitzu integrala eskaini gura dute Yahoo!-koek berrikuntzarekin eta erreferente izaten jarraitu, biltegi izateaz gain, irudien komertzioan ere.

Lexiko zuzentzailea garatu du UZEIk, berba egokiak iradokita

Hobelex doan jaits daiteke saretik Word eta Office aplikazioetarako

JON BEREZIBAR | ARRASATE

UZEIk testu-zuzentzaile berria garatu du, Hobelex, ortografiaz gain berba egokiak ere iradokitzen dituena. Doan jaits daiteke webgunean eta, oraingoz, PCetarako Word eta Officerako dago prest, doako deskargan.

Euskarazko lehen lexiko zuzentzailea da Hobelex eta termino egokia, Euskaltzaindiaren arauak eta Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordean erabakitakoen arabera iradokiz, zuzenketa egiten du. Datu basea etengabe eguneratuko du UZEIk. PCetarako Word testu-editorean eta Office aplikazio sortetan erabil daiteke, oraingoz, eta ordenagailura jaitsi behar den paketea kargatu eta instalatu behar da.

UZEIko kideak, aurkezpen eguenean. | UZEI

Beti eguneratua

Gainerako testu-zuzentzaileen moduan, testua idatzi ahala zuzentzen du Hobelexek, eta baita, behar den kasuetan, hobespen lexikoak iradoki. Testuaren zuzentasun ortografikoaz gain, hala, egokitasun lexikoa ere bermatzea da helburua. Adibidez, *desarme*, *Japon* eta *deklaratu* berbak ortografikoki zuzenak badira ere, *armagabetze*, *Japonia* eta *adierazi* hobesten dira arauetan, eta egokitzapen horiek dira Hobelexek proposatzen dituenak.

Microsoften Word eta Office sortetan bakarrik erabil daiteke, baina, UZEItik aurkezpen egunean argitu zutenez, aplikazio eta sistema gehiagotara zabaltzeko asmoa dute etorkizunean, eta horretan dihardute lanean.

Datu-base zabala

UZEIk, hain zuzen, ia 40 urte darama euskarazko lexikoa lantzen, eta, horren fruituz, hitz tekniko eta zientifikoekin 117.806 termino dituen datu-basea dute eskura. Orain dela hiru urte hasi ziren lanean tresna horretan, baina datu-baseak hamar urte baino gehiago dauzka. Harrobi horretatik egingo du lan Hobelexek. Etengabeko eguneraketa du datu-base horrek eta berrikuntza guztiak, egin ahala, jasoko ditu Hobelexek testuen zuzenketarako. Maila orokorrean hori, baina, horretaz gain, erabiltzaileak berak bere datu-basea sortu eta erabiltzeko aukera ere izango du Hobelexekin. Hitz baten termino egokiagoa kolore ezberdinetan markatuko da, okerra bada kolore baten eta baliokide egokiagoa iradoki gura den kasuetan beste kolore bat hartuko du azpimarratzeak.

Android 5.0 Lollipop garatzaileentzako eskuragarri dago

Androiden bertsio berria, garatzaileek proba dezaten, eskuragarri jarri du Googlek. Kit berezia jaisten dutenek 21 mailako APIa aurkituko dute Material Design interfazearekin eta, baita ere, telebistako aplikazioentzako interfazea ere. Bertsio berri hori lehenik eta behin Nexus 6, Nexus 9 eta Nexus playerrentzako egongo da prest.

Twitpic irudi zerbitzua itxi egin dute, nork erosi ez aurkitzeagatik

Twitter bidez irudiak eta bideoak partekatzeko aukera ematen zuen Twitpic zerbitzua zapatua ezkero bertan behera dago. Zerbitzuak hasieratik izan du harrera ona erabiltzaileen aldetik, baina enpresa ezin izan dute aurrera eraman, arduradunek eurek aitortu dutenez, euren gaitasun ezarengatik. Hain zuzen, eroslerik ez dute lortu.

Txioetan 'streaming' musika txertatzen utziko du Twitterrek

Androiden eta Appleren aplikazio ofizialetan musika txertatzeko aukera emango du Twitterrek. Musika edo audio puskak entzun gura izanez gero, saguarekin iruditxora jo eta automatikoki hasiko da jotzen. Horretarako, Soundcloud *streaming* zerbitzua erabiliko dute Twitterkoek.

'Inbox' aurkeztu du Googlek, e-postarako

J.B. | ARRASATE

Posta elektronikoa era "inteligenteagoan" kudeatzeko zerbitzu berria aurkeztu du Googlek: *Inbox*. Oraingoz, erabiltzaile gutxi batzuei eman diete sarbidea, probatarako. Doako aplikazioa da *Inbox* eta leku berean posta elektronikoa kudeatu, alertak ezarri eta gaiaren edo garrantziaren arabera mezuak sailkatu eta taldekatzeko aukera ematen du. Mezuaz gain, postari informazio gehigarria erants diezaioke erabiltzaileak: kontaktuak, oharrak, alarmak... Horrekin batera, Google Now laguntzaile areagotu digitalaren zerbitzu gehigarriarekin aberasten da informazioa.

Inbox
by Gmail
Inbox aplikazio berriaren ikonoa. | GOOGLE

Zerbitzua webgune bitartez soilik erabil daiteke, oraingoz, eta, noski, Chrome nabigatzaile propioa behar da horretarako. *Inbox* zuzenean dago GMailekin lotuta eta aplikazio baten zein bestean egindako ekintzek isla izango dute bestean. Probatarako fase horren ostean Googletik beste nabigatzaileentzako eta tabletetarako bertsioak aterako dituztela iragarri dute. Data zehatzik ez dute aurreratu.

'Streaming'-a eta telebista, ia pareko geratzear

J.B. | ARRASATE

Ikus-entzunezko edukiak Internet bidez kontsumitzeko joera geroago eta orokorragoa da eta, zehazki, Espainiako Estatuan, *on line* telesailek eta *streaming* bidezko emisioak ia telebista konbentzionalak besteko ikus-entzule kopurua du. Ericsson etxearen txosten batek azaleratu ditu datuak. Galdetutakoen %80k esan dute telebistako edukiak Internet bidez ikusten dituztela, modu tradizionalean ere egiten dutenen %85en aurrean. Beste 23 herrialdetan ere antzerako datuak atera dituzte ikerketa berean.

Orpo-kolpe bi, eta 'Dorothy'-k zure aginduak beteko ditu

Ozeko Magoaren filmean Dorothyk bezala, oinetakoan, orpoaren azpian kokatutako gailutxo honek, orpoak elkarren artean kolpatuta, mugikorrari aurrez zehaztutako ekintza bat agintzen dio: lagunari deitu, kokapena bidali, aplikazio bat zabaldu... *Dorothy* du izena.

ARGAZKILARIAXXX

TELE-BEGI

OIHAN VEGA

Politika eta telebista

Ez dago mezu politikorik antzezpenik gabe. Azken adibidea aste honetan ikusi ahal izan dugu Podemos-en herri batzarrean. Madrileko zezen plazan egundoko eszenatokia jarriz, ustez, krisialdiaren aurrean herstura ekonomikoa defendatzen duen alderdiak xahututako dirutza agerian utziz.

Ez zaio jokaldia erabat borobila irten, zezen plaza erdi hutsik ikusi baitugu, datozen hauteskunde orokorrak irabaziko dituztela aldarrikatzen duten bitartean.

Aste honetan ere, ETB 2ko *El Dilema* saioan bake prozesuari buruz hitz egin dute (baketik zerbait gehiago izango du prozesutik baino, ze nahiko geldi dago kontua). Eztabaidaren erdian ETAren azken bideoaz mintzo ziren, beste antzezpen bat, Ram Manikkalingamen keinu komikoak ETAren lau pistolen aurrean. Barregarria.

PPk ere burutu du bere eszenaratzea, alderdian dauden ustelkeri kasu guztien aurrean, telebistan batasuna adieraziz, modu hertsian, gainera.

Alegia, telebista politikaren plato erraldoi, edo ezinbesteko eszenatokian bilakatu da. Gora demokrazia!

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 27

'Harmailatik'

Aloña Mendik Antzuola futbol taldea hartu zuen domekan Azkoagainen eta laburpena eskainiko da . | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
13:00 Euskal egitura
13:25 Zorion Agurrak
13:30 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Nafarroa Oinez 2014
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Harira
17:30 Sasoi betean
18:00 Ur eta lur
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Amaia DJ
19:30 Sasoi betean
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Harmailatik
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Harmailatik
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

MARTITZENA, 28

Lazarraga jauregia

Oñatiko Lazarraga jauregia gertutik ezagutu ahal izango da Gerardo Elortzaren eskutik. | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Harmailatik
13:00 Sasoi betean
13:25 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Harmailatik
15:30 Onein
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Amaia DJ
17:30 Nere herrie
18:15 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harira
19:30 Harmailatik
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Osoko bilkura
23:15 Debagoiena zuzenean
23:45 Berriak
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

EGUAZTENA, 29

Arbolapeta

Arrasateko Arbolapetako zuhaitza botako dute eta horri buruzko erreportajea ikusi ahal izango da. | **20:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Osoko bilkura
13:45 Ikusmira
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Sasoi betean
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Osoko bilkura
18:20 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Harmailatik
19:30 Gipuzkoa Pedalka
19:55 Zorion Agurrak
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Gipuzkoa Pedalka
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Gipuzkoa Pedalka
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUENA, 30

'Amaia DJ'

Gazteek Whatsapp, Twitter eta Tuentitik bidalitako kantu eskariekin egindako bideoklipen saioa. | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Gipuzkoa Pedalka
13:00 Sasoi betean
13:30 Nafarroa Oinez 2014
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Nere herrie
15:55 Zorion Agurrak
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Osoko bilkura
18:30 Berriak
19:00 Sasoi betean
19:30 Gipuzkoa Pedalka
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Amaia DJ
22:30 Debagoiena zuzenean
23:00 Berriak
23:30 Amaia DJ
00:00 Debagoiena zuzenean
00:30 Berriak

EGUBAKOITZA, 31

Osoko bilkura

Oñatiko osoko bilkura oso-osorik ikusi ahal izango da egubakoitzean Goiena telebistan. | **22:00**

12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Amaia DJ
13:00 Ikusi irratia
13:55 Zorion Agurrak
14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak
15:00 Amaia DJ
15:30 Onein
16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak
17:00 Gipuzkoa Pedalka
17:30 Ertzak
18:15 Ikusmira
18:25 Zorion Agurrak
18:30 Berriak
19:00 Ur eta lur
19:30 Amaia DJ
20:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak
21:00 Debagoiena zuzenean
21:30 Berriak
22:00 Osoko bilkura
23:15 Debagoiena zuzenean
23:45 Berriak
00:15 Debagoiena zuzenean
00:45 Berriak

ARRASATE IRRATIA

Txatxilipurdiren urteurrena berbeta gai gaur, astelehena

Txatxilipurdik 20 urte bete ditu aurten eta urteurren horri buruz hitz egiteko gaur, astelehena, *Igo autobusera!* irratsaioan 11:00etan izango da Eneko Barberena Txatxilipurdiko zuzendaria. Asteburuan hainbat ekintza egin dituzte eta horien gaineko xehetasunak ere emango ditu.

Astero-astero bi zozketa egiten dira Arrasate Irratian

Astelehenetik egubakoitzera bitartean 107.7ko uhinetan bi zozketa egiten dira *Igo autobusera!* irratsaioan. Eguenetako zozketan *Kooltur Ostegunak* egitasmoko kontzertuetarako sarrerak banatzen dira eta egubakoitzeko zozketan, berriz, askotariko opariak. Animatu eta parte hartu!

Gazte informazioa jaso ahal izango da bihar, martitzena 11:00etan

Gazte Bulegoko Dorleta Kortazarren bisita izango da bihar, martitzena, *Igo autobusera!* irratsaioan 11:00etan. Gazteendako interesgarria izango den informazioaren berri emango du beste behin 107.7ko uhinetan. Besteak beste, gaur egun dauden lan eskaintzak zeintzuk diren azalduko ditu Arrasate Irratian.

TELE-ALBISTEAK

'Gipuzkoa pedalka' saioaren bigarren atala eguaztenean ikusgai

Bizikletaz Berrobitik Donostiara bitarteko ibilbidea egingo du Julen Iriondo kazetariak atal horretan

Julen Iriondo kazetaria, Leire Olaberria txirrindulariarekin Anoetan. | JULEN IRIONDO

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Uztailean bost egunez Gipuzkoan barrena bizikletarekin egindako bidaia jasotzen du *Gipuzkoa pedalka* saioak. Eguaztenean 22:00etan ikusi ahal izango da saioa eta herrialdeko hamaika txoko erakusteaz gain, bizikletaren erabilera bultzatzeko ekimenen berri ematen du programak. Oñatin hasi eta Goierri, Tolosaldea, Orio eta Igeldon barrena Donostia, Pasaia eta Hondarribia, Urola kosta, Urola Garaia eta Debagoiena igarota Oñatin amaituko da bidaia, hasitako lekuan. Ibilbidea mota desberdineko bideetatik da: herri arteko bidegorriak; herri barruetakoak; eta herrialdeko zenbait mendate eder.

Berrobitik Donostiara

Aurreko astean Oñatitik Berrobira bitarteko ibilbidea ikusi ahal izan zen. Oraingoan, Iñaki Arratibel medikuarekin hitzordua zuen egina Julen Iriondo kazetariak, bidean aurrera jarraitu aurretik. Osasunaren ikuspegitik, bizikletan ibiltzeak ekar lezakeenaren gainean harekin hitz egin eta Anoetara. Han, berriz, Leire Olaberria txirrindulariarekin zuen zita. Donostiarainoko bidea egingo du Iriondok bigarren atalean eta han dBizi, bizikleta elektriko alokairu sistema publikoa, ezagutzeko Leire Elvirarekin batera izango da. Bizikleta hiriko gune batean hartu eta beste batean uzteko aukera ematen duen sistema da dBizi, berezitasun horrekin, bizikletak elektrikoak direla. Hori eta gehiago ikusi ahal izango da eguaztenean 22:00etan *Gipuzkoa pedalka*-n.

Eguaztenean 22:00etan ikusi ahal izango da Goiena telebistan

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Lier Escobar Aperribai
Azaroaren 1ean, urtebetetzea. Zorionak gure mutil handiari. Familia osoaren partetik, egun eder eta zoriontsua izan dezazula. Muxu goxo-goxoak zuretzat!

OÑATI
Enzo Elizburu
Urriaren 31n, 4 urte. Zorionak, potxolo! Ondo pasatu urtebetze eguna, muxutxu potolo potoloak etxeko guztien eta, bereziki, Marioren partetik! Asko maite zaitugu!

ARRASATE
Saioa Bergaretxe Astigarraga
Urriaren 30ean, 3 urte. Zorionak, Saioa! Oso ondo pasatu zure egunian eta patxo handi bat familiako danok eta, bereziki, Arrateren partetik.

ESKORIATZA
Eleder Garcia Hermosel
Urriaren 29an, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu potolo bat etxeko danon partetik.

OÑATI
Oier eta Izar Ezkibel
Oierrek urriaren 4an, hiru urte bete zituen; Izarrek hilaren 29an, sei urte beteko ditu. Zorionak, bikote! Patxo handi bat etxeko danon partetik. Ondo pasatu!

ANTZUOLA
Amaiur Legorburu Rodriguez
Urriaren 27an, 12 urte. "Itxaso bat kolpeka zelan dekoten, askatasun beharra, bizitzeko gogoa!". Zorionak, Amaiur!

OÑATI
Haizea Aramburu
Urriaren 26an, 6 urte. Zorionak, bihotza! Jarrai ezazu gure bihotzak konkistatzen. Disfrutatu zure egunaz eta beste urte bat alai bizi dezazula. Maite zaitugu: Uxue, Nahia, aitatxo eta amatxo.

BERGARA
Aimar Lamikiz Rementeria
Urriaren 25ean, urtebete. Zorionak zure lehenengo urtebetetzean, familiaren eta, bereziki, Maddiren partetik.

ARETXABALETA
Maren Lazpiur Eraña
Urriaren 25ean, 8 urte. Zorionak, panpox! Besarkada estu-estua eta muxu erraldoia familiaren partetik. Mundialki pasatu zure egunien eta asko disfrutatu familia eta lagun artien!

ARRASATE
Ekain Agirre Lete
Urriaren 24an, 4 urte. Zorionak, 'txikirrikitin'! Ondo pasatu zure urtebetze eguna danokin batera. Zorionak etxekoen eta, bereziki, Aimarren partetik!

ARRASATE
Nora Otxandiano Jausoro
Urriaren 24an, 8 urte. Zorionak, poxpolin! Disfrutatu eta oso ondo pasatu zure egunean. Patxo handi bat etxekoen partetik. Pa!

ESKORIATZA
Haritz Arrese Otamendi
Urriaren 24an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure egunien eta patxo potolo bat zure anai eta lehengusuen partetik. Aupa Erreala!

ARRASATE
Itxaso Saizar Cazalis
Urriaren 24an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Sei patxo handi Ane, Izar, aitatxo eta amatxoren partetik!

OÑATI
Maialen Goñi Arevalo
Urriaren 23an, 6 urte. Kaixo, poxpolina! Zorionak zure familiaren eta, bereziki, Eiderren eta Learen partetik. Ondo pasatu eguna. Muxu handi-handi bat.

ARRASATE
Aitor Canales Losa
Urriaren 23an, 5 urte. Zorionak, Aitortxu! Ondo pasatu zure egunean, Sorpresa handi bat daukagu zuretzako! Bost patxo super-super handi amaren, aitaren eta Alazneren partetik.

OÑATI
Eñaut Arenaza Arriaran
Urriaren 22an, urtebete. Zorionak, Eñautxo! Konturatu orduko urtetxo bat pasatu da! Ondo-ondo ospatu eta patxo handi-handixak etxeko danan partetik!

ARETXABALETA
Lorea Zubia Sanchez
Urriaren 22an, 7 urte. Zorionak familiako guztion partetik!

ANTZUOLA
Beñat Azkarate Vazquez
Urriaren 22an, 7 urte. Zorionak, Beñat! Egun politxa eduki. Muxu handi bat etxekuen partetik.

OÑATI
Paul Anduaga Arregi
Urriak 29an, 2 urte. Zorionak eta urte askotarako familia guztiaren eta, bereziki, Sara eta Martinen partetik.

OÑATI
Lier Torres Sanchez
Urriaren 20an, 5 urte. Zorionak, maitia! Primeran pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu potolo-potolo bat etxekoen eta familia guztiaren partetik.

BERGARA
Oier Pescador Cid
Urriak 19an, 11 urte. Zorionak, Oier! Ondo pasatu zure egunean eta erregalo asko jaso. Muxu eta besarkada bat Leire, Ane, Aratz eta Ekhiren partetik.

BERGARA
Jokin Alberdi Garitano
Urriaren 31n, 5 urte. Zorionak gure etxeko ttikiari, dagoeneko bost urte!.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet
Sar zaitez *Goiena.eus* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu;
bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak
Etor zaitez Goienaren ordezkaritzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin, nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea

Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru -konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.

maribi 617 44 21 55
BERGARA

ESKER ONA

Miguel Iturrospe Peña

2014ko urriaren13an hil zen, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskoriatzan, 2014ko urriaren 27an.



ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

Egubakoitzean nahiz astelehenean argitaratzeko.

Eskelaren prezioa: 130 euro.
Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 175 euro.
Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkartea: Errotalde jauregia (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

JAIOTAKOAK

Malen Larrañaga Larrañaga

Aramaio 3,250 kilo. Urriaren 24a. Gurasoak: Eider eta Iñaki. Argazkian, Malen jaioberria lasai-lasai.

Markel Caballero Agra

Arrasate 2,975 kilo. Urriaren 22a. Gurasoak: Pili eta Alberto. Argazkian, Markel, aitarekin.

Ane Gil Lazkano

Aretxabaleta 3,150 kilo. Urriaren 22a. Gurasoak: Eneritz eta Juan. Argazkian, Ane txikia, lo.

Oier Torres Navajo

Arrasate 3,400 kilo. Urriaren 21a. Gurasoak: Nagore eta Roberto. Argazkian, Oier amamaren besoetan.

Haizea Blanco Irureta

Bergara 3,240 kilo. Urriaren 20a. Argazkian, Haizea, amarekin.

Elena Altube Porras

Aretxabaleta 3,550 kilo. Urriaren 19a. Gurasoak: Almudena eta Andoni. Argazkian, Elena jaioberria sehaskan.

Jaio da!

Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora
edo zatoz GOIENAren ordezkaritza batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AI, ENE!

Dutxan abesten dutenendako oparia

Dutxan pop izar handiena balitz bezala abestea goizeroko ohitura da askorentzat. Esponja honekin, gehiago biziko dute momentua.
twitter.com/InventosRaros

AHOBERO

"Zilar kolorekoa zen; beltza izan balitz, ez nukeen txartela hartuko"

ARTURO FERNANDEZ | CEOE-KO PRESIDENTEORDEA

Bankiako eta Caja Madrideko kontseilariek jasotako B txartelek zeresana ematen jarraitzen dute. Deigarria da txartelok onartu zituzten askok adierazpenetan erakusten duten lotsa falta eta zinismoa. Zer sentituko dute eurek esandakoak entzutean?
www.lasexta.com

EGURALDIA

Max. 28º
Min. 11º

Nagusituko da giro eguzkitsua eta tenperatura, berriro ere, igo egingo da.
euskalmet.net

ASTELEHENEKOA
goiena
2014-10-27

HAMARREKOA

Joseba Irazoki Berakoa taldean eta bakarka, beste artista batzuen emanaldietan jotzen edo bereetan hainbat instrumenturekin ikusi dugu; 'Joseba Irazoki eta lagunak' du azken diskoa | **TXOMIN MADINA**

"Inprobisazioa da kantuak sortzeko nire abiapuntua"

1. Izenburuan agertzen diren lagunak konbentzitzea edo denen agendak bateratzea, zer izan da zailagoa?
Bigarrena. Konbentzitzea nahiko erraza izan zen, benetako lagunak dira-eta. Baina denak oso lanpetuta ibiltzen dira, eta zailagoa izan da agendak bateratzea.

2. Etxeko zapatiletan grabatu omen duzu disko hau.
Bai. Etxe azpian intsonorizatutako lokal bat dut. Aurrekontu handirik ez nuenez, eta egun baliabide gutxirekin lan profesionala egin daitekeenez, ingenio pixka batekin, uste dut zerbait txukuna lortu dugula.

3. Disko hau deskribatzeko hitz bakarra erabili beharko bazenu?
Intentsua. Kantek iraupen nahiko luzea dute, eta entzunaldi nahiko kontzentratua eskatzen dute; dinamika askokoak dira. Kantak baino gehiago, giroak bilatu ditugu.

4. Sarri, *Oso banda* diskoan, esaterako, gizon bakarreko banda moduan ibiltzen zara: talentua soberan ala dirua faltan?
Dirua faltan. Batez ere, *Oso banda* diskoarekin, kontzertu faltari aurre egiteko formula bat izan zen: urte baten ez nuen birarik izan, eta errepidera bakarrik irtetea erabaki nuen.

5. Zer ematen dizu inprobisazioak?
Dena. Kantuak sortzeko, esaterako, hori da nire abiapuntua. Konponketa mahaian, bestalde, freskotasuna ematen du: inprobisatua denean, zerbait purua da.

JON USUAL

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Munduko gizakien berdintasunaren alde egingo nuke; Afrikan-eta gertatzen dena injustizia hutsa da"

6. Zenbat gitarra dituzu etxean?
Gitarrak, banjoak eta horrelako instrumentu exotikoak sartuta... 15-20. Kuttunena, gehien erabiltzen dudana, nahiko trukatuta dagoen Fender Telecaster japoniarra da.

7. Batek baino gehiagok *Tumatxak* saioko moldaketengatik ezagutuko zaitu. Zeinek utzi zintuen gusturen?
Nahiko azkar egin genituen denak... Akaso, Ruper Ordorikaren *Hi hintzena*: oso lasaia egin nuen, ez nuen askorik aldatu, baina gustura geratu nintzen.

8. Berako baratze musikal emankorreko beste ale bat zaitugu. Zein ongarri ematen dizuete?
Gipuzkoarekin eta Lapurdirekin mugan gaude, eta horrek, agian, izan du eraginik: esan ohi da mugak leku biziak direla. Gertatu zen, baita ere, egon ginela lagun kuadrilla bat disko asko elkartrukatzen genituena, eta horrek markatu egin gintuen gerora egin dugun musikan.

9. Musika irakasteari utzi zenion musika jotzetik bakarrik bizi izateko. Nola doa egindako apustua?
Orain oso ondo, lan gehiegi eta guzti batzuetan! Tarteka, gogorra ere bada, ordutegiekin-eta familiaren kontra noalako; baina plazera da honetaz bizi izatea.

10. Fribolitate ukitu bat: zeinek aukeratzen dizkizu alkandorak?
Nik neuk. Beherapenetan-eta ibiltzen naiz; gustatzen zait arraroak lortzea, batez ere kontzertuetarako.

BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA

Zaharrak berri

Hedabideek zabaldu dutenez, Aznarren gobernuko ministro izan zen Angel Acebes jaun txit errespetagarria ustelkeriagatik inputatu berri du epaileak. Acebes jauna 2012an Auzitegi Nazionalak ere inputatu zuen Bankia auzian.

Acebesek urtetan eskuak solte izan zituen dirua banatzeko, kargu altua esku diru -banatzaileak guanterik gabe erabiltzeko eta mingaina arina gauzak bitan pentsatu gabe, lasai, jaulkitzeko.

Pertsonaia horixe zen barne ministro Del Olmo epaileak *Egunkaria* ixteko agindua eman zuenean. Egindakoengatik ditu Acebesek dituen inputazioak; hitza hartzen duenean, berriz, analisiaren zorrotzak ikara ere ematen du.

Hauxe largatu zuen morroskoak *Egunkaria*ren itxieraz: "*Se trata de una operación en defensa y protección de los derechos y de las libertades de los vascos, de su cultura, de su pensamiento y de la expresión de su lengua en libertad*".

*Egunkaria*ren zuzendariak tortura salatu zuen eta Acebes doilorrak zuzendaria txakurraren salara bialdu zuen; Estrasburgoko Epaitegiak, berriz, salaketa hura ikertu ez izanagatik España zigortu egin zuen.